EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
*Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza*
*Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Planificación y Empleo
Dirección de Servicios y Régimen
Jurídico

# GIZARTE-EKONOMIAREN ESTATISTIKA 2010

## 2008-2010 Biurtekoaren Txostena

## eta 2011ko Emaitzen Aurrerapena

*Ikertaldek egindako oinarrizko dokumentua.*

*Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika-organo espezifikoak egokitua, berrikusia eta garatua*

*2012ko ekainaren 4a*

# EMAITZEN LABURPENA

# EMAITZEN LABURPENA

Gizarte-Ekonomiaren egitura klasikoa -Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak eta Sozietate Mugatu Laboralak- 2010ean 2.171 enpresak osatzen zuten guztira. Enpresa horiek guztira 2.997 establezimendu zituzten eta 59.915 enplegu sortzen zituzten. Sektoreak Balio Erantsi Gordinaren (BEG) 2.823’6 milioi euro sortzen zituen.

**EAEko ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA GIZARTE-EKONOMIAN 1994-2010 EPEA**







***2008-2010 biurtekoaren ezaugarri den enplegu-galerak jarraitu eta areagotu egiten du 2006-2008 artean izandako dinamika.***

Aurkeztutako kopuruen arabera, Europar Batasunak (EB) hamarkadaren bigarren zatian izan duen uzkurdura ekonomikoak eragin erabakigarria izan du Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Gizarte-Ekonomiaren dinamikan. 2008-2010 biurtekoan antzematen da euskal Gizarte-Ekonomian enpleguak %4,3ko murrizketa garbia izan duela, 2006-2008 artean hasitako beheranzko joerari jarraituta. 2010eko 59.915 lanpostuak 2006an lortutako maximoa (63.480 enplegu) baino %5’6 gutxiago dira, 2002ko erregistroaren (61.022 enplegu) azpitik geratzen direla halaber.

Gizarte-Ekonomian izandako lanpostuen galera 2008-2010 biurtekoan (%-4,3), Euskal Ekonomiak, osorik hartuta, epe horretan bizitako atzerakadaren (%3,9) arinki gainetik dago; 2006-2008 artean izandako konparaziozko dinamika negatiboari jarraituta. Biurteko horretan, Euskal Gizarte-Ekonomiaren enplegua %1,4 murriztu zen, EAEko biztanleria landuna guztira %2,7 hazi zen bitartean.

Hala ere, atzera begira konparatzean Gizarte-Ekonomiaren bilakaera EAEko ekonomia orokorraren testuinguruan, 2006-2010 laurtekoan gertatutakoa aurreko urtekoetako dinamikaren etete partziala baino ez dela egiaztatzen da.

Egitatea da 1996-2002 artean Kooperatibek eta Sozietate Laboralek lanpostuak sortu ahal izan zituztela EAEko gainerako enpresek baino erritmo askoz handiagoan. Epe horretan, Gizarte-Ekonomiaren enplegua %40,4 hazi zen, euskal ekonomia osoaren %24,0 baino askoz gehiago. Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren dinamika konparazioz aldekoa 2002tik aurrera hautsi egiten da. 2002-2006 artean Gizarte-Ekonomiaren enplegua %4,0 hazten da, tasa positiboan baina EAEko produkzio-sistema osoak izandako %6,5ko hazkundearen azpitik zegoeneko.

2006 eta 2008 artean, Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren dinamika konparazioz negatiboak berekin dakar, lehen aldiz 1994tik, Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren murrizketa garbia (%-1,4), establezimenduen kopuruaren uzkurdura paraleloarekin (%-3,6). Kontraste bizian, EAEko ekonomia orokorrak goranzko lanbide-joerari eusten dio, biztanleria landunaren kopurua %2,7 hazi dela. 2008-2010 artean enplegu-krisiak euskal ekonomia osoa jotzen duen arren, Gizarte-Ekonomiak enpleguak galtzen jarraitzen du EAEko produkzio-sistema osoak baino erritmo handiagoan (%-4,3 eta %-3,9; hurrenez hurren).

Ondorioa izan da Gizarte-Ekonomiaren garrantzi erlatiboaren galera Euskadin sortutako enplegu osoari dagokionez. 2010eko %6,3a aldendu egiten da 2002an erdietsitako %6,8ko maximotik, orokorrean 2000-2006 arteko erregistroen azpitik geratzen dela halaber. Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren pisu erlatiboa 2010ean handiagoa da 1994-1998 artean izandako %6,0-6,2ko tartea baino.

**GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAEko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 1994-2010 (EAEko enplegu osoaren gaineko %).**




***Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2010***

Enpresa-egitura, ordea, mantendu egiten da, ondoriozko batez besteko tamainaren txikitzearekin

Lanpostuen galerarekin kontrastean, Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egiturak egonkor dirau 2008-2010 artean, are %0’4ko hazkunde arina izan duela. Enpleguarekin gertatu ez bezala, bilakaera horrek 2006-2008 biurtekoaren joera negatiboa hautsi egin du, epe horretan establezimenduen kopurua %3,6 murriztu baitzen.

Adierazitako bilakaerak, 2008-2010 artean, berekin dakar batez besteko tamainaren txikitzea hala enpresetan (28,4tik 27,6 enplegura enpresako) nola establezimenduetan (21,0tik 20,0 enplegura produkzio-guneko).

**GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEN eta ENPLEGUEN HAZKUNDE-TASEN GAINEKO ANALISI KONPARATIBOA: 2004-2006 eta 2006-2008 eta 2008-2010 BIURTEKOAK.**
**KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA 2006-2010ean**

| | Establezimenduak | Enpleguak | Biztanleria landuna EAE |
|---|---|---|---|
| ▲ %06/04 | %+2,1 | %+3,8 | %+3,3 |
| ▲ %08/06 | %-3,6 | %-1,4 | %+2,7 |
| ▲ %10/08 | %+0,4 | %-4,3 | %-3,9 |

*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2010*

**2008 eta 2010eko GIZARTE-EKONOMIAREN ENPRESEN TAMAINAREN GAINEKO ADIERAZLEAK**

| | 2008 | 2010 |
|---|---|---|
| Enpresako establezimendu-kopurua | 1,36 | 1,38 |
| Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak) | 28,4 | 27,6 |
| Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak) | 21,0 | 20,0 |

***Industria-enpleguaren murrizketak Gizarte-Ekonomiaren enpleguen galera orokorra eragiten du, alorraren hirugarren sektorerako egitura-joera areagotzen duela***

Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren bilakaera 2008-2010 biurtekoan, industria-sektorearen dinamika negatiboaren ondorio da batez ere. Enplegua sektore horretan %11,4 murriztu da epe horretan, hots, 3.412 lanposturen galera garbia, 2006-2008 biurtekoaren galerak areagotzen direla. 2006-2010 artean Gizarte-Ekonomiaren industriak 5.840 enplegu garbi galdu ditu, 2006an erabilgarri zeuden lanpostuen %18,1.

Garrantzia handiko datu bat da industriako enpleguen atzerakada nabarmenak 2010eko industria-enpleguaren kopuru osoa 2002 urtekoaren %20,0 azpitik ezarri duela. Bilakaera negatiboena Bizkaiari dagokio, %25,4ko murrizketarekin zortzi urteotan; Gipuzkoako galera, aldiz, %20,0koa dela.

Industria-enpleguaren galera progresiboaren kontrapuntua, 1994tik Gizarte-Ekonomiak bizi duen hirugarren sektorerako joeraren areagotzea da. Izan ere, azken aldiko testuinguru ekonomikoa zaila izan arren, Gizarte-Ekonomiaren zerbitzu-sektoreak enplegu garbiak sortzen dirau 2008-2010 artean, %2,7 hazi dela (+818 enplegu). Hala ere, sektoreak ezin izan dio aurretik izandako hazkunde-tasari eutsi (2006-2008 artean %5,5; eta 2004-2006 artean %5,2).

2010ean zerbitzu-sektorearen nagusitasuna nabarmena da, hala metatzen duen enplegu-mailan (guztiaren %52,0) nola establezimenduei dagokienez (%64,6). Are deigarriago, sektorearen parte

hartzea Gizarte-Ekonomiaren emaitza edo etekin osoan %54'9raino iristen da. Hirugarren sektorerako joerari lotutako osagai positiboa, Gizarte-Ekonomiaren enpleguan emakumeak duen pisuaren goranzko joera da.

**GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA**
**(Hazkunde-tasak 2006-2008 eta 2008-2010 biurtekoetan)**




2006tik aurrera antzematen den Gizarte-Ekonomiaren pisu erlatiboaren galera euskal ekonomian, industriaren bilakaeran oinarritzen da halaber. Era horretan, Gizarte-Ekonomiaren pisu erlatiboa EAEko industria-enpleguan etengabe murriztu da azken urteotan, 2006an izandako %13,2tik 2008ko %12,1era eta 2010eko %11,8ra.

Aldiz, Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektoreak bere pisu espezifikoa areagotu du EAEko hirugarren sektorearen enplegu osoan, 2006ko %4,6tik igaro dela 2008ko %4,8ra eta 2010eko %4,9ra, hurrenez hurren. Bilakaera horrek, ordea, ezin du behar adina orekatu Gizarte-Ekonomiaren industria-sektoreak izan duen garrantzi-galera erlatiboa.

**GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN**
**(Enpleguaren pisu erlatiboa) 2008-2010**




*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 20010*

Industria erasan duen pisu-galera gorabehera, esan beharra dago Gizarte-Ekonomiaren alorrean sektore erabakigarria dela oraindik. Alorreko enplegu osoaren %44,2 hartzen du, euskal ekonomiaren enplegu osoan industria-adar ezberdinek hartzen duten %23,7ren nabarmen gainetik.

**ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARATIBA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE-EKONOMIAN 2010ean (esparru bakoitzeko enplegu osoaren gaineko bolumenaren %)**




*Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2010. urteko okupazioaren batez bestekoa*

Era berean, zehaztu beharra dago jardueraren araberako enpleguaren bilakaera konplexuagoa dela sektorekako kopuru handiek erakusten dutena baino, frogatzen baita ez dutela Gizarte-Ekonomiaren industria-adar guztiek enplegua galtzen 2008-2010 artean, ezta zerbitzu-sektorearen adar guztiak dirrla hedakorrak ere.

Era horretan, atzeranzko adarretan 2008-2010 epean suntsitutako 9.521 enplegu garbiez den bezainbatean, gehienak Material eta ekipo elektriko, elektroniko eta optikoen industriari dagozkio (-3.088 enplegu eta atzeranzko adarren galera garbien %32,4); manufaktura-adar ezberdinei -elikagaiak, ehuna, papera, eta bereziki, egurra, kortxoa eta beste manufaktura batzuk- (-2.788 enplegu garbi eta aztertutako galeren %29,3) eta zerbitzuetako Merkataritza- eta konpontze-adar eta Beste gizarte- eta zerbitzu-jarduerei (-2.020 enplegu, galeren %21,2).

Enplegu-gaietako esparru hedakorrei dagokienez, epealdian 6.821 lanpostu garbi sortzeko gauza izan direnak, deigarri egiten da soilik %46,8 zerbitzu-adarrei dagokiela (bereziki Higiezinen, alokairuen eta enpresa-zerbitzuen jarduerak eta, neurri txikiagoan, Osasunaren eta albaitaritzaren jarduerak eta Gizarte-Zerbitzuak). Gehiengo %53,2 industriari dagokio egiaz, Metalgintza eta produktu metalikoen fabrikazioari nahiz makinaria eta ekipo mekanikoen eraikuntzaren Industriari.

Industria-enpleguaren galerak, era berean, Gipuzkoak Gizarte-Ekonomian duen pisu erlatiboaren galera eragiten du.

Industria-enpleguaren bilakaera negatiboa lotuta dago Gipuzkoan kokatutako Gizarte-Ekonomiaren enpleguak izandako galera handiarekin. Lurralde horretako sektorearen enplegu osoak izandako %8,1eko murrizketa ez dator bat Bizkaian izandako galera askoz txikiagoarekin (%-1,1), are gutxiago Arabak lortutako lanpostu kopuruen %2,0ko hazkundearekin.

Lurralde-enpleguaren dinamika berezi horren ondorio da lurralde bakoitzaren pisu erlatiboaren nolabaiteko aldaketa Gizarte-Ekonomia osoan. Era horretan, Bizkaiak bere parte hartzea handiagotzen du ehuneko 1,3, Gizarte-Ekonomiaren enpleguen %40,3 hartzen duela 2010ean; Arabak, aldiz, gora egiten du 0,7 puntu eta %11,0 hartzen du. Gipuzkoaren pisua enpleguan %48,7ra murriztu arren, euskal Gizarte-Ekonomiaren enpleguan pisu gehien duen Lurralde Historikoa izaten jarraitzen du.

**GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2008-2010**







Establezimenduei dagokionez, Bizkaiak produkzio-guneen %46,0 biltzen du, hots, 2008 urtearekiko ehuneko 0,7ko hazkundea. Gipuzkoak %38,5 biltzen du, 2008 urtean izandakoren 0,5 puntu azpitik; Arabak %15,5eko parte hartzean jarraitzen duela.

**GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2008-2010**






2008-2010 artean, Gizarte-Ekonomiaren pisu espezifikoa Gipuzkoako enplegu orokorrean %9,7tik 9,4ra murriztu da. Bizkaian eta Araban, ordea, Gizarte-Ekonomiak aurrera egin du arinki: hamarren bat Bizkaiaren kasuan eta hiru hamarren Arabaren kasuan, lurraldeko enpleguaren %4,9ra eta %4,6ra iritsi arte, hurrenez hurren.

Ikus daitekeenez, ordea, azken aldiko aurrerakuntzak Gizarte-Ekonomiaren ezartze erlatibo gutxien duten lurraldeei dagozkie. Azken urteotan atzeranzko joera izan arren, Gipuzkoako Kooperatiben eta Sozietate Laboralen enpleguak lurraldeko ekonomian duen eragin erlatiboa EAEko gainerako lurraldeetan duenaren halako bi inguru izaten jarraitzen du. Alde nabarmenena industriari dagokio, Gipuzkoan Gizarte-Ekonomiak lurraldeko enplegu osoaren %19,0 duela, Bizkaian %7,7 eta Araban %6,2.

**GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN**
**(Enpleguaren pisu erlatiboa lurralde historikoaren arabera). 2008-2010**




*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2010*

**GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN, SEKTOREAREN ARABERA**
**(Enpleguaren pisu erlatiboa, lurralde historikoaren arabera)**




*Iturria: BJA, Eustat*

Enplegua Gizarte-Ekonomiaren forma juridiko guztietan murrizten den arren, galera kuantitatiboki nabarmenena Kooperatibei eragin diena da.

Kuantitatiboki, enpleguaren galera Gizarte-Ekonomian Kooperatiben sektoreari erasan die modu negatiboenean. 2008-2010 artean establezimendu kooperatiboen kopuruan %7,1eko hazkundea izan den arren, enpresa-egitasmo berriak sustatzeko eredu gisako forma juridiko horren nolabaiteko berrabiatzea dirudiela, establezimendu horiek sortutako enplegua biurteko honetan %4,3 murriztu da, 2.163 lanposturen galera garbiarekin. Era horretan eten egiten da aurretik zetorren aldeko joera, %0,4ko enplegu-hazkundearekin 2006-2008 biurtekoan eta %4,1ekoarekin 2004-2006 biurtekoan.

Erabakigarria izan da bilakaera horretan gipuzkoar kooperatiba-sektoreko industria-enpleguaren murrizketa nabarmena. 2008-2010 artean, Gipuzkoako Industria-Kooperatibek euren enpleguen %12,8 galdu dute, hots, 2.016 enpleguren galera garbia. Gipuzkoako zerbitzu-sektore kooperatiboak hobeto eutsi dio, 2008-2010 arteko enplegu-kopuruaren atzerakada %0,7koa baino ez dela (-80 lanpostu garbi), industrian izandakoaren oso azpitik.

2008-2010 epeko enplegu-galeraren funtsezko zatia Kooperatibek eragin duten arren, Sozietate Laboralek 2006-2010 artean izandako joera negatiboa mantentzen dute, 537 lanposturen galera garbiarekin.

Bilakaera okerrena Sozietate Mugatu Laboralei (SML) dagokie, 441 lanposturen galerarekin, 2008an zegoenaren %9,2; 2006-2008 artean izandako enplegu-joera negatiboa sakontzen zuela (%-5,3). Paraleloki, establezimendu-kopuruaren galeraren areagotzeak (2006-2008 artean %-9,6; eta 2008-2010 artean %-10,7) 2004tik luzatzen den joera negatiboa jarraitzen du.

Hirugarren sektoreko enpresek, berriz, 2008an enpleguaren bolumen osoa mantentzea lortu dute; are gehiago, 2006 urtearekin alderatuta, %5,5eko hazkundea izan dute. Hazkundearen ehuneko horrek 2004-2006 epean izandakoa gainditu badu ere, ez du lortu 2004-2006 epean erregistratutako %8,8ko hazkunde-mailara iristea.

Sozietate Anonimo Laboraletan (SAL) enpresa-egituraren eta enpleguaren galera sakontzen den arren, 2008-2010 artean dinamika berezia egiaztatzen da establezimenduei eta enpleguari dagokienez forma juridiko horretan. Adibidez, establezimendu-kopuruaren galera handia mantentzen den arren (2008-2010 artean %-12,5; 2006-2008 arteko guneen %16,7ko suntsiketa luzatzen dela), SALek lortu egin dute neurri handian etetea aurreko biurtekoetan izandako enplegu-galera gogorrerako egitura-joera. 2006-2008 arteko enplegu-kopuruaren %9,5eko galeratik igarotzen da 2008-2010 biurteko %1,3ko gutxitze txikira, 96 lanpostu garbi baino ez direla galtzen.

Datu adierazgarria da SALen enpleguaren oinarrizko mantentzea lotuta datorrela aldi bateko enpleguaren hazkundearekin. 2008ko enpleguen %9,7 izatetik igaro da SALekin lotutako lanpostuen %23,8 hartzera 2010 urtean. Urte horretan, aldi bateko enpleguaren pisu erlatibo handiena duen forma juridikoa da; 2008an SMLen ezaugarri zena (%21,1), alegia.

**GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN BILAKAERA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008-2010 (z.a., %b.)**

**ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA**

| | 2008 | | 2010 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | %∆10/08 (1) |
| Kooperatibak | 1.895 | 63,5 | 2.029 | 67,7 | +7,1 |
| SL | 1.091 | 36,5 | 968 | 32,3 | -11,3 |
| SAL | 364 | 12,2 | 319 | 10,7 | -12,4 |
| SML | 727 | 24,3 | 649 | 21,6 | -10,7 |
| **GUZTIRA** | **2.986** | **100,0** | **2.997** | **100,0** | **+0,4** |

**ENPLEGUEN BILAKAERA**

| | 2008 | | 2010 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | %▲10/08 (1) |
| Kooperatibak | 50.359 | 80,4 | 48.196 | 80,5 | -4,3 |
| SL | 12.257 | 19,6 | 11.720 | 19,6 | -4,4 |
| SAL | 7.451 | 11,9 | 7.355 | 12,3 | -1,3 |
| SML | 4.806 | 7,7 | 4.365 | 7,3 | -9,2 |
| **GUZTIRA** | **62.615** | **100,0** | **59.915** | **100,0** | **-4,3** |

(1) Kopuru absolutuen gainean erregistratutako hazkunde portzentuala.

***Gizarte-Ekonomiaren pisu erlatiboa mantentzen da EAEn sortutako BEGari dagokionez, produktibitate atzemangarriaren hazkunde arinari lotuta, bereziki zerbitzu-sektorean.***

2010 urtean Gizarte-Ekonomiaren establezimendu guztiek sortutako BEGaren maila 2.823,6 milioi eurokoa da. Balio izendatuan, zenbateko horrek %3,6ko murrizketa inplikatzen du BEGaren kopuruan 2008rekiko, 2006-2008 artean izandako %0,5eko gutxitzea areagotzen duela.

Enplegu-kopuruaren bilakaerarekin koherentzian, BEGaren murrizketa 2008-2010 biurtekoan oinarritzen da batez ere bigarren sektoreko BEGak izan duen %10,9ko atzerakada nabarmenean, Gipuzkoako industriaren kasuan %13,5 arte iristen den atzerakada. Uzkurdura hori gorabehera, bigarren sektoreak 2010ean Gizarte-Ekonomiaren BEGaren parte hartze handiena izaten jarraitzen du (%51,4; beheranzko joeran bada ere 2008ko %55,7arekiko).

Industria-sektorearen andeatzea fakturazio-kopuruen gutxitze adierazgarriak azaltzen du. Kopuru horiek 2008-2010 artean %16,4 atzeratu dira, hots, 2008an baino 587 milioi euro gutxiago 2010eko balio erantsiaren sorreran.

Zerbitzu-sektoreak, ordea, estatistikaren aurreko argitaraldietan ikusitako BEGaren hazkunde-joerarekin jarraitzen du. Hala ere, 2008-2010 biurtekoan izandako %6,8ko hazkunde-erritmoa, 2006-2008 epeko %10,3a baino askoz txikiagoa da.

**ARLOZ ARLOKO BEGaren HAZKUNDEA 2008-2010 EPEAN (Ohiko prezioak)**

| Sektoreak | Hazkunde-Tasa |
|---|---|
| Industria | %-10,9 |
| Zerbitzuak | %+6,8 |
| **GUZTIRA*** | **%-3,6** |

Enpleguarekin gertatu ez bezala, EAEko ekonomia osoaren bilakaera konparazioz negatiboagoak berekin dakar Gizarte-Ekonomiaren parte hartzearen emendio txikia EAE osoko oinarrizko prezioen BEGean (2008ko %4,7tik 2010eko %4,8ra). Jasan duen krisiaren intentsitatea gorabehera, Gizarte-Ekonomiaren industria da paradoxikoki pisu gehien irabazten duena, 2010ean EAEko sektorearen BPGaren %10,0 dagokiola, 2008ko %9,5a baino puntu erdi gehiago.

**GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA 2008-2010**

| | 2008 | 2010 |
|---|---|---|
| Industria | 9,5 | 10,0 |
| Eraikuntza | 1,3 | 1,5 |
| Zerbitzuak | 3,2 | 3,3 |
| **GUZTIRA** | **4,7** | **4,8** |

***Iturria: Kontu Ekonomikoak, 2010 Eustat***

Enpleguaren galera erlatiboa BEGarena baino handiagoa den testuinguruan (%-4,3 eta %-3,6; hurrenez hurren), Gizarte-Ekonomiaren batez besteko produktibitatea %0,8 hazi da 2008-2010 biurtekoan. Produktibitate antzemangarriaren ratioa enpleguko 46.756 eurotik 47.126ra hazi da 2008-2010 artean.

Produktibitatearen hazkunde arin hori sektore-dinamika ezberdinek eragin dute. Industrian, BEGean izan den galera (%-10,9) baino apur bat handiagoa den enplegu-galera nabarmenak (%-11,4) eragin du. Zerbitzuetan, aldiz, produktibitate antzemangarriaren emendioa oinarritzen da hirugarren sektoreko BEGaren %6,8ko hazkunde positiboan, hots, enplegu-kopuruan izan den %2,7ko hazkundea baino handiagoa den proportzioa. Aldeko bilakaera hori, nolanahi ere, 2004-2006 epean jasotako produktibitate-maila orokorraren hazkunde nabarmenetik urrun dago, orduan hazkundea %16,0koa izan baitzen.

### *Sortutako Mozkinen eta Cash-Flowaren gutxitze nabarmena.*

Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen emaitza positibo agregatuak 207,5 milioi euroko mozkina erdietsi du 2010eko ekitaldian, hots, %41,7ko atzerakada nominala 2008 urtearekiko. Galera nabarmen horrek luzatu eta sakondu egiten du 2006-2008 biurtekoan izandako %32,5ko galera, 2004-2006 biurtekoari zegokion %43,2ko gehitzearekin kontraste deigarria erakusten duela.

Emaitzen dinamika negatiboak fakturazio-mailan izandako murrizketa nabarmenari erantzuten dio. Salmenta-bolumenaren gutxitzea 2008-2010 artean %16,4ra iritsi da industria-sektorean eta %7,8ra zerbitzuetan.

2010ean kutxako fluxuen bilakaera ere negatiboa da. Adibidez, 2006-2008 artean Cash Flowaren mailaren %6,3ko gehitzearekin kontrastean, erreferentziako fluxuek %8,2 egin dute atzera azken biurtekoan 959,9 milioi euroan kokatu arte 2010ean.

**GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN BILAKAERA ETA CASH FLOWAREN (MOZKINAK) 2008-2010 (z.a. milakoan)**




***Europarako esportazioen galeraren eragin erabakigarria fakturazioaren eta enpleguaren bilakaeran.***

Aurreko puntuan aipatutako fakturazio-galeraren zati bat esportazio-bolumenaren galerarekin lotuta dago. 2010ean erdiesten da, zentzu horretan, 2.250,5 milioi euroko esportazio-bolumena, hots, %7,2ko murrizketa 2008an erdietsitako mailarekiko.

Fakturazio-galera, ordea, txikiagoa da barne-salmentei dagokiena baino. Gizarte-Ekonomiaren fakturazio osoan esportazioei dagokien pisuaren goranzko joera mantentzen da, beraz, 2010ean lehen aldiz gainditzen duela %25eko atalasea (%26,3 zehazki).

**KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE-MAILAREN BILAKAERA (esportazioen bolumena fakturazio osoaren gainean). 1994-2010**



Joera positibo horrek, hala ere, ezin du estali esportazioen azken aldiko bilakaeraren zenbait ezaugarri oso negatibo. Era horretan, Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren azken aldiko bilakaera azaltzeko alderdi erabakigarria, bereziki kanpo-salmenten %98,9 biltzen duen industrian, europar merkatuan ondasun-eskarian izandako atzerakada gogorra da, Gizarte-Ekonomiaren esportazioen berezko merkatuetako batean, alegia.

Europar merkatura bideratutako esportazioek erakusten dute, zentzu horretan, %28,7ko galera 2008-2010 artean. Europarako esportazioen 526'8 milioi euroko murrizketa 2008-2010 artean ezin izan dute orekatu nazioarteko beste merkatuetan irabazitako 387,7 milioi euroek, era horretan kanpo-salmenten galera orokorra azaltzen dela erreferentziako epean.

Nabarmendu beharra dago, ordea, esportazioak beste eremu geografikoetara bideratzea erabakigarria izan dela europar eskariaren beheranzko joera orekatzeko. Epe luzeko ikuspegian, 2004-2010 aldia erreferentziatzat hartuta, asiar merkatua helmuga geografiko bereziki dinamikoa da. Kopuru absolutuan, Asiarako esportazioak 328,0 milioi euro emendatzen dira epe horretan. Kopuru horren inplikazio estrategikoak ulertzeko, nahikoa da adieraztea, Europako eskari-krisiaren ondorioz, 2010ean europar esparruan egindako esportazioen diferentzia -2004an zeudenekiko- 128,7 milioi euroko hazkundea baino ez dela.

2006-2008 epeko krisia gainditu ostean, AEBekoa agertzen da hazkunde-ahalmenean bigarren merkatu gisa. 2004-2010 artean, esportazio-bolumenak 90,2 milioi euroko emendio garbia erakusten du, latinoamerikar merkatuari dagokion 64,8 milioiko emendioaren gainetik.

Enpresa esportatzaileen testuinguruan, beharrezkoa da adieraztea espainiar merkatuari lotutako fakturazioa 2008-2010 biurtekoan proportzio handiagoan murriztu dela esportazioei dagokien bolumena baino (%-25,9 eta %-16,3, hurrenez hurren). Hala ere, europar merkatuari lotutako salmentek atzera egiten dute barne-salmentek baino proportzio handiagoan (%-28,7 eta %-25,0, hurrenez hurren). Kopuru absolutuan, fakturazioaren galera Estatu osoko merkatuan gutxigatik da europar merkatuari dagokiona baino handiagoa (-637,2 milioi euro lehen kasuan; 562,8 milioi euro bigarrenean).

**BARNE- ETA KANPO-SALMENTEN BILAKAERA 2008-2010 EPEAN**

| | 2008 | 2010 | %Δ10/08 | z.a. Δ10/08 |
|---|---|---|---|---|
| **Fakturazio osoa** | **9.756.734.068** | **8.563.275.439** | **%-12,2** | **-1.193.458.629** |
| **Esportazaileen fakturazioa** | **4.971.785.590** | **4.159.506.738** | **%-16,3** | **-812.278.852** |
| a)Barne-salmentak | 2.546.176.290 | 1.909.021.877 | %-25,0 | -637.154.413 |
| b)Kanpo-salmentak: Esportazioak | 2.425.609.299 | 2.250.484.862 | %-7,2 | -175.124.437 |
| b.1. Europara | 1.959.861.909 | 1.397.054.639 | %-28,7 | -562.807.270 |
| b.2. Gainerako Herrialdeetara | 465.747.390 | 853.430.223 | %+83,2 | 387.682.833 |

***Enpresen Pasiboko Fondo Propioen beheranzko joeraren mantentzea eta aktibo ukigarrieko nahiz ukiezineko inbestimendu-prozesuen galera gogorra.***

Azkenik, Gizarte-Ekonomiaren berezko finantziazioaren eta inbestimendu-ahaleginaren eremuari dagozkion zenbait alderdi aipatu litezke.

Berezko kapitalizazioaz eta finantziazioaz den bezainbatean, balio nominalean %3,1eko atzerakada Fondo Propioen mailan nabarmentzen da. Txikiagoa izan arren, galera horrek 2006-2008 biurtekoan jasotako %7,0ko galera luzatzen du, hain zuzen ere, Euskal Gizarte-Ekonomiaren finantza-sendotasunari eusten zion goranzko joera lehen aldiz eten zuen biurtekoa.

Kezkagarriago da inbestimendu-kopuruen bilakaera. 2006-2008 biurtekoan %0,7ko hazkundea erakusten zuen joerarekin kontrastean, 2008-2010 artean Gizarte-Ekonomiaren inbestimendu-maila nabarmen murrizten da.

Ibilgetu materialean egindako inbestimendu osoa 29,1 milioi eurokoa da, hots, 2008 urtean jasotako maila baino bederatzi aldiz beherago. Arrazoiak dira Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektoreko enpresek egindako inbestimendu garbi negatiboa (-61,8 milioi euro) eta industriaren eremuan egindako inbestimenduen beheratze adierazgarria.

Neurri txikiagoan bada ere, ibilgetu immaterialean egindako inbestimenduek ere atzera egin dute %40,3an 2008-2010 artean, azken urte horretan 36,6 milioi euroan kokatu direla. Kasu horretan ere erabakigarria da hirugarren sektore kooperatiboari lotutako inbestimendu garbi negatiboen eragina.

Garrantzitsua da aipatzea zerbitzu-sektorearen ezaugarri den ukiezinen inbestimenduaren joera negatiboa ezberdin eragiten diela Arabari eta Bizkaiari, bizkaitar hirugarren sektoreko desinbestimenduaren pisu nabarmenarekin (Bi lurraldeotan jasotako galeraren %92,2 Bizkaiari dagokio).

***Gizarte-Ekonomiaren Forma "klasikoen" osagarri den eragile-taldea, hark sortutako kopuru handien %20 baino zerbait gehiago dena.***

Lehen aurkeztutako Gizarte-Ekonomia "klasikoaren" kopuru osoen osagarri da Gizarte-Ekonomiaren forma berriei lotutako jardun ekonomikoa. Azken enpresa-arlo horrek 1.042 erakunde biltzen ditu guztira: 585 Fundazio, 185 Onura Publikoko Elkarte, Enplegu-Zentro Berezi gisa eratutako 11 erakunde, 44 Laneratzeko Enpresa, 175 Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakunde, 16 Arrantzale-Kofradia eta 26 Eraldaketarako Nekazaritza-Sozietate.

Enpresa-egitura horri lotutako jardun ekonomikoa, aldi berean Kooperatibaren edo Sozietate Laboralaren forma juridikoa duten erakundeak barnean hartu gabe, berekin dakar enpleguari dagokionez 16.345 lanpostu 2010 urtean. Forma juridiko klasikoei erantsita, 76.260 lanpostuko kopurua da Gizarte-Ekonomia osoarentzat 2010ean. Enplegu horien %21,4 Gizarte-Ekonomiaren Forma Berriei dagokie.

Gizarte-Ekonomiaren mota berri hauek osatzen dituzten erakundeak barnean hartuta, sektorearen fakturazio agregatua 2010eko ekitaldian 11.077 milioi eurokoa da -%22,7 forma berriei lotuta-, eta 3.061 milioi euroko BEG global edo agregatua -%21,6 Gizarte-Ekonomiaren eragile berriei dagokie-.

**GIZARTE-EKONOMIAREN MAGNITUDE NAGUSIAK + GIZARTE-EKONOMIAREN KONTUAK 2010ean**

**(z.a. eta %b.)**

| | GIZARTE-EKONOMIA AGREGATUA 2010<br>Forma Berriak<br>+<br>Kooperatibak, SALak eta SMLak | Forma Berrien pisua 2010eko AGREGATUAREKIKO |
|---|---|---|
| **Enplegua** | **76.260 enplegu urtekotu** | %21,4 |
| **Fakturazioa** | **11.077 milioi euro** | %22,7 |
| **BEG** | **3.601 milioi euro** | %21,6 |

***Iturria: Propio sortua***

2011ko ikuspegia: Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egituraren aldetik uzkurdura gelditzen da eta nolabaiteko suspertzeari ekiten zaio, 2011 urterako, fakturazioari eta enpleguari dagokienez.

Kontuan hartzeko funtsezko datua da, Kooperatibek eta Sozietate Laboralek 2011 urteari begira aurreratutako iragarpenen arabera, urte hori litzatekeela lau urte lehenago hasitako galeraren amaiera, nolabaiteko hobetzearekin aurrez ikusitako fakturazioari eta enpleguari dagokienez. Hobetze hori hurrengo adierazleetan egiaztatzen da:

- Fakturazioaz den bezainbatean, %6,4ko emendio nominala aurreikusten da salmentetan 9.109,6 milioi euro erdietsi arte. Hala ere, gerturatzen bazaio ere, 2011rako jotako kopurua 2009koa baino txikiagoa da (9.205,1 milioi euro).

- Enpleguaz de bezainbatean, aurrez ikusitako bilakaerak berekin dakar %0,9ko suspertze txikia, 2011 urtean 60.448 lanpostu berriz lortzea litzatekeena, hots, 2009 eta 2010 urteetakoa baino kopuru handiagoa. Enplegu-bolumena, hala ere, 2006 urteko 63.480 enpleguen azpitik samar geratuko litzateke, are 2002an zeuden 61.022 lanpostuetatik.

Garrantzitsua da aipatzea, halaber, enpleguaren eta fakturazioaren suspertzea bateragarri dela produktibitatearen goranzko joerarekin, fakturazioa enplegua baino erritmo biziagoan areagotzen baita.

**EAEKO GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUEN BILAKAERA 2002-2011 EPEAN**




**FAKTURAZIOAREN BILAKAERA, 2006-2011 (Euro kopurua, milakoan)**




Oraindik enpleguaren goititze mugatua erakutsi arren, aldagai horri dagokionez, aurkeztutako kopuruek inplikatzen dute Gizarte-Ekonomiaren muin historikoari (Kooperatibak eta Sozietate Laboralak) erasan dion ziklo negatiboaren etete argia. Lotuta datoz, gainera, industria-sektorearen suspertze ekonomikoarekin. Sektore hori da aukera onenak erakusten dituena fakturazioari dagokionez, 2010-2011 artean salmenta-kopuruaren %7,9ko emendioa aurreikusten duela. Emendio horri erantsita dator industria-enpleguaren %2,6ko hazkunde aurreikusia.

Aipatu beharrekoak dira, hala ere, zenbait puntu ilun lanbide-dinamikan. Alde batetik, industriaren bilakaera positiboak kontraste egiten du Gizarte-Ekonomiaren zerbitzu-sektorearen aurreikusitako enplegu-kopuruaren %0,2ko galerarekin. Beste aldetik, enpleguaren beheranzko joera mantentzen da Sozietate Laboraletan, galera txikiarekin SALetan (%-0,4), baina oso biziarekin SMLetan (%-16,7).

# LEHEN ZATIA:

# TXOSTEN OROKORRA

## SARRERA

Txosten honek Gizarte-Ekonomiaren Estatistikaren emaitza nagusiak aurkezten ditu, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak garatzen duen estatistika-lana da eta Gizarte-Ekonomiaren sektoreko enpresen jardun ekonomikoa jasotzen du.

Estatistika-lanak EAEko Gizarte-Ekonomiaren enpresa- eta ekonomia-egitura testuinguruaren barruan kokatu eta haren ezaugarriak zehazten ditu, argitaraldi honetan 2010eko ekitaldiari dagokionez, 2008 urtearekin alderatuta izan duen bilakaera azaltzen dela.

Txostenak aurreko argitaraldietako aurkezpen-egitura mantentzen du, honako ataletan banatuta:

- Lehenengo atalak 2008-2010 biurtekoko Gizarte-Ekonomiaren enpresa- eta ekonomia-dinamikara hurbiltze orokorra errazten du. Testuinguru horretan enpresa nahiz establezimendu-eta enplegu-kopuruaren bilakaera aztertzen da, jarduera-sektoreen araberako ezaugarri nagusiak kontuan hartuz. Era berean aurkezten dira sortutako BEGari dagokion kopurua eta lotutako produktibitate-ratioak, azkenik 2010eko ekitaldiari dagozkion Diru-Sarreren eta Gastuen Kontuak ere xeheki bereizten direla.

- Bigarren atalak aurreko analisi bera egiten du, Gizarte-Ekonomia historikoa osatzen duten forma juridikoen arabera: Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak (SAL) eta Sozietate Mugatu Laboralak (SML).

- Hirugarren atalak, berriz, Gizarte-Ekonomiaren magnitude ekonomiko nagusien azterketa egiten du Lurralde Historikoen arabera.

- Laugarren atalak Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egituraren nazioartekotze-mailari heltzen dio, esportazioen bilakaera eta norakoa aztertuz.

- Azken atalak, bosgarrenak, beste magnitude ekonomiko zehatzen analisia egiten du, hala nola, funts propioen maila, errentagarritasun-mailak, finantza-ratioak, ibilgetu material eta immaterialean egindako inbestimenduen bilakaera, edo Gizarte-Ekonomiaren alorreko enpresek jasotako dirulaguntzen zenbatekoa.

Osagarritzat, argitaraldi honetan bi Eranskin gehitu dira:

- Lehen eranskinean Galera eta Mozkinen Kontuen xehetasunak ematen dira, Gizarte-Ekonomia osoaren forma juridikoaren eta Lurralde Historikoaren arabera banatuta 2010eko ekitaldian, eta kasu bakoitzean jarduera-sektorearen arabera halaber.

- Bigarren eranskinak enpresaren kudeaketa-motari lotutako aldagai batzuk aztertzen ditu. Horiek horrela, enpresen eguneroko jardunean abiarazi eta erabiltzen diren tresnak edo kudeaketa-planak aztertzen dira, baita ezarri diren enpresen arteko lankidetza-ereduak ere.

## 1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN DINAMIKA 2008-2010 BIURTEKOAN

2010 urtean, EAEko Gizarte-Ekonomiaren muin nagusia -Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak eta Sozietate Mugatu Laboralak- **2.171 enpresak eta 2.997** establezimenduk osatzen dute. Enpresa-sare horrek guztira **59.915 enplegu** sortzen ditu.

**1.1 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA 2002-2010**

| | GIZARTE-EKONOMIA | | |
|---|---|---|---|
| | Establezimenduak | Enpleguak | Biztanleria landuna EAEn |
| 2002 | 2.976 | 61.022 | 902.200 |
| 2004 | 3.032 | 61.140 | 930.600 |
| 2006 | 3.096 | 63.480 | 961.000 |
| 2008 | 2.986 | 62.615 | 987.100 |
| 2010 | 2.997 | 59.915 | 948.900 |
| | %+0,4 | %-4,3 | %-3,9 |

*Oharra: Okupazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat. Urteko okupazioaren batez bestekoa*

Datu horiek erakusten dutenez, Gizarte-Ekonomiaren enpresa-sarea ia-ia egonkor mantentzen da azken urteekiko, 2008 eta 2010 arteko %0,4ko emendio arinarekin. Datu horrek kontraste egiten du 2006-2008 arteko bilakaera negatiboarekin, biurteko horretan establezimenduen sortze-dinamikak %3,6ko galera izan baitzuen.

Hala ere, 2008-2010 epeko establezimendu-kopuruaren aurrerakada txikiak ezin du 2008 aurreko urteetan zegoen bolumena erdietsi, enpresa-egiturak 3.000 produkzio-gune baino gehiago zituenean. Gune-bolumen hori 2000-2002 biurtekoan izandako gehitze adierazgarriaren ondorio zen, %6,2ko hazkundearekin establezimendu-kopuruan, jarraian izan zituela emendio txikiagoak –baina positiboak nolanahi ere, %2 ingurukoak- 2002-2006 artean.

Lantoki-kopuruaren goranzko joera arinaren mantentzeak ez dakar berekin, bestalde, Gizarte-Ekonomiaren lanbide-egonkortasunik, 2008-2010 artean enplegu-bolumenak %4,3ko galera izan baitu. Galera hori EAEko ekonomia osoarenaren antzekoa izan arren epe horretan (%-3,9), Gizarte-Ekonomiak 2006-2008 artean izandako lanpostu-kopuruaren gutxitzearen (%-1,4) gainetik samar dago. Beheranzko joera horrek, gainera, kontraste nabarmena egiten du 2000-2006 artean jasotako enplegu-hazkundearekin.

Kopuru absolutuan, enplegu-bolumenak 2010ean maila apalena erdietsi du 2002tik, geroztik lehen aldiz 60.000 enpleguen azpitik baitago. Guztira 59.915 lanposturekin, 2010eko kopurua 2006an erdietsitako 63.480 enpleguen azpitik samar dago. Kopuru erlatiboan antzematen zen bezala, 2006-2010 laurtekoko enplegu-galera absolutua azken urteotan areagotzen da, 2006-2008 biurtekoko 865 enpleguren gutxitzetik igarotzen dela 2008-2010 arteko 2.700 lanposturen galera garbira.

**1.2 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN HAZKUNDE-TASAK 2000 eta 2010 artean.**
**KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA**

| | Establezimenduak | Enpleguak | Biztanleria landuna EAE |
|---|---|---|---|
| ▲ %02/00 | %+6,2 | %+12,6 | %+8,7 |
| ▲ %04/02 | %+1,9 | %+0,2 | %+3,1 |
| ▲ %06/04 | %+2,1 | %+3,8 | %+3,3 |
| ▲ %08/06 | %-3,6 | %-1,4 | %+2,7 |
| ▲ %10/08 | %+0,4 | %-4,3 | %-3,9 |

*Oharra: Okupazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat. Urteko okupazioaren batez bestekoa*

Dena dela, ikuspegi kronologiko zabalagoan, garrantzitsua da nabarmentzea 2010ean antzemandako zenbatekoak gainditzen jarraitzen duela 1994-2000 epeari dagokiona, Gizarte-Ekonomiaren hala establezimendu-kopuruaz nola enplegu-bolumenaz den bezainbatean.

**1.1 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2010**







EAEko ekonomia osoaren eta Gizarte-Ekonomiaren lanpostu-kopuruaren galeren arteko antzekotasunak ahalbidetzen du mantentzea Kooperatibei eta Sozietate Laboralei dagokien pisu erlatiboa Euskadiko enplegu osoan. Hala ere, 2008 eta 2010eko %6,3a  2000-2006 artean izandako ehunekoen azpitik dago, epe horretan Gizarte-Ekonomiaren pisua enplegu osoan %6,5en gainetik baitzegoen, 2002an erdietsitako %6,8ko maximoarekin.

**1.2 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAEko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 1994-2010**
**(% EAEko enpleguen kopuru osoarekiko)**




*Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira.*
*Eustat. Urteko okupazioaren batez bestekoa*

Azken bi urteetan, establezimendu-kopuruaren egonkortzearen eta enplegu-mailen murrizketaren arteko kontrasteak erasan egiten dio Gizarte-Ekonomiaren enpresa-neurriari. Era horretan, establezimenduen batez besteko tamaina murriztu egiten da 2008ko establezimendu bakoitzeko 21,0 enplegutik 2010eko 20,0 enplegura, hots, 2006ko establezimendu bakoitzeko 20,5 enpleguren azpiko maila ez ezik, 1994-1998 arteko establezimendu bakoitzeko 21,8ko kopuru maximoaren azpitik dago ere. Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren establezimenduen batez besteko neurria oraindik 2000ko establezimendu bakoitzeko 19,4 enpleguren gainetik dago, eta gogoan hartu behar da 1994-2000 arteko Gizarte-Ekonomiaren enplegu-hazkundearen ezaugarria izan zela gune-tamainaren galera nabarmena

Enpresa bakoitzeko establezimendu-ratioa (2010ean 1,38 eta 2008an 1,36) mantentzen duen testuinguruan, gune edo enpresen baino enpleguaren suntsitze erlatibo handiagoak berekin dakar enpresen batez besteko tamainaren murrizketa halaber, batez besteko neurria 2008ko 28,4 enplegutik igaro dela 2010eko 27,6 enplegura.

**1.3 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINARI BURUZKO ADIERAZLEAK. 2008-2010**

| | 2008 | 2010 |
|---|---|---|
| Establezimendu/enpresa-kopurua | 1,36 | 1,38 |
| Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak) | 28,4 | 27,6 |
| Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak) | 21,0 | 20,0 |

Gizarte-Ekonomiaren egituraren analisia enpresen batez besteko tamainaren arabera eginez gero, aurreko argitaraldietan antzemandako gertaerak sendotzen dira:

- 15 enplegutik beherako enpresen betekizun nabarmenak jarraitzen du, izan ere, enpresa guztien %78,6 dira. 5 enplegutik beherako enpresen pisua bereziki nabarmena da, maila horretakoak, berez, Gizarte-Ekonomiaren enpresa-sarearen %55,3 baitira 2010ean. Mota horretako enpresek, aurreko urteekiko, batez besteko tamainari eusteko joera dute (5 enplegu arteko enpresetan 3,0 enplegu; 6-15 enplegu bitartekoetan 9,2). Gizarte-Ekonomiaren enpleguen %13,8 osatzen dute, 2008ko %14,3ren azpitik halere.

- 16 eta 50 enplegu bitarte dituzten enpresen parte hartzeak, ordea, gora egiten du Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoan (2008ko %13,1tik 2010eko %14,7ra). Enpresa-mota horietako batez besteko tamaina, hain zuzen, hazi egiten da 27,6 enplegutik 28,8ra 2008-2010 artean.

- 51 eta 100 enplegu bitarteko enpresek ere handitu egin dute batez besteko tamaina (2008ko 74,9 enplegutik 2010 urteko 75,8 enplegura). Gizarte-Ekonomiaren enpresen %3,7 baino ez badira ere, enpleguen %10,1 sortzen dute, 2008ko %10,3aren apur bat azpitik kasu horretan.

- 16 eta 100 langile bitarteko establezimenduetan gertatu ez bezala, 101 eta 200 enplegu bitarteko mailan batez besteko neurria murriztu egiten da (147,1 enplegutik 2008an, 143,9 enplegura 2010 urtean). Maila horrek Gizarte-Ekonomiaren enpresen %1,7 eta enpleguen %8,6 biltzen du (2008an %9,2)

- 201 eta 500 langile bitarteko enpresei dagokienez, batez besteko tamaina handitzen dute 294,9 enplegutik 324,0 enplegura 2010 urtean. Neurri txikiagoan bada ere, 500 enplegu baino gehiagoko enpresek ere batez besteko tamaina handitu dute 1.381,9 enpleguko batez besteko neurria erdietsi arte (2008an 1.347,1). 200 enplegu baino gehiagoko enpresek, enpresa-unitateen %2,0 baino ez izan arren, Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren ia-ia %53 biltzen dute (%52,7; 2008ko %53,1aren apur bat azpitik).

Aurreko datuek Gizarte-Ekonomiaren enpresa-errealitatearen dualtasuna sendotzen dute. Alde batetik, tamaina txikiko enpresa-talde zabala -%78,6 15 enplegu baino gutxiagorekin- baina Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren %13,8 baino ez dena; eta horren aurrean, 200 enplegu baino gehiagoko 42 enpresako taldea, Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren %52,7 sortzeko gauza dena.

Enplegu-dinamika, ordea, tamaina txikiko edo ertaineko enpresa-mota batzuen aldekoa da. Era horretan, 5 enplegu baino gutxiagoko enpresek lortu dute 296 lanpostu garbiko hazkundea 2008-2010 artean, 2008an indarrean jarri zen Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko Legeari lotutako bilakaera, neurri handi batean, legeak Kooperatiba bat soilik bi kiderekin sortzea onartzen baitu. Antzeko ildoan, 16 eta 50 enplegu bitarteko enpresek lortzen dute 578 enplegutan haztea 2008-2010 biurtekoan.

Horrek kontraste egiten du Gizarte-Ekonomiaren enpresa handiek erakusten duten bilakaera negatiboarekin, haietako asko Industria-Kooperatibak direla. Adibidez, 500 enplegu baino gehiagoko enpresa handiek enpleguak suntsitzen dituzte 2.000 lanpostuko kopuruaren gainetik. Hain zuzen, Gizarte-Ekonomiaren enplegu-galera nabarmena 2008-2010 artean lotzen da, neurri handi batean, enpresa handietako lanbide-murrizketari, bereziki industria-sektorean.

**1.4 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINA 2010ean**
**(z.a. eta %b.)**

| | Enpresa-kopurua | %b. | Enpleguak | %b. | Batez besteko tamaina |
|---|---|---|---|---|---|
| 5 enplegu arte | 1.201 | %55,3 | 3.639 | %6,1 | 3,0 |
| 6tik 15era | 506 | %23,3 | 4.636 | %7,7 | 9,2 |
| 16tik 50era | 306 | %14,1 | 8.801 | %14,7 | 28,8 |
| 51tik 100era | 80 | %3,7 | 6.064 | %10,1 | 75,8 |
| 101etik 200era | 36 | %1,7 | 5.182 | %8,6 | 143,9 |
| 201etik 500era | 25 | %1,2 | 8.101 | %13,5 | 324,0 |
| 500 enplegutik gora | 17 | %0,8 | 23.492 | %39,2 | 1.381,9 |
| **GUZTIRA** | **2.171** | **100** | **59.915** | **100** | **27,6** |

Enpresa txikien eta ertainen pisu handia gorabehera, Gizarte-Ekonomiaren enpresek eta establezimenduek EAEko ekonomia orokorrarenek baino tamaina handiagoa dute (enpresa bakoitzeko 27,6 eta 5,3 enplegu, hurrenez hurren; eta 20,0 eta 4,7 enplegu establezimendu bakoitzeko, hurrenez hurren).

Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen neurri erlatibo handiagoa estuki lotuta dago tamaina ertaineko eta handiko enpresen presentzia handiagora kooperatiba-lorrean eta industria-sektorean.

**1.5 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ETA EAEko EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDU/ENPRESEN TAMAINA, ENPLEGUAREN ARABERA 2010ean**

| | Establezimenduen batez besteko tamaina | Enpresen batez besteko tamaina |
|---|---|---|
| Gizarte-Ekonomia, 2010 | 20,0 | 27,6 |
| EAEko ekonomia, 2010 | 4,7 | 5,3 |

*Oharra: EAEri buruzko datuak Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik hartutakoak dira. Eustat 2010*

## 1.1.- GIZARTE-EKONOMIAREN ARLOZ ARLOKO ENPLEGUA

Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren ezaugarri sektoriala aztertuz gero, hirugarren sektorerako joera progresiboa nabarmentzen da 1994tik etengabe.

Joera hori lotuta dago, alde batetik, zerbitzu-sektorean izan de enplegu-hazkundeari, %2,7ko emendioarekin 2008-2010 biurtekoan, 2006-2008koa (%5,5) baino txikiagoa dena, halere. Bigarren faktore bat industriaren pisuaren galera progresiboa da, industria-enpleguaren %11,4ko galerarekin 2008-2010 artean. Industria-enpleguaren murrizketak gainditu egiten du 2006-2008 biurtekokoa, enplegu-galerak zegoeneko %7,5a erdietsi zuen epea.

**1.3 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA (Hazkunde-tasak 2006-2008 eta 2008-2010 biurtekoetan)**




Duela urte askotatik goranzko norabidean egon arren, hirugarren sektorerako joerak garrantzi kualitatiboko aldaketa sartzen du 2010ean, Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren zati handiena zerbitzuetan biltzen dela lehen aldiz enpleguari dagokionez. 2006an zegoeneko enpleguaren %45,3 zen, industriak artean gehiengoa zuen %51,0rekin urte horretan, zerbitzuek 2008an ezin zutela enpleguaren %50eko muga gainditu, zegoeneko industria-enpleguaren gainetik egon arren (%48,5 eta 47,4; hurrenez hurren). Bada, 2010ean, hirugarren sektorea dagoeneko enpleguaren %52,0 da, eta horren aurrean, industria-lanbidea %44,2rekin.

Kopuru absolutuan hirugarren sektoreak 31.171 enplegu biltzen ditu 2010ean, industriari dagozkiola 26.510 enplegu, 2008an zituen 30.353 enplegutik nabarmen azpitik.

Ekonomiaren bigarren sektoreko enplegu-galera 2008-2010 biurtekoan orobat antzematen da eraikuntza-sektorean (%-3,1), lehen sektoreari ere erasaten diola (%-18,6). 2010ean sektore biok doi-doia erdiesten dute Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren %4, nekazaritza-sektoreari dagozkiola 179 enplegu, eta 2.055 eraikuntzari.

**1.6 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. 2008 eta 2010 (z.a. eta %b.)**

| | 2008 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 220 | 0,4 | 179 | 0,3 |
| Industria | 29.922 | 47,8 | 26.510 | 44,2 |
| Eraikuntza | 2.120 | 3,4 | 2.055 | 3,4 |
| Zerbitzuak | 30.353 | 48,5 | 31.171 | 52,0 |
| **GUZTIRA** | **62.615** | **100,0** | **59.915** | **100,0** |

Hala ere, euskal Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektorerako joerak erlatiboa izaten jarraitzen du. Alorreko enpleguan industriak pisua galdu arren, Kooperatiben eta Sozietate Laboralen industria-osagaiak begien bistakoa izaten jarraitzen du, EAEko ekonomia osoarenarekin erkatuz gero. Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren %44,2k industriari lotuta jarraitzen du; euskal ekonomia osoari dagokionez, aldiz, %23,7 dela. Kontrako bidetik, zerbitzu-sektoreak pisu txikiagoa du Gizarte-Ekonomian (%52,0), EAEko produkzio-sektore osoan baino (%67,7).

Gizarte-Ekonomiak oraindik duen industria-alderdi deigarriaren beste adierazle bat da enplegu sektorialaren ordezkaritza txikiagoa luzatu egiten dela, kasu horretan, lehen sektorera eta eraikuntzara. Sektore horien pisua Gizarte-Ekonomian (%0,3 eta 3,4), EAEko ekonomia orokorrean antzematen dena baino nabarmen txikiagoa da (%0,9 eta 7,6; hurrenez hurren).

**1.4 irudia**

**ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARATIBA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE-EKONOMIAN. (%b., eremu bakoitzeko enplegu osoari dagokionez)**




*Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2010. urteko okupazioaren batez bestekoa.*

Hain zuzen, Gizarte-Ekonomiaren industria-sektoreak jarraitzen du izaten euskal industria-sektorearen funtsezko zati bat, EAEko industria-enpleguaren %11,8 biltzen baitu. Adierazle hori oso urrun dago gainerako jardun-sektoreei dagokienetik. Izan ere, Gizarte-Ekonomiaren zerbitzu-sektoreak euskal hirugarren sektoreko enpleguaren %4,9 biltzen du, eraikuntzari dagokionez %2,8ra eta lehen sektoreari dagokionez %2,0ra murrizten diren ehunekoak.

Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren industria-sektorearen garrantzi erlatiboa gutxitzen doa progresiboki. 2006 urtean kooperatiben eta sozietate laboralen industria euskal industria-enpleguaren %13,2 baldin bazen, 2008an, aldiz, ehuneko hori 12,1era murriztu zen, eta 2010ean 11,8ra.

Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektoreak sortutako enpleguak, ordea, goranzko joera du, baina doi-doia hamarren batekoa 2008-2010 artean (%4,8tik 4,9ra). Eraikuntzaren eta nekazaritzaren pisuak Gizarte-Ekonomian, EAEkoarekin erkatuta, hamarren bateko hazkundea du halaber 2008-2010 biurtekoan.

**1.5 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN (Enpleguaren pisu erlatiboa) 2008-2010**




*Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat Urteko okupazioaren batez bestekoa*

Segidan, Gizarte-Ekonomia osatzen duten jarduera-adar ezberdinen enplegu-banaketan 2010ean antzemandako datu nagusiak zehazten dira, 2008rekiko gertatu diren aldaketa handiak kontuan hartzen direla dagokionean. Nabarmendu beharreko datu nagusiak hauek dira:

- Industriaren eremuan, Metalgintzaren eta produktu metalikoen fabrikazioaren adarraren garrantzia (%16,1) nabarmentzen da, 9.651 enplegu sortzen dituen adarra, 2008an antzemandakoa baino 1.892 gehiago, 2010ean Gizarte-Ekonomiaren garrantzitsuena bilakatzen dela, beraz. Hurrengo adarra garrantziaz den bezainbatean, Makinaria eta ekipo mekanikoen eraikuntza da, Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren %12,8rekin, baita ere goranzko joeran enpleguari dagokionez 2008rekiko (+1.615 enplegu, egungo 7.690 arte). Aipatutako bi adarrok daukaten pisua handitu egin dute enpleguan 2008ko %22,1etik 2010eko %28,9ra.
- Hirugarren sektorean Gizarte-Ekonomian enplegu-maila gehien sortu duen jarduera-adarra Merkataritza- eta konpontze-jarduerarena da. Adar horrek 9.512 enplegu biltzen ditu 2010ean, enplegu osoaren %15,9. Baina kasu horretan, 2008rekiko bilakaera negatiboa da, %17,2ko parte hartzea baitzuen urte hartan. Kopuru absolutuan, 1.275 enpleguko galera antzematen da.

- Hezkuntzari lotutako jarduera-adarrak, bestalde, %11,8ko parte hartzea du enplegu-egituran, 2008koaren antzekoa, guztira 7.058 enplegurekin 2010eko ekitaldian. Txikiagoa izan arren (-221 lanpostu), kasu horretan ere enplegu-bolumenaren galera antzematen da 2008rekiko.
- Hirugarren adarra enpleguari dagokionez zerbitzu-sektorean, Higiezin- eta alokairu-jarduerak eta beste enpresa-zerbitzuak dira, enpleguaren %9,5 biltzen baitute 2010ean. Kasu horretan joera hedakorra antzematen da, 2.510 enpleguren sortzearekin 2008rekiko, hirugarren sektoreko egoitza- eta garbitze-zerbitzuen enpresek bizitako hazkundeari lotuta. Osasunaren, albaitaritzaren eta gizarte-zerbitzuen jarduerak, aurreko adarrak bezain beste ez bada ere, orobat lortzen du enpleguaren sortze-maila emendioa 2008rekiko (urte horretako 1.081 enplegutik 2010ean antzemandako 1.736ra).

Gizarte-Ekonomian 2006tik bizi den enpleguaren murrizketa orokorraren gisako testuinguruan, ekonomiaren joera negatibo orokorraren isla, bereziki interesgarri da metatutako enpleguaren galera- eta sortze-prozesuak aztertzea jarduera-adar ezberdinen arabera. Ildo horretan, hurrengo ezaugarri nabarmenak aipatu litezke 2008-2010 biurtekoan:

- 2008-2010 epean atzeranzko adarretan suntsitutako 9.521 enplegu garbiei dagokienez, aurreko 2006-2008 epeko 3.251ekin kontraste nabarmena egiten duen kopurua, hiru jarduera-adar edo hiru adarreko jarduera-taldea nabarmentzen da galeraren erantzule nagusi gisa. Material eta ekipo elektriko, elektroniko eta optikoaren industria, galera garbien %32,4rekin atzeranzko adarretan (-3.088 enplegu 2008-2010 artean); manufaktura-adar ezberdinak (elikagaiak, ehuna, papera eta, bereziki, egurra, kortxoa eta beste manufaktura askotarikoak), aztertutako galeren %29,3rekin (-2.788 enplegu garbi); eta Merkataritza- eta konpontze-zerbitzuen eta Beste gizarte-jardueren adarrak (aztertutako galeren %21,2; -2.020 enplegu). Orokorrean, industria-adarrei dagokie galeren %73,9; zerbitzuei %25,0; eraikuntzari %0,7; eta lehen sektoreari %0,4.

- Enplegua sortzeko gauza izan diren jarduera-adarrez den bezainbatean, lehenik nabarmentzen dira hirugarren sektorean, Higiezinen eta alokairuen eta enpresa-zerbitzuen jarduerak, hain zuzen, adar hedakorretan 2008-2010 artean sortutako 6.821 enplegu garbien %36,8. Hurrengo doaz industria-jardueraren bi adar: Metalgintza eta produktu metalikoen fabrikazioa (enplegu-sortze garbiaren %27,7; guztira 1.892 lanpostu) eta Makinaria eta ekipo mekanikoen fabrikazioaren industria (%23,7 eta 1.615 enplegu garbi). Bizitasun gutxiagorekin izan arren, nabarmena da halaber enplegu-sortzea Osasunaren, albaitaritzaren eta Gizarte-Zerbitzuen jardueretan (%9,6 eta 655 enplegu garbi). Adar hedakor horietan sortutako enpleguen %46,8 zerbitzu-sektoreari badagokio ere, deigarri egiten da gehiengoa (%53,2) egiaz industriari dagokiola.

Aurkeztutako datuek erakusten dute jardueraren araberako enpleguaren bilakaera konplexuago dela arloz arloko datu handiek salatzen dutena baino. Gizarte-Ekonomiaren industriak orokorrean enplegua galtzen duen arren 2008-2010 artean, haren adarretako batzuk lanbide-hazkuntza gogorra erakusten dute. Ildo berean, zerbitzuek emaitza garbi positiboa sortu arren, adar batzuk ez diote bilakaera negatibo orokorrari ihes egin.

**1.7 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EGITURAREN BILAKAERA JARDUERA-ADARREN ARABERA**

**2008 - 2010**

**(z.a. eta %b.)**

| | GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERA-ADARRAK 2008 | | GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERA-ADARRAK 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| LEHEN SEKTOREA | 220 | 0,4 | 179 | 0,3 |
| ATERATZE-INDUSTRIAK | 23 | 0,0 | 143 | 0,2 |
| MANUFAKTURA-INDUSTRIA | 29.899 | 47,8 | 26.367 | 44,0 |
| ♦ ELIKAGAI, EDARI ETA TABAKOAREN INDUSTRIA | 661 | 1,1 | 608 | 1,0 |
| ♦ EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA | 100 | 0,2 | 47 | 0,1 |
| ♦ EGURRAREN ETA KORTXOAREN INDUSTRIA | 1.229 | 2,0 | 330 | 0,6 |
| ♦ PAPERAREN INDUSTRIA; ARGITALPENAK, ARTE GRAFIKOAK ETA EUSKARRI GRABATUEN ALDAKIAK | 812 | 1,3 | 561 | 0,9 |
| ♦ OINARRIZKO INDUSTRIA | 3.267 | 5,2 | 2.104 | 3,5 |
| ♦ METALGINTZA ETA PRODUKTU METALIKOEN FABRIKAZIOA | 7.759 | 12,4 | 9.651 | 16,1 |
| ♦ MAKINERIA ETA EKIPO MEKANIKOAK FABRIKATZEAREN INDUSTRIA | 6.075 | 9,7 | 7.690 | 12,8 |
| ♦ MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKO, ELEKTRIKO ETA OPTIKOAREN INDUSTRIA | 7.501 | 12,0 | 4.413 | 7,4 |
| ♦ HAINBAT MANUFAKTURA-INDUSTRIA MOTA | 2.495 | 4,0 | 963 | 1,6 |
| ERAIKUNTZA | 2.120 | 3,4 | 2.055 | 3,4 |
| MERKATARITZA; MOTORDUN IBILGAILUAK, MOTOZIKLETAK ETA ZIKLOMOTOREAK, ETA SALGAI PERTSONALAK ETA ETXEAN ERABILTZEKOAK KONPONTZEA | 10.787 | 17,2 | 9.512 | 15,9 |
| OSTALARITZA | 2.068 | 3,3 | 2.097 | 3,5 |
| GARRAIOA, BILTEGIRATZEA ETA KOMUNIKAZIOAK | 1.337 | 2,1 | 1.212 | 2,0 |
| FINANTZA-BITARTEKOTZA | 2.284 | 3,6 | 2.273 | 3,8 |
| ONIBAR-JARDUERAK ETA ALOKAIRU-JARDUERAK; ENPRESA-ZERBITZUAK | 3.211 | 5,1 | 5.721 | 9,5 |
| HEZKUNTZA | 7.279 | 11,6 | 7.058 | 11,8 |
| OSASUN- ETA ALBAITARITZA -JARDUERAK, GIZARTE - ZERBITZUAK | 1.081 | 1,7 | 1.736 | 2,9 |
| BESTELAKO GIZARTE -ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK; ZERBITZU PERTSONALAK | 2.307 | 3,7 | 1.562 | 2,6 |
| **GUZTIRA** | **62.615** | **100,0** | **59.915** | **100,0** |

## 1.2.- GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

### 1.2.1.- Generoa eta Adina

Enpleguak Gizarte-Ekonomian generoaren arabera gizonezkoen pisu handiagoa erakutsi izan du, hein handi batean industria-enpleguaren presentzia handiagoari lotuta dagoen errealitatea.

Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektorerako joerak berekin dakar 2010ean, ordea, emakumezkoen presentzia erlatibo handiagoa. 2008-2010 biurtekoan ehuneko hiru baino zerbait gehiago hazi ondoren, emakumezko biztanleriaren pisua 2010 urtean iritsi da Gizarte-Ekonomiaren %44,0 izatera[1], emakumeak EAEko ekonomia osoaren enpleguan duen pisuaren oso antzeko ehunekoa (%44,5).

Gizarte-Ekonomiaren emakumezko enpleguaren aurreratzea bereziki nabarmena da zerbitzu-sektorearen arloan. 2008-2010 artean, emakumezko enpleguaren proportzioaren emendioa Gizarte-Ekonomiako zerbitzu-sektorean ehuneko lauaren gaineko hazkundea da, 2010ean Kooperatiben eta Sozietate Laboralen hirugarren sektoreko enpleguaren %65,5 izatera iritsi dela (2008an %61,4). Deigarria gertatzen da, bestalde, Gizarte-Ekonomiako zerbitzu-sektorearen arloan emakumeak duen presentzia nabarmen handiagoa dela EAEko ekonomia orokorrean baino, emakumezko enpleguaren %53,9ko presentziarekin.

Gizarte-Ekonomia osatzen duten gainerako sektoreetan, ordea, gizonezko enpleguaren gailentasuna mantentzen da. Eraikuntzan gizonezko biztanleria sektoreko enpleguaren %90,1 da, EAEko eraikuntza-sektore osoan antzemandakoaren antzeko ehunekoa (%92,0). Nekazaritza-sektorean, gizonezkoak enpleguaren %86,4 dira, industria-sektorean %78,5 direla. Horrek ehuneko hiru baino zerbait gehiagoan gainditzen du gizonezko industria-enpleguaren maila EAEn (%75,4) eta ehuneko batean, aldiz, 2008ko ekitaldian atzemandakoa.

**1.8 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, GENEROAREN ARABERA 2008 (%b.)**

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 56,0 | 86,4 | 78,5 | 90,1 | 34,4 |
| Emakumezkoak | 44,0 | 13,7 | 21,5 | 9,9 | 65,6 |

**1.9 taula**

**EAEko EKONOMIAKO JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, GENEROAREN ARABERA. 2010 (%b.)**

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 55,5 | 74,4 | 75,4 | 92,0 | 46,1 |
| Emakumezkoak | 44,5 | 25,6 | 24,6 | 8,0 | 53,9 |

*Iturria: INE, Biztanleria aktiboaren inkesta, jardueraren arabera 2010 eta propio egina*

---

[1] Ehunekoak ezin dira era zorrotzean alderatu aurreko argitaraldietako emaitzekin. Sexua, adina edo kontratu-mota bezalako aldagaiei buruzko emaitzek ez dute magnitude ekonomikoek goratzeko jarraitzen duten prozedura bera jarraitzen, eta ez dugu erregistro izaerako daturik.

Enpleguaren analisiak generoaren eta forma juridikoaren arabera erakusten du emakumezko enpleguaren pisu espezifiko handiagoa Kooperatibetan (%46,3; SALetan %39,5 eta SMLetan %27,0 dela). Alde horiek lotuta daude emakumezko enpleguaren presentzia handiagoarekin.

Hala ere, argigarri da Gizarte-Ekonomian emakumezko enpleguaren presentziak izan duen emendio osoari mesede egiten diola SALen kasuan emakumezko parte hartzeak izan duen hazkunde nabarmenak. 2008an guztietan txikiena bazen, emakumezko enplegua SALetako enplegu osoaren %21,9 zela; 2010ean, aldiz, %39,5eko presentzia erdietsi du. Ez da halakorik gertatu SMLetan, emakumezko enpleguaren pisua 2008-2010 artean are murriztu egin baita (%29,0tik 27,0ra).

**1.10 taula**

**IZAERA JURIDIKOAREN ARABERAKO BANAKETA, GENEROA KONTUAN HARTUTA 2010 (%b.)**

| | GUZTIRA | Kooperatibak | SAL sozietateak | SML sozietateak |
|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 56,0 | 53,7 | 60,5 | 73,0 |
| Emakumezkoak | 44,0 | 46,3 | 39,5 | 27,0 |

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da, generoaren arabera, emakumearen parte hartzea zuzendaritza- eta kudeaketa-organoetan mugatua izaten jarraitzen duela. 2010ean, zuzendaritza- eta administrazio-kontseiluetako lanpostuen %75,6 gizonezkoek betetzen dituzte; emakumezkoek, aldiz, %24,5 besterik ez dituztela betetzen.

Sektoreka zerbait handiagoa da emakumezkoen presentzia hirugarren sektorean, %31,6ko maximo sektoriala erdiesten duela. Hala ere, ehuneko hori txikiagoa da 2008an erdietsitako %34,9a baino, eta 2010 urtean emakumezko enpleguak zerbitzu-sektore osoan duen %53,9a baino.

**1.11 taula**

**JARDUERA-SEKTOREAREN ETA GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA, GIZARTE-EKONOMIAREN ZUZENDARITZA KONTSEILU ETA ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUETAN. 2010 (%b.)**

| | GUZTIRA Kontseilua | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 75,6 | 88,6 | 82,2 | 90,6 | 68,4 |
| Emakumezkoak | 24,5 | 11,4 | 17,8 | 9,4 | 31,6 |

Adinaz den bezainbatean, aurreko argitaraldietan nabarmendutako joera aipagarri da, erdiko adin-tarteko enpleguaren pisu erlatiboaren emendioari dagokiona, 30 eta 45 urte bitartekoarena, ehuneko 1,2 hazi baita 2004-2006 artean eta 2006-2008 biurtekoan ehuneko 4,1. Adin-talde hau 2010ean enplegu osoaren %49,9 da dagoeneko, 2008 urtearekiko ehuneko hiru baino gehiagoko emendioa dela. 45 urtetik gorako adin-tarteak ehuneko 4,2n gehitzen du parte hartzea, Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren %35,9 izateraino. Pertsona gazteen taldea, 30 urtetik beherakoak, ordea, pisu erlatiboa galtzen doa 2004tik. Galera ehuneko 7,4koa da 2008-2010 artean, 2008ko %21,6ko ordezkaritzatik igaro dela 2010eko %14,2kora.

Adin-tarte ezberdinen pisua errepikatu egiten da hein handi batean sektore guztietan. Hala ere, lehen sektorean 45 urtetik gorakoen taldearen presentzia erlatibo handiagoa nabarmentzen da, %49,1eko pisuarekin nekazaritza-enpleguari dagokionez. Gainerako sektoreetan, 30 eta 45 urte bitarteko taldea enpleguaren erdia baino gehiago inguru da -%49,3 industriaren kasuan, %53,6 eraikuntza-sektorean eta %50,3 hirugarren sektorean-.

Talde gazteenari dagokionez, nabarmentzen da 30 urtetik beherako pertsonen ordezkaritza-maila apala (%12,6) eraikuntzan, azken urteetan talde horren presentziaren galera gogorra antzematen dela sektorean. Era horretan, gazteenen enplegua eraikuntzan %19,9koa bazen 2006an, %18,1ean zegoen 2008an eta %12,6an besterik ez 2010ean, 30 eta 45 urte bitarteko adin-taldeari dagokion enpleguaren pisu handiagoaren (%53,6) mesedetan. Eraikuntzan antzematen den minimora iritsi ez arren, 30 urtetik beherakoen pisua enpleguan halaber %15 baino txikiagoa da 2010ean industrian (%13,7) eta zerbitzuetan (%14,7).

**1.12 taula**

**ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, ADINAREN ARABERA (%h) 2010**

| | GUZTIRA | 30etik behera | 30-45 bitarte | 45etik gora |
|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 100 | 18,2 | 32,7 | 49,1 |
| Industria | 100 | 13,7 | 49,3 | 37,0 |
| Eraikuntza | 100 | 12,6 | 53,6 | 33,8 |
| Zerbitzuak | 100 | 14,7 | 50,3 | 35,0 |
| **GUZTIRA** | **100** | **14,2** | **49,9** | **35,9** |

Kooperatiben eta SMLen kasuan, erdiko adin-tartearen presentzia nabarmentzen da, konparaziozko presentzia handiagoarekin Kooperatiben kasuan (%51,1) 45 urtetik gorako taldearen pisuaren kaltetan (%34,2). SALen kasuan, gazteenen presentzia txikiena da gainerako forma juridikoekin konparatuta (%10,3), 45etik gorakoen pisu nagusiarekin (%47,1). Tarte gazteenak presentzia apur bat handiagoa du Kooperatibetan eta SMLetan, %15 inguruko ordezkaritza mugatuarekin, ordea. Kooperatiben kasuan, kopuru horrek kontraste egiten du adin-tarte horrek 2008ko ekitaldian zuen %22,5arekin.

**1.13 taula**

**ENPLEGUAREN BANAKETA ADINAREN ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (% h). 2010**

| | GUZTIRA | 30etik behera | 30 - 45 | 45etik gora |
|---|---|---|---|---|
| S.KOOP | 100 | 14,7 | 51,1 | 34,2 |
| SALak | 100 | 10,3 | 42,7 | 47,1 |
| SMLak | 100 | 15,0 | 49,8 | 35,3 |
| **GUZTIRA** | **100** | **14,2** | **49,9** | **35,9** |

Gizarte-Ekonomian etorkin-taldeak duen presentziaz den bezainbatean, horrek emendatu egin du bere presentzia 2008tik, %1,0tik igaro dela %1,5era 2010ean, 2006 urtean antzemandako %5,0a baino maila askoz txikiagoa, hala ere. Elbarrien langile-talde, bestalde, Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren %1,9 da, 2006an antzemandako %2,0aren antzeko maila[2].

## 1.2.2.- Kontratu bidezko harreman-motak

Kontratu bidezko harreman-motaren araberako azterketak agerian uzten du sozietateen kolektiboaren pisu nabarmena Gizarte-Ekonomiaren enpresa-establezimenduen alorrean. 2010ean kolektibo hori enplegu osoaren %66,0 da, aurreko urteetan zuen antzeko maila.

Soldatapeko kolektiboak %34,0ko pisu erlatiboa du 2010ean, %20,0 langile finkoen taldeari lotuta dago eta %14,0 behin-behineko soldatapeko taldeari. Aipagarri da behin-behineko langile-talde hori pisu erlatiboa galtzen doala progresiboki eta etengabe azken urteetan. Adibidez, 2004 urtean enpleguaren %24,3 bazen, 2006an, aldiz, haren pisua %21,6ra murriztu da, 2008an %17,3ra eta 2010ean %14,0ko minimora.

Hein handi batean, hain zuzen, Gizarte-Ekonomia osoko enplegu garbiaren murrizketa 2008-2010 biurtekoan bideratu egin da behin-behineko enpleguaren murrizketa nabarmenaren bidez, bazkideen presentzia erlatiboa orokorrean emendatu egin dela. Alderdi hori argi antzematen da Kooperatiben alorrean. Zentzu horretan, enplegu-egiturak 2010ean kooperatibako bazkideen eta soldatapeko finkoen presentzia handiagoa erakusten du, behin-behineko enpleguak doi-doia %12,2 duela. Soldatapeko langile finkoak %17,0 dira -2008an, aldiz, %13,0 zirela- eta sozietateko kolektiboa kooperatiba-enpleguaren %70,8 inguru izatera igaro da, 2006 eta 2008an antzemandakoaren ehuneko bi gainetik.

2008-2010 artean, hain zuzen, behin-behineko enpleguaren galera bereziki nabarmena da Kooperatibetan, forma juridiko horretan enplegu-mota hori %35,5 gutxitu dela, soilik SMLetan gainditzen den proportzioa (%-41,5). Behin-behineko enplegua, ostera, nabarmen emendatzen da SALetan (%+142,2).

[2] Aurretik kontuan hartu diren beste aldagai batzuen kasuan bezalaxe, aldagai honetan ere ez dago erregistro-daturik.

Antzemandako behin-behineko enpleguaren beheranzko joerarekin koherentzian, SMLetan behin-behineko kolektiboa 2010ean askoz txikiagoa da 2008an antzemandakoa baino (%13,6 eta %21,1; hurrenez hurren). Funtsean emendatu egin da, ordea, sozietateko kolektiboari dagokion proportzioa. Talde hori 2008ko %56,6ko enplegutik igaro da 2010eko %65,4ra.

SALen egoera berezia da testuinguru horretan, enplegu finkoaren murrizketa antzematen dela –behin-behinekoaren mesedetan- 2008-2010 biurtekoan erakunde horiek bizitako barne-dinamikarekin lotuta, 2008-2010 artean forma juridiko horren enpleguaren halako mantentzeak markatutako testuinguruan. Adibidez, zenbait SALen desagertzea antzematen da, enplegu finkoaren suntsitze konparazioz handiagoarekin, halako tamainako SALen behin-behineko enpleguaren hazkundearekin halaber. Horrek berekin dakar behin-behineko enpleguaren pisu erlatiboaren emendioa, 2008ko %9,7tik igaro dela SALei lotutako lanpostuen %23,8 biltzera 2010 urtean. Urte horretan, behin-behineko enpleguaren konparaziozko pisu gehien duen forma juridikoa da; 2008an SMLen ezaugarri zen errealitatea.

Nabarmendu behar da, gainera, hiru forma juridikoen artean, SALen alorrean bazkide-kolektiboaren pisu erlatiboa txikiena izan dela historikoki. 2010ean %34,9ra gutxitu da, 2004ko ekitaldiko %46,0a baino ehuneko nabarmen txikiagoa.

**1.14 taula**

**ENPLEGUAREN BILAKAERA, KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008-2010**

| | Kideak | Soldatapekoak | Finkoak | Behin-behinekoak |
|---|---|---|---|---|
| S.KOOP. | -1,7 | -10,1 | +25,1 | -35,5 |
| SAL | -42,0 | +58,8 | +32,5 | +142,2 |
| SML | +5,0 | -27,6 | -14,4 | -41,5 |

**1.15 taula**

**ENPLEGUAREN BANAKETA, KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010 (%h)**

| | GUZTIRA | Kideak | Soldatapekoak | Finkoak | Behin-behinekoak |
|---|---|---|---|---|---|
| S.KOOP. | 100 | 68,9 | 31,1 | 13,0 | 18,1 |
| SAL | 100 | 59,6 | 40,4 | 30,7 | 9,7 |
| SML | 100 | 56,6 | 43,4 | 22,4 | 21,1 |
| **GUZTIRA** | **100** | **66,8** | **33,2** | **15,8** | **17,3** |

**1.6 irudia**

**BAZKIDE-KOLEKTIBOAREN PISU ERLATIBOA (Portzentajea enplegu osoarekiko)**
**1996-2010**




Sektorearen arabera, kontratu-tipologiaren analisiak agerian jartzen du bazkide-kolektiboaren konparaziozko pisu nabarmena industria-sektorearen arloan (%78,5), 2008an antzemandako pisuari dagokionez ehuneko 5,6 hazi dela, gainera. Eraikuntzaren kasuan, bazkide-olektiboaren pisu espezifiko handia antzematen da halaber (%64,4), 2008 urteari dagokionez ehuneko lau galdu badu ere. Nekazaritza-sektorean eta zerbitzuetan, bazkideen pisua %57,9ra eta 55,6ra murrizten da, hurrenez hurren.

Bestalde, behin-behineko soldatapeko kolektiboaren pisua sektore guztietan gutxitzen da, baina bereziki nabarmen lehen sektorean (2008ko %16,9tik 2010eko %13,8ra) eta zerbitzu-sektorean (2008ko %20,1etik 2010eko %15,6ra). Sektore horretan nabarmena da, paraleloan, soldatapeko kolektibo finkoaren pisu erlatiboaren emendioa 2008ko %19,3tik 2010eko %28,8ra.

**1.16 taula**

**ENPLEGUAREN BANAKETA KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 20010 (%h)**

| | GUZTIRA | Kideak | Soldatapekoak | Finkoak | Behin-behinekoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 100 | 57,9 | 42,1 | 28,3 | 13,8 |
| Industria | 100 | 78,5 | 21,5 | 10,1 | 11,4 |
| Eraikuntza | 100 | 64,6 | 35,4 | 19,4 | 16,0 |
| Zerbitzuak | 100 | 55,6 | 44,4 | 28,8 | 15,6 |
| **GUZTIRA** | **100** | **66,0** | **34,0** | **20,0** | **14,0** |

## 1.3.- GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINA (BEG) BALIOA ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA

### 1.3.1.- BEGaren dinamika 2008-2010 biurtekoan

2010ean Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egiturak sortutako BEGa **2.823,6 milioi eurokoa** izan da. Horrek nominalki %3,6ko galera suposatzen du, 2008an sortutakoari dagokionez. Areagotu egiten da, beraz, 2006-2008 artean antzemandako atzerapena, BEGaren murrizketa nominala %0,54an zegoen epealdia.

Sektoreen arabera, 2006-2008 biurtekoan antzemandako joera ezberdinak sendotzen dira, BEGaren uzkurdurak bigarren sektorean kontraste egiten duela hirugarren sektoreko emendioarekin.

Industriaren alorreko BEGari dagokionez, 2006-2008 urteen artean izandako murrizketa areagotu egiten da. 2006-2008 artean adierazle horrek %7,2 atzera egin bazuen, 2008-2010 epean, berriz, galera %10,9 arte areagotzen da. Bilakaera horrek berretsi egiten du 2006tik aurrerako industriako BEGaren joera-aldaketa, krisiaren aurreko biurtekoetako hazkunde-tasa nabarmenak hausten direla. Izan ere, 2004-2006 artean industriaren BEGa %16,5 emendatu baitzen.

Horrek berekin dakar industriaren barne-adierazle ekonomikoen andeatzea. Horrela, 2008-2010 artean egiaztatzen da %16,4ko galera industria-sektorearen salmentetan, 2006-2008 biurtekoan antzemandako %3,0ko beheratzea nabarmen areagotzen duena. Kopuru absolutuan bilakaera hori fakturazioaren 587 milioiko galera da. Ustiapen-kontuen emaitzak ahuldu egiten dira paraleloki, 2010ean 92,7 milioi euroko mozkina egonkortzen dela, 2008ko 127,3 milioiak eta 2006ko 224,8 milioiak baino gutxiago.

Eraikuntzaren BEGa ere murriztu egiten da %8,3ko galerarekin, hots, 2006-2008 artean antzemandakoa baino ehuneko bi handiagoa (%-6,3). Industrian bezala, aldatze-erritmo hori joera-aldaketa gogorra da 2006 aurreko urteekiko. Hain zuzen, 2004-2006 artean eraikuntza-sektorearen BEGa %20,9 hazi zen.

Bigarren sektorean antzemandakoa ez bezala, zerbitzu-sektorearen BEG nominalak hazten jarraitzen du, %6,8ko emendioarekin 2008-2010 artean. Hazkunde-erritmoa, ordea, gutxitu egiten da 2006-2008 biurtekoko %10,3arekiko.

**1.17 taula**

**BEGaren ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA 2008-2010 epean (Ohiko prezioak)**

| Sektorea | Hazkunde-tasa |
|---|---|
| Industria | %+37,7 |
| Eraikuntza | %-10,9 |
| Zerbitzuak | %-8,3 |
| **GUZTIRA*** | %+6,8 |

* Lehen sektorea ere barne dago

Hirugarren sektoreko BEGaren goranzko joerak, industriaren eta eraikuntzaren sektoreetan bizitako murrizketarekin aurrez aurre, sendotu egiten du, nolanahi ere, EAEko Gizarte-Ekonomiaren produkzioaren alorrean ere antzematen den hirugarren sektorerako joera, 1994an Estatistikari ekin zitzaionetik abiatutako prozesua. Zerbitzu-sektorearen parte hartzea BEGaren arloz arloko banaketan emendatu egiten da %41,5etik 46,0ra 2008-2010 artean.

Hala ere, adierazle horretan nagusi izaten jarraitzen du industriak, sortutako BEGaren %51,4 biltzen duela. Kopuru absolutuan, industria-sektoreak urte horretan guztira sortzen ditu 1.452 milioi euro, zerbitzu-sektoreari dagozkion 1.298 milioien aurrean.

**1.18 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN (BEG) ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA. 2008 ETA 2010 URTEETAKO KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA (z.a. euro kopurua, milakoan, %b.) (Ohiko prezioak)**

| | 2008 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| Sektoreak | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 5.885 | 0,2 | 3.666 | 0,1 |
| Industria | 1.630.259 | 55,7 | 1.452.024 | 51,4 |
| Eraikuntza | 75.954 | 2,6 | 69.654 | 2,5 |
| Zerbitzuak | 1.215.505 | 41,5 | 1.298.212 | 46,0 |
| **GUZTIRA** | **2.927.603** | **100** | **2.823.557** | **100** |

Kooperatiba-industriaren eta sozietate laboralen pisu ekonomikoak nabarmena izaten jarraitzen du. 2008-2010 artean sortutako BEGaren murrizketa gorabehera, industria-egitura produktiboaren jokabidea aldekoago da euskal industria osoak erakutsitakoa baino. Horrela, industria-sektorearen parte hartzea euskal ekonomia osoaren Barne Produktu Gordin industrialean hazi egin da azken urteetan, Gizarte-Ekonomiaren industria-sektoreko BEGaren pisu erlatiboa 2008ko %9,5etik igaro dela 2010eko %10,0ra.

Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektoreko BEGaren parte hartzea EAEko zerbitzu-sektorearen BPGean askoz txikiagoa da, 2010ean %3,3n kokatu dela, 2008ko kopuruaren doi-doia ehuneko bat gehiago. Eraikuntzaren kasuan, Gizarte-Ekonomiaren parte hartzea %1,5era mugatzen da, 2008an antzemandakoa baino ehuneko bi gehiago.

Sektore ezberdinek Kooperatibei eta Sozietate Laboralei dagokien zatiaren goranzko pisua erakusten duten testuinguruan, Gizarte-Ekonomiaren BEGaren parte hartze orokorra EAEko BPG osoan emendatu egiten da %4,7tik 4,8ra 2008-2010 biurtekoan.

**1.19 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. 2008-2010ko KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA**

| | 2008 | 2010 |
|---|---|---|
| Industria | 9,5 | 10,0 |
| Eraikuntza | 1,3 | 1,5 |
| Zerbitzuak | 3,2 | 3,3 |
| **GUZTIRA** | **4,7** | **4,8** |

*Konparaziorako iturria: Kontu Ekonomikoak, 2010 Eustat*

Aurkeztutako datuek erakusten dute 2010ean Gizarte-Ekonomia osatzen duen enpresa-egituraren jokabidea ez dela EAEko produkzio-gune guztiei dagokiena bezain kontrakoa izan. Zentzu horretan, Gizarte-Ekonomiaren BEGaren %3,6ko galera 2008-2010 biurtekoan gertatzen da EAEko BPGa %4,3ko erritmoan gutxitzen den testuinguruan (%-5,1 2008-2009 artean eta %+0,9 2009-2010).

**1.20 taula**

**EAEko EKONOMIA: BARNE PRODUKTU GORDINA ETA HORREN OSAGAIAK URTEAREN ARABERA EAEn. ESKAINTZA ETA ESKAERA. OHIKO PREZIOAK. URTEEN ARTEKO ALDAKETA-TASAK (%) 2008-2010 (a)**

| | 2008/2010 |
|---|---|
| Nekazaritza | 2,7 |
| Industria | -15,8 |
| Eraikuntza | -18,9 |
| Zerbitzuak | 2,9 |
| **BEG ohiko prezioei** | **-4,3** |

*Konparaziorako iturria: Kontu Ekonomikoak, 2010Eustat*

## 1.3.2.- Produktibitate antzemangarriaren bilakaera 2008-2010 biurtekoan

Nominalki, Gizarte-Ekonomiaren establezimenduen produktibitatea emendatu egin da azken urteetan, enplegu bakoitzeko 46.756 euroko BEGetik 2008an igaro dela 47.126 euroko enplegu bakoitzeko BEGera 2010ean. Hala ere, %0,8ko hazkundea -2006-2008 artean antzemandako egonkortzea aurrekari duela, enpleguko 46.667 euroko kopuruarekin 2006an- 2004-2006 epean antzemandako adierazle horren emendiotik (%+16,0) oso urrun.

Adierazle arloz arlo aztertuz gero, hurrengo gertaerak antzematen dira:

- Industriak jarraitzen du izaten produktibitate-maila handiena duen sektorea, lotuta dagoela goranzko joerara gainera 2008-2010 epean. Hala ere, batez besteko produktibitatearen emendio arina (enpleguko 54.484 eurotik 54.773ra) ez dago lotuta BEG industrialaren sorkuntza handiagora. Biurtekoko industria-enpleguaren kopuruaren galera handiagoren (%-11,4) emaitza da, industriako BEGaren bolumenarena (%10,9) baino areago.

- Eraikuntza-sektorea azken biurtekoan atzera egiten duen sektore bakarra da produktibitateari dagokionez, 2008ko enplegu bakoitzeko 36.658 eurotik igaro dela 2010eko enplegu bakoitzeko 33.895era. Horren funtsa da 2008-2010 arteko BEGaren galera handiagoa (%-8,3) enpleguari dagokiona baino (%3,1ekoa). Eraikuntzaren sektorea lehiakortasun gutxien edo produktibitate-maila txikiena duen sektore gisa egonkortzen da.

- 2008an gertatu bezala, produktibitate-emendioa adierazleen hobetze orokorrera lotu dezakeen sektore bakarra zerbitzu-sektorea da, enpleguari dagokiona baino BEGaren emendio handiagoarekin. Horrela, produktibitate-ratioaren hobekuntza (enplegu bakoitzeko 40.046 eurotik 41.648ra 2008-2010 artean), lotuta dago BEGaren %6,8ko emendioarekin, hots, epe horretako enpleguaren %2,7ko emendioa baino gehiago.

**1.21 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO SEKTOREEN PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN BILAKAERA 2008-2010 epean. (BEG euroak/enplegatua. Ohiko prezioak).**

| | 2008 | 2010 |
|---|---|---|
| Industria | 54.484 | 54.773 |
| Eraikuntza | 35.658 | 33.895 |
| Zerbitzuak | 40.046 | 41.648 |
| **GUZTIRA** | **46.756** | **47.126** |

Adierazitako datuen harira, antzematen da Gizarte-Ekonomiaren produktibitate-ratioaren funtsezko mantentzea 2008-2010 epean oinarritzen dela hirugarren sektorean antzemandako enpleguko BEGaren emendioan, eta BEGaren galera mugatzeko industria-enpleguaren egokitzean, bi faktore horiek eraikuntza-produktibitatean antzemandako beheranzko joera orekatzen dutela.

Hala ere, sektorekako joerek ezin dute estali produktibitate-adierazleen egonkortzerako joera garbia, 2006a baino lehenagoko aurrerakadarekin talka egiten duena. Horrela, are zerbitzu-sektorearen kasuan, hirugarren sektoreko produktibitatearen hazkundea 2008-2010 artean oso txikia da, bereziki 2004-2006 biurtekoko produktibitate-mailaren %18ko hazkundearekin erkatuta[3]. Ildo berean, industria-sektoreak bizitako produktibitate-hazkunde txikiak eta eraikuntza-sektorean antzemandako murrizketak kontraste egiten dute sektore horien 2004-2006 arteko produktibitatearen %12,5eko hazkunde-tasa nominalekin.

[3] Hazkunde-tasa nabarmen hori artean lotuta zegoen finantza-sektoreko Kooperatiba handien tarteen emendioarekin –hala bildutako aurrezkien nola kreditu-eskariaren emendioarekin-, baita banatze-sektorekoenarekin ere, 2006-2010 artean sendotzen den prozesu hedakorra.

## 1.4.- GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN KONTUAK

Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen emaitza agregatua 2010eko ekitaldian 207,5 milioi eurokoa da. Kopuru horrek nominalki %41,7ko atzerakada dakar ondorioz 2008ko ekitaldiko emaitzekiko (356,1 euro milioi), 2006-2008 artean antzemandako %32,5ko galera baino handiagoa. Antzemandako bilakaerak kontraste egiten du 2006 aurretik bizitakoarekin, Gizarte-Ekonomiaren enpresetako emaitzen %43,2ko emendioarekin 2004-2006 biurtekoan, 527,2 milioi euroko maximo historikoa erdiestea ahalbidetzen zuena 2006ko emaitza agregatuan. Emaitza-maila horrekiko, 2010eko kopurua %60,6ko galera da.

Cash Flow-ari dagokionez, sortutako kaxa-fluxuak 959,9 milioi euroan kokatzen dira. Joera halaber negatiboa izan arren, Cash Flow-aren jokabidea 2008-2010 artean aldekoago da emaitzena baino. Era horretan, 2008-2010 artean kaxa-fluxuek %8,2egiten dute behera, 2006-2008 artean erakutsitako bilakaera positiboarekin (%+6,3).

**1.7 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN (MOZKINAK) ETA CASH FLOWaren BILAKAERA. 2008-2010 (z.a. euro kopurua, milakoan)**




Sektoreei dagokienez, zerbitzu-sektoreak 2006an bezala jarraitzen du biltzen Gizarte-Ekonomiak sortutako emaitzen gehiena. Hala ere, sektorearen ekarpena 2008an baino txikiagoa da, urte horretako %62,0tik gutxitu dela 2010eko %54,9ra.

Industria-enpresen ekarpena emaitzetan, ordea, %44,7 hazten da, hots, ehuneko bederatziko emendioa 2008ko %35,7arekiko. Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren emaitza osora industria-sektoreak egindako ekarpenak ez du berreskuratzen 2006ko maila, urte horretan Gizarte-Ekonomiaren mozkin osoaren erdia baino gehiago baitzen (%52,1).

Cash Flow-ari dagokionez, arloz arloko banaketak ia-ia %100an du emaitzen banaketaren antza. Zerbitzu-sektoreak Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egiturako kaxa-fluxuen %55,1 biltzen du, industriak, aldiz, %44,3 jasotzen duela.

Bestalde, lehen sektoreari eta eraikuntzari dagokienez, aipagarri da haien ekarpena bigarren mailakoa dela. Parte hartzea aldiro %0,5ekoa edo txikiagoa da.

**1.22 taula**

**MOZKINEN ETA CASH FLOWaren BANAKETA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA 2010 (%b.)**

| | Emaitzak | Cash -Flow |
|---|---|---|
| Lehen sektorea | 0,0 | 0,2 |
| Industria | 44,7 | 44,3 |
| Eraikuntza | 0,5 | 0,5 |
| Zerbitzuak | 54,9 | 55,1 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** |

Nabarmendu beharreko datu esanguratsua da 2008-2010 artean lortutako emaitzen galera osoak duen azalpen nagusia dela, sarrera- edo fakturazio-mailei dagokienez, %12,2ko atzerakada Gizarte-Ekonomiaren enpresetako emaitza garbien kopuruan.

Gastuen kapitulua kontuan hartuz gero, salmenten bilakaera negatiboak kontraste egiten du langileen gastu-sailaren goranzko joerarekin, 2008-2010 artean %2,1eko emendioa duela. Nabarmendu beharreko beste alderdi bat, amortizazioen eta hornidura-zuzkiduren arteko gastuaren %9,1eko emendioa da, 2008-2010 arteko emaitzekin erkatuta, Cash-Flow-aren ekitaldiko bilakaera positiboagoa azaltzen duen egoera.

Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren enpresa-establezimenduek egindako erosketa-bolumenaren murrizketa nabarmenak arindu egiten du salamenta-galeraren eta langile, amortizazio eta hornidura-zuzkiduren sailen emendioaren eragina. Erosketa-maila hori %17,4 gutxitzen da 2008-2010 biurtekoan. Antzeko ildotik, %5,0 murrizten da kanpoko zerbitzuen gastua epea.

**1.23 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN SARREREN ETA GASTUEN KONTUAK 2008-2010 (%b. eta bilakaera)**

| | | z.a. | %b. | 2006-2008ko bilakaera |
|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | |
| 70 | Salmenta garbiak | 8.563.275.439 | 88,2 | -12,2 |
| 71 | Obren eta produktu bukatuen eta fabrikazio prozesuan dauden produktuen izakinen aldaketa | 77.675.205 | 0,8 | 75,2 |
| 73 | Enpresarentzat egindako lanak | 29.880.361 | 0,3 | -35,3 |
| 74 | Ustiapenari ohiko dirulaguntzak | 310.002.378 | 3,2 | 9,9 |
| 75 | Bestelako Diru-sarrera osagarriak | 382.861.059 | 3,9 | -3,5 |
| 76 | Finantza-sarrerak | 145.628.853 | 1,5 | -34,8 |
| 77 | Ibilgetutik eratorritako etekinak eta ez ohiko sarrerak | 144.906.055 | 1,5 | -30,1 |
| 79 | Gehiegizko hornidurak eta aplikazioak | 58.755.841 | 0,6 | 32,0 |
| | **SARRERAK GUZTIRA** | **9.712.985.191** | **100** | -11,7 |
| **GASTUAK** | | | | |
| 60 | Erosketa garbiak | 5.048.445.834 | 53,1 | -17,4 |
| 61 | Salgaien eta lehen gaien izakinen aldaketa | 18.989.996 | 0,2 | 211,9 |
| 62 | Kanpoko zerbitzuak | 1.162.699.574 | 12,2 | -5,0 |
| 63 | Jarduerari lotutako zergak | 15.752.040 | 0,2 | 183,9 |
| 64 | Langileen gastuak | 2.103.010.683 | 22,1 | 2,1 |
| 65 | Bestelako kudeaketa-gastuak | 149.799.451 | 1,6 | -22,0 |
| 66 | Finantza-gastuak | 226.777.835 | 2,4 | -39,2 |
| 67 | Ibilgetutik eratorritako galerak eta ez ohiko gastuak | 27.615.812 | 0,3 | -17,9 |
| 68 | Ekitaldiko amortizazioak | 361.615.327 | 3,8 | 12,0 |
| 69 | Hornidura-zuzkidurak | 390.708.173 | 4,1 | 6,5 |
| | **GASTUAK GUZTIRA** | **9.505.414.725** | **100** | -10,7 |

Bazkideek Kooperatiben barruan egiten dituzten ekarpenen interes-kontuei dagokienez, izaera horretako finantza-gastuek 2010ean 81,0 milioi euroko zenbatekoa erdiesten dute. Kopuru hori Gizarte-Ekonomiaren finantza-gastu osoen %35,7 da. 2008 urtearekin erkatuta, hala finantza-gastu osoak nola zuzkiduren interes-saila atzeraka agertzen dira (%39,2an eta %26,4an; hurrenez hurren).

Sektoreen arabera, zerbitzu-sektorearen ekarpenen interesei dagokien pisua nabarmentzen da, kapitulu horretan zerbitzu-sektoreak hirugarren sektoreko finantza-gastuen %47,4 inguru direla. Industrian sail hori egindako finantza-gastuen %24,6 da, eraikuntzan proportzio hori %9,3 arte beheratzen dela.

**1.24 taula**

**BAZKIDEEK KOOPERATIBETAN EGINDAKO EKARPENEN INTERESAK ETA FINANTZA-GASTUEN GAINEKO PISU ERLATIBOA (66 KONTUA) (z.a. euroan eta %h). 2010**

| Jarduera-sektorea | Finantza-gastuak guztira | | Ekarpenen interesak | |
|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %h | z.a. | %h |
| Lehen sektorea | 306.487 | 100 | 130.330 | 42,5 |
| Industria | 112.054.985 | 100 | 27.535.978 | 24,6 |
| Eraikuntza | 2.256.989 | 100 | 208.998 | 9,3 |
| Zerbitzuak | 112.159.374 | 100 | 53.172.595 | 47,4 |
| **GUZTIRA** | **226.777.835** | **100** | **81.047.901** | **35,7** |

# 2.- GIZARTE-EKONOMIAREN PROFIL JURIDIKOA

Txostenaren bigarren kapituluan 2008-2010 biurtekoko Gizarte-Ekonomiaren aldagai ekonomiko nagusiak aztertzen dira, Gizarte-Ekonomia historikoa osatzen duten hiru forma juridiko ezberdinetarako: Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak (SAL) eta Sozietate Mugatu Laboralak (SML).

## 2.1.- ESTABLEZIMENDUAK ETA ENPLEGUAK

Oro har, establezimenduen eta enpleguen banaketak, Gizarte-Ekonomia osatzen duten forma juridiko ezberdinen arabera, 2010ean egoera egonkorra erakusten du aurreko urteetan antzemandakoarekiko. Hala ere, aipagarri dira zenbait aldaketa nabarmen, ikusiko dugun bezala.

Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egitura 2010ean osatzen duten establezimenduen zenbatekoak bizitako aurrerakada txikiak (%+0,4) estali egiten du dinamika oso berezia forma juridikoaren arabera. Alde batetik, kooperatiba-establezimenduen kopuruaren funtsezko emendioa hautematen da, 2008 urtean antzemandako 1.895 establezimenduetatik igaro dela 2010eko ekitaldiko 2.029 arte. Kooperatiba-egituraren %7,1eko emendio hori enpresa txikien eta ertainen enpresen eratzean oinarritzen da, batzutan batez besteko tamaina txikiko mikroenpresak, epean Kooperatiba handietan antzemandako enplegu-galera orekatzeko gauza ez direnak.

Bestalde, ordea, Sozietate Laboralei lotutako establezimendu-kopuruaren funtsezko galera antzematen da, Estatistikaren aurreko argitaraldietan egiaztatutako produkzio-guneen gutxitze-prozesua sakontzen duena. Sozietate Laboralaren formako establezimendu-bolumena %11,3 murrizten da 2010ean 968 establezimendutan kokatu arte.

Galera erlatibo handiena SALei dagokie (%-12,4; eta SMLetan, aldiz, %-10,7), kopuru absolutuan SMLen establezimenduen galera handiagoa den arren (-78 establezimendu). 2010ean, SALek 319 establezimendu biltzen dituzte, SMLei beste 649 enpresa-establezimendu dagozkiela.

Bilakaera horren ondorioa Sozietate Laboralen pisu espezifikoaren murrizketa da Gizarte-Ekonomia osoan. SALen kasuan, haien pisu erlatiboa establezimendu osoei dagokienez 2008ko %12,2tik igaro da 2010eko %10,7ra; SMLena, aldiz, %24,3tik 21,6ra murriztu dela esandako biurtekoan. 2010ean sozietate kooperatiboak Gizarte-Ekonomia osatzen duten establezimenduen %67,7 biltzera iristen dira, hots, pisu erlatiboaren emendio nabarmen eta etengabea Kooperatibak 2006an ziren %59,9arekiko. Sozietate Laboralen establezimendu-kopuruaren galera-joera argi ikusten zen gertakaria zen 2006-2008 artean zegoeoneko.

**2.1 taula**
**2008-2010ean GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEK IZANDAKO BILAKAERA , FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2008-2010 (z.a., %b.)**

| | 2008 | | 2010 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | %∆10/08 (1) |
| Kooperatibak | 1.895 | 63,5 | 2.029 | 67,7 | +7,1 |
| SL motakoak | 1.091 | 36,5 | 968 | 32,3 | -11,3 |
| SAL | 364 | 12,2 | 319 | 10,7 | -12,4 |
| SML | 727 | 24,3 | 649 | 21,6 | -10,7 |
| **GUZTIRA** | **2.986** | **100,0** | **2.997** | **100,0** | **+0,4** |

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundea, ehunekotan adierazita

Establezimendu-kopuruei dagokienean antzemandakoa ez bezala, enpleguaz den bezainbatean, lanpostu-galera egiaztatu egiten da hala Kooperatiben arloan nola Sozietate Laboralenean, antzeko atzerakadarekin bi kasuetan 2008-2010 biurtekoan (%-4,3 eta %-4,4; hurrenez hurren).

Kopuru absolutuan, ordea, enplegu-suntsiketa handiena mundu kooperatiboari dagokio, 2.163 lanposturen galera garbiarekin 2008-2010 biurtekoan, Sozietate Laboralei egotz dakiekeen 537en aurrean. Egoera hori bereziki negatiboa da kooperatiba-sektoreak aurreko biurtekoetan bizitako bilakaera positiboa ikusita. 2008 arte, Kooperatibak ziren forma juridiko bakarra enplegua sortzeko gauza zirenak, artean positiboa zen %0,4ko bilakaerarekin 2006-2008 biurtekoan. Lanpostu berrien sortze-erritmoak %4,1 erdietsi zuen 2004-2006 arteko epean, 2002-2004 biurtekoan %0,4 hazi ondoren. Historikoki, 2010eko 48.196 enplegu kooperatiboak kokatzen dira 2004ko eta 2002ko kopuruetatik gertu (47.975 eta 47.731 enplegu, hurrenez hurren).

Sozietate Laboralei dagokionez, enplegu-galera lotuta dago batez ere SMLek bizitako enplegu-galerari, 2008 urtearekiko %9,2ko atzerakada den galera (441 enplegu kopuru absolutuan). Bilakaera horrek egungo okupazio-kopurua (4.365 enplegu 2010ean) aldendu egiten du 2006an erabilgarri zeuden 5.075 enpleguekiko (4.806 enplegu 2008an).

SALek enplegu osoa 2008-2010 artean berriz murrizten duten arren, galerak ez du %1,3a gainditzen, Kooperatibek eta SMLek bizitakoa baino askoz txikiagoa dela. Horrek aldeko kontrastea egiten du Estatistikaren aurreko argitaraldietan islatutako jokabidearekin, SAL zirenean enpleguari dagokionez bilakaera negatiboena bizitzen zuten forma juridikoak. Hain zuzen, 2006-2008 artean %9,5eko galera erakusten zuen enplegu-kopuruan.

Enplegu-galera txikiagoak SALei utzi egiten die pisu erlatiboa arinki emendatzea Gizarte-Ekonomiaren enpleguan, 2008ko %11,9tik igarotzen dela 2010eko %12,3ra. SMLen pisua, aldiz, murriztu egiten da %7,7tik 7,3ra aztertutako epean.

**2.2 taula**

**2008-2010ean GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEK IZANDAKO BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. (z.a.,%b.)**

| | 2008 | | 2020 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | %▲10/08 (1) |
| Kooperatibak | 50.359 | 80,4 | 48.196 | 80,5 | -4,3 |
| SL | 12.257 | 19,6 | 11.720 | 19,6 | -4,4 |
| SAL | 7.451 | 11,9 | 7.355 | 12,3 | -1,3 |
| SML | 4.806 | 7,7 | 4.365 | 7,3 | -9,2 |
| **GUZTIRA** | **62.615** | **100,0** | **59.915** | **100,0** | **-4,3** |

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundea, ehunekotan adierazita.

Hala ere, kooperatiba-sektoreak jarraitzen du biltzen Gizarte-Ekonomiaren enplegu-ekarpen osoaren gehiena. Horrela, Kooperatibek biltzen dute 2010ean sortutako enpleguaren %80,5, 2008ko %80,4a baino hamarren bat gehiago. SMLek, SALek halako bi baino establezimendu gehiago izan arren (%21, 6 eta %10,7 hurrenez hurren), 2010 urteko enpleguaren %7,3 baino ez dira, gainerako %12,3a SALei dagokiela.

**2.1 irudia**

**ENPLEGUEN ETA ESTABLEZIMENDUEN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**




2008-2010 artean gertatzen den enplegu-galeraren testuinguruan, establezimendu kooperatiboen kopuruaren emendioak darama guneen batez besteko tamainaren beheranzko egokitzera: kooperatiba-establezimendu bakoitzeko 26,6 enplegutik 2008an, 23,8 enplegura 2010ean. Kooperatiba-establezimenduen batez besteko tamainaren murrizketa kokatzen da 2002tik antzemandako joeran, sektorearen hirugarren sektorerako prozesuari lotuta hein handi batean.

Sozietate Laboralen kasuan, ordea, establezimenduen batez besteko tamaina emendatu egiten da arinki, establezimendu bakoitzeko 11,2 enplegutik 2008an igarotzen dela 12,1 enplegura 2010ean. Hazkunde hori oinarritzen da 2008-2010 arteko establezimendu-kopuruaren galera handiagoan (%-11,3), 2010ean zabalik dauden guneetako enplegu-bolumenarena baino (%-4,4).

Hori aldaketa nabarmena da, izan ere, Sozietate Laboralen batez besteko tamainak joera historikoki goranzkoa erakutsi arren, hura 2006 urtera arte oinarritzen zen enplegu-kopuruaren hazkunde erlatibo handiagoan establezimenduenean baino. 2006tik aurrera oinarritzen da, ordea, produkzio-guneen zenbatekoaren galera erlatibo handiagoan.

Sozietate Laboralen bilakaera orokorra lotuta dago batez ere SALei. Kasu horretan, enpleguak/establezimendu adierazlea emendatu egiten da etengabe 2006tik, establezimendu bakoitzeko 18,9 enplegutik urte horretan igarotzen dela 20,5era 2008an eta 23,1era 2010ean. SMLen kasuan, ordea, establezimenduen batez besteko tamainak ia-ia egonkor dirau 2008-2010 artean (6,6 enplegu/establezimendu 2008an, eta 2010ean 6,7).

**2.3 taula**
**ESTABLEZIMENDUEN BATEZ BESTEKO TAMAINA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (ENPLEGATUAK/ESTABLEZIMENDUAK) 2008-2010**

| | 2008 | 2010 |
|---|---|---|
| S. Kooperatibak | 27,0 | 26,6 |
| SL | 10,7 | 11,2 |
| SAL | 18,9 | 20,5 |
| SML | 6,3 | 6,6 |

Kooperatiba-enpleguaren sektore-egituraren azterketak erakusten du 2006-2008 biurtekoan zegoeneko nabari zen hirugarren sektorerako prozesuaren sendotzea. Hain zuzen, 2008a zen zerbitzu-sektoreak enplegu-bolumenaren gehiena (%51,1) biltzen zuen lehen urtea, historikoki kooperatiba-enpleguaren zati nagusia izandako industria-sektorea gaindituta. 2010ean zerbitzu-sektoreak aurrera egiten du, beraz, kooperatiba-enpleguaren %53,7 bildu arte.

Zerbitzu-kooperatiben enplegu-kopurua emendatu egiten den arren 2008ko 25.729tik 2010eko 25.903ra, hirugarren sektoreko aurrerakada erlatiboaren zati garrantzitsua lotuta dago industria-sektore kooperatiboaren enplegu-galerara. Lanpostu-kopurua kasu horretan murriztu egiten da 2008ko 23.329 enplegutik 20.897ra, 2.432 enpleguren galerarekin epealdian. Industria-sektorearen pisua kooperatiba-enpleguan beheratu egiten da 2008ko %46,3tik 2010eko %43,4ra, hirugarren sektorearen 10 puntu baino gehiago azpitik.

Bestalde, eraikuntzak kooperatiba-enpleguaren %2,6ri lana ematen dio, 2008ko %2,2aren apur bat gainetik. Lanpostu-bolumena, hain zuzen, emendatu egiten da eraikuntzan 1.111tik 1.242ra 2008-2010 artean.

Nekazaritzak kooperatiba-enpleguaren gainerako %0,3a biltzen du, beheranzko joeran 2008ko %0,4arekiko, sektore horrek bigarren mailako garapen-arloa izaten jarraitzen duela kooperatiba-mundurako.

**2.4 taula**
**KOOPERATIBEN ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO EGITURA. 2008 eta 2010 URTEETAKO ERREFERENTZIA.**
**(z.a., %b.)**

| | 2008 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 190 | 0,4 | 154 | 0,3 |
| Industria | 23.329 | 46,3 | 20.897 | 43,4 |
| Eraikuntza | 1.111 | 2,2 | 1.242 | 2,6 |
| Zerbitzuak | 25.729 | 51,1 | 25.903 | 53,7 |
| **GUZTIRA** | **50.359** | **100,0** | **48.196** | **100,0** |

Kooperatibek baino hein txikiagoan izan arren, SALek ere aurrera egiten dute enpleguaren hirugarren sektorerako prozesuan. 2010ean zerbitzu-sektoreak lehen aldiz industria gainditzen du sektore-enpleguaren pisu erlatiboari dagokionez, SALen enplegu guztiaren erdiaren inguruko (%48,4) enplegu-metatzea erdiesten duela. Hori gertatzen da 2008-2010 arteko SALen hirugarren sektoreko enpleguaren emendio nabarmenari esker (+845 enplegu, %31,2ko emendioarekin 2008ko ekitaldiarekiko), berekin dakarrena ehuneko hamabiko emendioa enpleguan. Industria-sektorea, ordea, 2004ko SALen enpleguen %71,3 biltzetik igarotzen da 2010ekoen erdia baino gutxiago izatera (%47,4). 2008-2010 artean, industriak 898 enplegu galtzen ditu, 2008an zeudenen %20,5.

2008-2010 artean %10,1era murrizten den arren, SALen eraikuntza-sektorean 2004tik antzemandako enplegu-galera gogorra luzatu egiten da, bestalde. Eraikuntza-enplegua SALen enplegu osoaren %4,2 da 2010ean.

SMLek osatzen dute industria-enplegua nagusi den forma juridiko bakarra, nahiz eta enplegu-galera ia-ia orokorrarekin forma juridiko horretako enpresetan. Kopuru absolutuan, industriak 2.126 enplegu biltzen ditu guztira, enplegua 2008-2010 biurtekoan %3,7 beheratu ondoren (-82 enplegu). Hala ere, epe horretan industria-enpleguaren pisu erlatiboa emendatu egiten da %45,9tik 48,7ra forma juridiko horretan. Zerbitzu-sektoreko enpleguaren pisu erlatiboa murriztu egiten da %39,2ra, hirugarren sektoreko enpleguaren %10,5eko murrizketarekin 2010ean antzemandako 1.711 enpleguak arte (-201 enplegu).

SMLetan nabarmentzen da halaber eraikuntza-sektoreko enpleguaren pisua, forma juridiko ezberdinetako handiena, %11,5rekin 2010ean. Hala ere, enplegu hori %24,4 gutxitzen da 2008-2010 artean, 162 enpleguren galera garbiarekin.

Oro har, Sozietate Laboralek jarraitzen dute islatzen 2010eko industria-enpleguaren pisu handiagoa (%47,9; zerbitzuen %44,9ren, eraikuntzaren %6,9ren eta lehen sektoreko %0,2ren aurrean). Hala ere, Sozietate Laboralek oro har 980 industria-enplegu galtzen dituzte 2008-2010 artean, hirugarren sektorean 664 enplegu irabazten dituztela guztira.

**2.5 taula**
**SOZIETATE LABORALEN EPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO EGITURA. 2008 eta 2010 URTEETAKO ERREFERENTZIA. (z.a., %b.)**

| | SAL | | | | SML | | | | Sozietate laboralak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | | 2010 | | 2008 | | 2010 | | 2008 | | 2010 | |
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 8 | 0,1 | 0 | 0,0 | 22 | 0,5 | 8 | 0,1 | 0 | 0,0 | 22 | 0,5 |
| Industria | 4.385 | 58,9 | 3.487 | 47,4 | 2.208 | 45,9 | 4.385 | 58,9 | 3.487 | 47,4 | 2.208 | 45,9 |
| Eraikuntza | 346 | 4,6 | 311 | 4,2 | 664 | 13,8 | 346 | 4,6 | 311 | 4,2 | 664 | 13,8 |
| Zerbitzuak | 2.712 | 36,4 | 3.557 | 48,4 | 1.912 | 39,8 | 2.712 | 36,4 | 3.557 | 48,4 | 1.912 | 39,8 |
| **GUZTIRA** | **7.451** | **100** | **7.355** | **100** | **4.806** | **100** | **7.451** | **100** | **7.355** | **100** | **4.806** | **100** |

## 2.2.- BEGa ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA

2008-2010 arteko BEG kooperatiboaren %1,2ko atzerakada gorabehera, Gizarte-Ekonomian sortutako BEGaren %87,7 Kooperatibei dagokie 2010ean. Ehuneko hori bi puntu baino zerbait gehiagoko emendioa da 2008ko ekitaldiko %85,6arekiko.

SALek biltzen dute beste %8,3 bat eta SMLei, aldiz, doi-doia %4,0 dagokie. Sozietate Laboralen pisu espezifikoak behera jotzen du progresiboki, SALen BEGa 2006an zen %10etik murriztu egiten dela eta SMLei dagokionez, aldiz, %4,4tik.

**2.6 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN (BEG) BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA 2008 eta 2010.**
**(z.a. euro kopurua milakoan, %b.) (Ohiko prezioak)**

| | 2008 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Kooperatibak | 2.506.028 | 85,6 | 2.506.028 | 85,6 |
| SL | 421.575 | 14,4 | 421.575 | 14,4 |
| SAL | 281.050 | 9,6 | 281.050 | 9,6 |
| SML | 140.525 | 4,8 | 140.525 | 4,8 |
| **GUZTIRA** | **2.927.603** | **100,0** | **2.927.603** | **100,0** |

**2.2 irudia**
**BEG BALIOAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010 (%b.)**



BEGaren sektore-banaketaren azterketak erakusten du industriako BEGaren nagusitasun erlatiboa forma juridiko guztietan, %51,6ko maximoarekin Kooperatiben kasuan, baina alde handirik gabe Sozietate Laboralekiko (%50,4 SALetan eta %48,8).

Hirugarren sektoreko BEGak halaber erdiesten du bere pisu erlatibo handiena, ordea, Kooperatiben barruan (%46,5; SALen %44,7aren apur bat gainetik eta SMLen %37,5rekiko askoz ere urrunago). Kooperatiba-enpresetan zerbitzuen BEGaren pisu erlatiboaren aurrerakada halaber antzematen den arren (%42,7rekin 2008an), hirugarren sektoreko BEGaren pisuaren emendio handiena SALei dagokie (%31,9tik abiatzen zena 2008an).

Eraikuntza-sektoreari lotutako BEGaren pisua nabarmenago da Sozietate Laboralen kasuan, kontraste egiten duela sektorearen garrantzi erlatibo urriarekin Kooperatiben BEGean (doi-doia %1,7). Eragin erlatibo handiena SMLei dagokie %13,5ekin, hala ere, ehuneko 3,5eko galera dena 2008 urtearekiko. SALetan, eraikuntzak BEGaren %4,9 ekartzen du, 2008an erdiesten zuen antzeko ehunekoa.

Kopuru absolutuan, BEGaren zenbatekoaren bilakaerak 2008-2010 artean islatzen ditu galera orokorrak lehen sektorean, industrian eta, oro har, SMLen sektore ezberdinetan. BEG industrialaren galera erabakigarriena da hala ere, alor atzerakorretan antzemandako beheratzearen ia-ia %90 biltzen duela. Aldeko zentzuan, ordea, zerbitzu-sektorearen BEGa emendatu egiten da Kooperatibetan eta SALetan, hala nola eraikuntzaren BEGa kooperatiba-sektorean. Kasu horretan, esparru hedakorrei lotutako emendioaren %80 inguru zerbitzu-sektore kooperatiboari dagokio.

**2.7 taula**

**BEG BALIOAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010**

**(z.a., %b.)**

| Jarduera-sektorea | GUZTIRA z.a. | GUZTIRA %b. | S.KOOP. z.a. | S.KOOP. %b. | SAL z.a. | SAL %b. | SML z.a. | SML %b. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 3.666.468 | 0,1 | 3.458.408 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 208.060 | 0,2 |
| Industria | 1.452.024.286 | 51,4 | 1.278.862.411 | 51,6 | 118.711.655 | 50,4 | 54.450.220 | 48,8 |
| Eraikuntza | 69.653.978 | 2,5 | 43.140.014 | 1,7 | 11.481.301 | 4,9 | 15.032.663 | 13,5 |
| Zerbitzuak | 1.298.211.928 | 46,0 | 1.150.977.928 | 46,5 | 105.360.838 | 44,7 | 41.873.162 | 37,5 |
| **GUZTIRA** | **2.823.556.661** | **100,0** | **2.476.438.762** | **100,0** | **235.553.794** | **100,0** | **111.564.105** | **100,0** |

Kooperatiben pisu erlatibo handiagoak BEGean, enpleguan diren %80,5arekin lotuta, aditzera ematen du Kooperatiben produktibitate antzemangarri handiagoa gainerako forma juridikoena baino. Kontrako zentzuan, Sozietate Laboralen produktibitate txikiagoak berekin dakar enpleguan duen parte hartzea baino ekarpen garbiki txikiagoa Euskal Ekonomiaren BEG osoari (SALen kasuan, pisu erlatiboa hazi egiten da EAEko enplegu osoaren %12,3ra, BEGaren %8,3aren aurrez aurre; SMLen kasuan, parte hartzea enpleguan %7,3koa da, BEGari egindako ekarpena, ordea, doi-doia %4,0koa dela).

Bestalde, hirugarren eta industria-sektorearen produktibitate-maila antzemangarriak aztertuta forma juridiko ezberdinen esparruan, nabarmengarri dira hurrengo errealitateak:

- Produktibitate-maila antzemangarri handiena Kooperatiba industrialei dagokie, 2008an baino maila handiagoa duela 2010ean, enplegu bakoitzeko 61.198 euroko ratioa erdietsi arte.

- Industriako eta zerbitzuetako SALak erdibidean kokatzen dira, 34.044 euroko eta 29.621ko ratioekin, hurrenez hurren. Alor horretako produktibitatearen beheranzko joerak kontraste egiten du hirugarren sektoreko Kooperatibei dagokienaren goranzko soslaiarekin, erdibideko produkzio-soslaia ezaugarri dutela halaber. Horiek enplegu bakoitzeko 44.434 euroko produktibitate-ratio antzemangarria erdiesten dute 2010ean.

- Beste muturrean kokatzen dira SMLak, produktibitate antzemangarri askoz txikiagoarekin, are 2008an antzemandakoa baino txikiagoa. Haien ratioek ez dituzte 26.000 euroak erdiesten enplegu bakoitzeko: 25.612 industriaren kasuan, eta 24.473 hirugarren sektorean.

**2.8 taula**

**ARLOZ ARLOKO PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA KOOPERATIBA, SAL ETA SML SOZIETATEETAN. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA 2008 eta 2010 (BEG euroak/enplegatua)**

| | S.Koop. | | SAL | | SML | | SLen agregatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2010 | 2008 | 2010 | 2008 | 2010 | 2008 | 2010 |
| Industria | 59.647 | 61.198 | 40.701 | 34.044 | 27.365 | 25.612 | 36.234 | 30.850 |
| Zerbitzuak | 41.659 | 44.434 | 33.227 | 29.621 | 28.006 | 24.473 | 31.068 | 27.949 |
| **GUZTIRA** | **49.795** | **51.383** | **37.896** | **32.026** | **28.666** | **25.559** | **34.277** | **29.618** |

# 3.- GIZARTE-EKONOMIAREN LURRALDE-PROFILA

Txostenaren hirugarren atalak aztertzen ditu EAEko Lurralde Historiko bakoitzean dauden adierazleak: enplegua, establezimenduak eta sortutako BEGa 2010 urtean; kontuan hartuta 2008-2010 arteko bilakaera halaber.

## 3.1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE-PROFILA

Aurreko argitaraldietan antzemandakoaren ildotik, Gizarte-Ekonomiaren establezimendu gehien biltzen dituen lurraldea Bizkaia da, 1.379 gune, guztiaren %46. Hori ehuneko 0,7ko emendioa da 2008 urtearekiko, gune-kopuruaren %1,9ko emendioari lotuta.

Gipuzkoak, bestalde, 1.154 establezimendu ditu, kasu horretan %1,0ko galera islatzen duela 2008ko gune-bolumenarekiko. Horrek jaitsi arazi egiten du %39,0tik 38,5era lurraldearen ekarpena Gizarte-Ekonomiaren produkzio-guneen kopuruari dagokionez 2008-2010 artean.

Arabak biurteko horretan eutsi egiten dio funtsean gune-bolumenari eta betekizun erlatiboari establezimendu-banaketan, 464 lantokirekin, EAEn dauden %15,5.

**3.1 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2008-2010**




EAEko enplegu osoaren %48,7ko pisu erlatiboarekin, Gipuzkoak jarraitzen du izaten, ordea, Euskadiko Gizarte-Ekonomiaren lurralde-eremu enplegu-sortzaile nagusia. Bizkaiak enpleguaren beste %40,3 biltzen du, Arabako Kooperatibek eta Sozietate Laboralek enpleguaren gainerako %11,0a ekartzen dutela.

2008koaren antzekoa izan arren, 2010eko lurralde-enpleguaren banaketak agerian uzten du Arabaren ordezkaritzaren halako emendioa (ehuneko +0,7) eta, hein handiagoan, Bizkaiarena (ehuneko +1,3). Gipuzkoar enpleguaren parte hartzea murriztu egiten da, ordea, 2008an ordezten zuen %50,7tik (ehuneko -2 murrizten da).

**3.2 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2008-2010**




Kopuru absolutuan, Gizarte-Ekonomiari lotutako enplegua Gipuzkoan hazi egiten da guztira 29.130 enplegu arte, hots, %8,1eko galera nabarmena 2008ko 31.694 enpleguekiko. Bizkaiak beste 24.186 enplegu biltzen ditu, kasu horretan 2008ko enplegua hein handian mantentzen duela (24.454 lanpostu), %1,1era mugatutako galera. Gizarte-Ekonomiaren enpleguan hazi egiten den Lurralde bakarra Araba da 2008-2010 artean, %2n emendatzea lortu duela lanpostu-bolumena (6.467 enplegu 2008an eta 2010ean 6.599).

**3.1 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN LURRALDE-BANAKETA.**
**(z.a., %b.) 2010**

| | ENPLEGUAK | | ESTABLEZIMENDUAK | |
|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Araba | 6.599 | 11,0 | 464 | 15,5 |
| Bizkaia | 24.186 | 40,4 | 1.379 | 46,0 |
| Gipuzkoa | 29.130 | 48,6 | 1.154 | 38,5 |
| **GUZTIRA** | **59.915** | **100,0** | **2.997** | **100,0** |

Gipuzkoaren 2008-2010 arteko %8,1eko lanpostu-murrizketa gorabehera, Gizarte-Ekonomiari lotutako enpleguaren pisuak Gipuzkoako biztanleria landun osoan (2010ean %9,4; beheranzko joeran 2008ko %9,7arekiko) oso nabarmena izaten jarraitzen du, beste Lurralde Historikoetan Gizarte-Ekonomiak ezaugarri duena lasai gainditzen duela.

Hain zuzen, Bizkaiko eta Arabako lurraldeetan, Gizarte-Ekonomiaren pisua lurralde-enplegu osoan mugatuagoa da, %5en azpitik kokatzen dela. Bizkaia mantendu egiten da %4,9 inguruko parte hartzearekin eta Arabak, 2008arekiko parte hartzea hiru hamarren emendatu arren, ez du %4,6a gainditzen, hots, hiru lurralde historikoetako parte hartzearen mailarik apalena.

**3.3 irudia**

**GIZARTE-EKONOMIAK EAEko EKONOMIAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA (Enpleguaren pisu erlatiboa Lurralde Historikoaren arabera). 2008-2010**




*Konparaziorako Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2010*

Lurraldearen eta forma juridikoaren araberako enpleguaren analisiak erakusten du Lurralde bakoitzaren soslai berezia, ondorioz enpresa-ezaugarri bereziak erakusten dituena lurralde bakoitzean.

Lehendabizi nabarmentzen da geografikoki Gipuzkoan kokatutako Kooperatibei dagokien enplegu-bolumen handia, guztira 24.946 lanposturekin, hots, EAEko kooperatiba-enpleguaren %51,8. Hala ere, mota horretako enplegua 2008rekiko galera erlatibo handiena bizi duenetakoa da (%-7,9).

Bizkaiko kooperatiba-enplegua guztira 17.904 enplegukoa da 2010ean, EAEko kooperatiba-enpleguaren %37,1, 2008ko %35,9arekiko goranzko joeran. Gipuzkoan antzemandako galera gogorrarekin kontrastean, Bizkaiko kooperatiba-sektorearen lanpostuek hein handiagoan mantentzera jotzen dute, %0,9ko galerarekin 2008rekiko.

Arabar kooperatiba-sozietateek biltzen dute, bestalde, guztira 5.346 enplegu, hots, %2,7ko emendioa 2008rekiko. Haren ekarpena kooperatiba-enpleguari 2008ko %10,3tik igarotzen da 2010eko %11,1era.

SALen kasuan, Bizkaiko enplegu-metatzea nabarmentzen da, lurralde horretan guztira 4.413 enplegu kokatzen direla, %1,4ko hazkunde txikiarekin 2008rekiko. EAEko SALei dagokien enplegu guztiaren %60 ordezkatzen dute enplegu horiek.

SALek sortutako enpleguaren beste %30,1 Gipuzkoak biltzen du (2.212 lanpostu guztira), beheranzko joera 2008ko %31,8arekiko. Kooperatiba-enpleguaren kasuan bezala, horrek islatzen du %6,7ko murrizketa nabarmena mota horretako enpleguan Gipuzkoan 2008-2010 biurtekoan. Bestalde, Arabak, SALen enpleguaren %9,9rekin, soilik 730 lanpostu biltzen ditu guztira, 2008koaren antzeko zenbatekoa.

SMLei dagokienez, lurralde-enplegua Gipuzkoa eta Bizkaia artean antzera banatzen da (%45,2 eta %42,8; hurrenez hurren). 2008rekin erkatuta, lurralde bietan enplegu-galera nabarmena antzematen da (%-12,1 Gipuzkoaren kasuan eta %-7,7 Bizkaian). Arabar SMLek doi-doia biltzen dituzte 523 enplegu (2008an 535), hots, EAEko enpresa-forma juridiko horren enpleguaren %12,0.

**3.2 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 20010.**
**(z.a., %b.)**

| | GUZTIRA | | S. KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Araba | 6.599 | 11,0 | 5.346 | 11,1 | 730 | 9,9 | 523 | 12,0 |
| Bizkaia | 24.186 | 40,4 | 17.904 | 37,1 | 4.413 | 60,0 | 1.870 | 42,8 |
| Gipuzkoa | 29.130 | 48,6 | 24.946 | 51,8 | 2.212 | 30,1 | 1.972 | 45,2 |
| **GUZTIRA** | **59.915** | **100,0** | **48.196** | **100,0** | **7.355** | **100,0** | **4.365** | **100,0** |

3.3 taulak erakusten duen bezala, nolanahi ere, kooperatiba-enplegua nagusi da hiru Lurralde Historikoetan. Kulunkan dago 2010ean Bizkaiko %74,0ko minimoaren eta Gipuzkoako %85,6ko maximoaren artean.

Bizkaiaren pisu erlatibo txikiagoa lotuta dago SALek sortutako enpleguaren nagusitasun erlatibo handiagoarekin (%18,2; arabar SALek osatzen duten %11,1aren eta gipuzkoar SALen %7,6aren aurrean).

Bestalde, SMLen parte hartzea antzeko samarra da hiru lurraldeetan, lurraldeko Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoan haien parte hartzea ibili dabilela Gipuzkoako %6,8aren eta Arabako %7,9aren artean.

**3.3 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA**
**2010 (% h.)**

| | GUZTIRA | S.KOOP. | SAL | SML |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 100,0 | 81,0 | 11,1 | 7,9 |
| Bizkaia | 100,0 | 74,0 | 18,2 | 7,7 |
| Gipuzkoa | 100,0 | 85,6 | 7,6 | 6,8 |
| **GUZTIRA** | **100,0** | **80,5** | **11,9** | **7,7** |

3.4 taulan enplegu-banaketa zehatz-mehatz dago azalduta Lurralde Historiko, forma juridiko eta jarduera-sektore bakoitzeko. Hurrengo gogoeta aipagarriak nabarmentzen dira 2010erako:

- EAE osoan hirugarren sektoreko enpleguaren aurrerakadak markatutako testuinguruan, Gipuzkoak jarraitzen du izaten industria-enplegua nagusi duen Lurralde bakarra (Gipuzkoako Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren %56,5). Nagusitasun hori hiru forma juridikoetan jasotzen da: %55,2ko industria-enplegua Kooperatiben kasuan, %60,6 SALen kasuan eta %68,6 SMLen esparruan.

  Hala ere, zerbitzu-sektoreak aurrera egiten du 2008rekiko, %1,7ko hazkundea antzematen dela enplegu-mailan 2008-2010 artean Gipuzkoan. Emendio txiki horrek, industria-enpleguaren galera nabarmenarekin (2008ko 19.126 enpleguetatik 2010eko 16.459etara murrizten da), berekin dakar hirugarren sektoreko enpleguaren pisu erlatiboaren aurrerakada 2008ko %36,9tik 2010eko %40,9ra.

  Gipuzkoako industria-enpleguari dagokionez, erabat nabarmentzen da %12,8ko galera Gipuzkoako kooperatiba-establezimendu industrialen enplegu-mailan 2008-2010 artean (-2.016 lanpostu).

- Gipuzkoan ez bezala, Araban dagoeneko begien bistakoa da hirugarren sektoreko enpleguaren nagusitasun erlatiboa, enplegu osoaren %54,6 zerbitzu-sektoreak biltzen duela, industria-sektoreari dagokion %38,7aren garbiro gainetik. Hirugarren sektoreko enpleguaren pisua bereziki handia da SMLen esparruan (%60,8). Hala ere, hirugarren sektoreko Kooperatibak dira, arabar kooperatiba-enpleguaren %57,6 bilduta, arabar Gizarte-Ekonomian enplegu gehiena metatzen dutenak. Zerbitzuen nagusitasuna gorabehera, aipatu behar da SALetan oraindik erabakigarria dela industriaren betekizuna, SALen enpleguaren %68,5ekin, zerbitzu-sektoreari lotutako %27,8aren aurrean.

- Hirugarren sektoreko enpleguaren ordezkaritza-maila garaiena Bizkaiari dagokio, Lurraldeko enpleguaren %64,8 dela 2010ean, 2008ko %62,0aren ia-ia ehuneko hiru gainetik. Hirugarren sektoreko bizkaitar kooperatibak Lurraldeko kooperatiba-enpleguaren %67,7 dira, 332 lanpostuan hazten direla enpleguan 2008-2010 biurtekoan. SALetan hirugarren sektoreko enplegua guztiaren %59,4 da 2010ean, antzematen dela 364 enpleguko emendioa 2008 urtearekiko. SMLen kasuan zerbitzu-sektorearen pisu erlatiboa, ordea, apur bat txikiagoa da, %49,2n kokatzen dela, 2008ko %54,6aren azpitik

**3.4 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2010 (%b.)**

| | GUZTIRA | | S. KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 179 | 0,3 | 154 | 0,3 | 0 | 0,0 | 25 | 0,6 |
| Industria | 26.510 | 44,3 | 20.897 | 43,3 | 3.487 | 47,4 | 2.126 | 48,7 |
| Eraikuntza | 2.055 | 3,4 | 1.242 | 2,6 | 311 | 4,2 | 502 | 11,5 |
| Zerbitzuak | 31.171 | 52,0 | 25.903 | 53,8 | 3.557 | 48,4 | 1.711 | 39,2 |
| **GUZTIRA** | **59.915** | **100,0** | **48.196** | **100,0** | **7.355** | **100,0** | **4.365** | **100,0** |

| | GUZTIRA | | S. KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ARABA** | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 85 | 1,3 | 85 | 1,6 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| Industria | 2.552 | 38,7 | 1.894 | 35,4 | 500 | 68,5 | 159 | 30,4 |
| Eraikuntza | 362 | 5,5 | 288 | 5,4 | 28 | 3,8 | 45 | 8,6 |
| Zerbitzuak | 3.601 | 54,6 | 3.080 | 57,6 | 203 | 27,8 | 318 | 60,8 |
| **GUZTIRA** | **6.599** | **100,0** | **5.347** | **100,0** | **730** | **100,0** | **523** | **100,0** |

| | GUZTIRA | | S. KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BIZKAIA** | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 71 | 0,3 | 56 | 0,3 | 0 | 0,0 | 15 | 0,8 |
| Industria | 7.499 | 31,0 | 5.239 | 29,3 | 1.647 | 37,3 | 613 | 32,8 |
| Eraikuntza | 955 | 3,9 | 488 | 2,7 | 147 | 3,3 | 321 | 17,2 |
| Zerbitzuak | 15.661 | 64,8 | 12.121 | 67,7 | 2.620 | 59,4 | 921 | 49,2 |
| **GUZTIRA** | **24.186** | **100,0** | **17.904** | **100,0** | **4.413** | **100,0** | **1.870** | **100,0** |

| | GUZTIRA | | S. KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GIPUZKOA** | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 24 | 0,1 | 14 | 0,0 | 0 | 0,0 | 10 | 0,5 |
| Industria | 16.459 | 56,5 | 13.764 | 55,2 | 1.341 | 60,6 | 1.353 | 68,6 |
| Eraikuntza | 738 | 2,5 | 466 | 1,9 | 136 | 6,1 | 136 | 6,9 |
| Zerbitzuak | 11.909 | 40,9 | 10.702 | 42,9 | 734 | 33,2 | 472 | 23,9 |
| **GUZTIRA** | **29.130** | **100,0** | **24.946** | **100,0** | **2.212** | **100,0** | **1.972** | **100,0** |

Orain arte aurkeztutako datuek erakusten dituzte Gizarte-Ekonomiaren industriak aurrean dituen zailtasun garrantzitsuak, sustrai historikoak dituen errealitatea, hiru Lurralde Historikoetan zegoeneko 2002-2004 epean antzemandako industria-enpleguaren galera nabarmenak erakusten duenez, zinetako mugarria izan zen gertaera 1994ari dagokion estatistikaren lehenbiziko argitaralditik.

Nahiz eta 2004-2006 artean antzeman zen industriako enplegu-bolumenaren halako suspertzea, emendio hori txiki samarra izan zen, Lurralde Historiko guztietara hedatzen ez zela, gainera. Izan ere, Bizkaiaren kasuan industria-enpleguaren galerarako joera mantendu egin zen, aldeko testuinguru ekonomikoa gorabehera. Egiatan, 2004-2006 epeko suspertzeak batez ere Arabari eragin zion (industria-enpleguaren %13,9ko hazkundearekin) eta, hein txikiagoan, Gipuzkoari (industria-enpleguaren %4,1eko hazkundearekin epe horretan).

2006-2008 artean Gizarte-Ekonomiaren industria-enpleguaren galera-prozesua erabat zabaltzen zen berriz, bereziki gogorra zela Bizkaian (%-8,5) eta Gipuzkoan (%-7,8). Araban, aurreko biurtekoko hazkunde nabarmenaren ondoren, industria-enpleguaren galera txikiagoa izan zen, %2,1era mugatzen zela.

2008-2010 epeko bilakaerak nabarmendu egiten du oro har galerarako joera Gizarte-Ekonomiaren industria-enpleguan Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, 2006-2008 biurtekoan antzemandako galera-mailak gainditzen direla. %13,9rekin, biurtekoko galera handiena Gipuzkoan gertatzen da, Bizkaian %9,3 halaber nabarmenean atzera egiten duela, dena dela. Kontrako testuinguru horretan, Araba da Lurralde bakarra gauza dena industria-enplegua mantendu eta are arinki emendatzeko (%+0,9).

Garrantzi handiko datua da industriako enpleguaren atzerakada nabarmena, 2008-2010 artean antzemangarria, industria-enpleguaren kopuru osoa 2010ean kokatzen duela 2002 urtean antzemandakoaren %20,0 azpitik. Bilakaera negatiboena Bizkaiari dagokio, %25,4ko murrizketarekin zortzi urteotan, Gipuzkoan galera %20,0n kokatzen dela. Arabak, ordea, 2002koaren antzeko enplegu-maila atxikitzen du (%+0,6). Hala ere, Gizarte-Ekonomiaren industria-enplegu osoan eragin gutxi duen lurraldea da.

**3.5 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETA ETA BILAKAERA. 2008-2010**

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | Δ08-10 | z.a. | Δ08-10 | z.a. | Δ08-10 |
| Industria | 2.552 | +0,9 | 7.499 | -9,3 | 16.459 | -13,9 |

Industria-enplegua sakonago aztertuz gero, ikus daiteke 2008-2010 biurtekoan, Lurralde Historiko eta forma juridiko bakoitza kontuan izanda, ondorengo ezaugarriak aipagarri dira

- Arabako Lurralde Historikoari lotutako emendio txikiak, %0,9n kokatua, konpentsazio bat islatzen du industria-enplegu kooperatiboak, arabar industria-enpleguaren %74,2 biltzen duen taldea, bizitako bilakaera positiboaren (%+11,8) eta Sozietate Laboralen industria-enplegua erasaten duen galeraren artean (%-21,0).

- Bizkaiko industria-enpleguaren galera (%-9,3), lotuta dago hiru forma juridikoetako enplegu-kopuruaren atzerakadari, nabarmenagoa Kooperatiben artean, 616 enpleguren galerarekin (5.855 enplegutik 5.239ra). Beheratze hori %10,5eko galera da 2008an Bizkaiko kooperatibetan antzemandako bigarren sektoreko enplegu-kopuruarekiko. Bestalde, Sozietate Laboraletako industriaren lanbide-galera %6,4n kokatzen da (-154 enplegu), nahiz eta SMLek bilakaera positiboa izan.

- Gipuzkoako industria-enpleguaren gutxitze nabarmena 2008-2010 artean (%-13,9), bestalde, funtsean industria-enplegu kooperatiboari dagokio, 2.016 enpleguren suntsitzearekin biurtekoan (%-12,8). Sozietate Laboraletako industria-enpleguaren galera 652 enplegutan kokatzen da (%-19,5).

**3.6 taula**

**INDUSTRIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA. 2008-2010**

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | Δ08-10 | z.a. | Δ08-10 | z.a. | Δ08-10 |
| Kooperatibak | 1.894 | +11,8 | 5.239 | -10,5 | 13.764 | -12,8 |
| SL sozietateak | 659 | -21,0 | 2.260 | -6,4 | 2.694 | -19,5 |
| SAL | 500 | -21,0 | 1.647 | -13,5 | 1.341 | -27,4 |
| SML | 159 | -20,8 | 613 | 20,2 | 1.353 | -9,7 |
| **GUZTIRA** | **2.552** | **0,9** | **7.499** | **-9,3** | **16.458** | **-13,9** |

2008-2010 biurtekoko industria-enpleguaren bilakaeraren azterketak erakusten du enplegu-mailaren erregresio nabarmena. Alderdi aipagarri nagusiak hurrengoak dira:

- Lehendabizi eta kopuru nabarmenei dagokionez, enplegu-galera nagusia lotuta dago bizkaitar eta gipuzkoar kooperatiba-esparruei. Bien artean kopuru absolutuan 2.632 enplegu galtzen dituzte 2008 urtearekiko.

- Bigarrenik nabarmentzen da Sozietate Laboralek bizitako enplegu-galera, hala SALen kasuan nola SMLenean, hiru Lurraldeetan. Oro har murrizketa 981 industria-enplegukoa da 2008 urtearekiko, kasu askotan %20ko galera-maila erdietsi edo gainditzen dela. Maximoa gipuzkoar SALei dagokie, %27,4ko atzerakadarekin, berekin dakarrena 500 enplegutik gorako enplegu-suntsitzea. Gogoragarri da puntu horretan, SALen enplegu-galera zegoeneko 2004-2006 biurtekoan hasitako joera egiaztatutzat jotzen zela eta SMLetan, aldiz, enplegu-galera 2006-2008 biurtekora geroratzen zela.

- Egiaz, 2008-2010 artean aldeko emaitzak lortzen dituen alor bakarra arabar Kooperatibena da. Horiek enplegu-kopurua 200 lanpostuan hazi dute.

Lurraldean oinarritutako kapitulu honen testuinguruan, azkenik aipagarri da orain arte ikusitako aldagai ezberdinen azterketa, Gizarte-Ekonomiaren enplegu osoaren sektore bakoitzeko pisu erlatiboaren ikuspegitik, Euskal Ekonomia osoaren biztanleria landunarekiko. Nabarmendu beharreko datu nagusiak hurrengoak dira:

- Gipuzkoak jarraitzen du izaten Gizarte-Ekonomiara lotutako enpleguaren pisu handiena duen Lurraldea: gipuzkoar ekonomian 100 enplegutik 9,4 Gizarte-Ekonomiaren enpleguak dira. Sektoreei erreparatuta, industria da pisu erlatibo handiena duena. Duela gutxiko lanpostu-suntsitzea gorabehera, Gipuzkoako industria-enplegu osoaren %19,0 Kooperatiben eta Sozietate Laboralen industria-enpleguaren pisua da.

  Industria-pisua, hala ere, ehuneko bat baino apur bat gehiago murriztu egin da 2008an zuenarekiko (%20,2). Gertaera hori 2008-2010 arteko industria-enpleguaren galera orokorraren testuinguruan kokatzen da, %8,5eko beheratzearekin mota horretako enpleguan Gipuzkoan. Atzerakada hori, ordea, txikiagoa da Gizarte-Ekonomiaren gipuzkoar industria-alorrean antzemandakoa baino, %13,9ko galerarekin 2008-2010 biurtekoan.

  Gizarte-Ekonomiaren gainerako sektoreen garrantzi erlatiboa gipuzkoar ekonomian askoz mugatuagoa da 2010ean, hirugarren sektorean %6,0 erdietsi arren, 2008ko %5,8aren apur bat gainetik. Adierazlea %3,5ekoa da eraikuntzan eta %1,2koa nekazaritza-sektorean.

- Gizarte-Ekonomiaren enpleguaren pisu erlatiboa Bizkaian, 2008ko ekitaldian bezala, %5en azpitik kokatzen da (%4,9). Sektoreka, berriro industria-enpleguaren pisu erlatiboa nabarmentzen da, nahiz eta gipuzkoar kasuan baino era askoz mugatuagoan, %7,7ko ordezkaritzarekin, 2008an lortutako parte hartzearen ildoan (%7,6). Gizarte-Ekonomiaren pisua Bizkaian askoz txikiagoa da gainerako sektoretan: %4,4 hirugarren sektorean, %2,3 eraikuntzan, eta %2,0 lehen sektorean.

- %4,6ko parte hartzearekin, lurralde-enpleguaz den bezainbatean, Araba da, bestalde, Gizarte-Ekonomian pisu txikiena duen Lurraldea. Hala ere, 2010ean pisu espezifikoa emendatzen duen Lurralde bakarra da 2008ko ekitaldiarekiko. Joera hori lotuta dago Gizarte-Ekonomiak 2008-2010 biurtekoan bizitakoa baino arabar Ekonomiaren enplegu-galera handiagoarekin. Industria agertzen da halaber Lurraldean sektore-pisu handiena duen sektore gisa, presentzia erlatibo apur bat irabazten duela 2010ean (lurraldeko industria-enplegu osoaren %6,2; 2008ko %5,1aren aurrean). Eraikuntza-sektorearen garrantzi erlatiboa ere handitu egiten da ehuneko batean 2010eko %4,1a erdietsi arte. Lehen sektoreak orobat Araban lortzen du parte hartze erlatibo handiena, %2,7rekin.

**3.7 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (duen garrantzi erlatiboa,%, euskal ekonomia osoari dagokionez). 2010**

**EAE**

| | Gizarte-ekonomia | Euskal ekonomia guztira | Garrantzi erlatiboa ehunekoan |
|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 179 | 8.700 | 2,0 |
| Industria | 26.510 | 225.000 | 11,8 |
| Eraikuntza | 2.055 | 72.500 | 2,8 |
| Zerbitzuak | 31.171 | 642.700 | 4,9 |
| **GUZTIRA** | **59.915** | **948.900** | **6,3** |

**ARABA**

| | Gizarte-ekonomia | Euskal ekonomia guztira | Garrantzi erlatiboa ehunekoan |
|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 85 | 3.100 | 2,7 |
| Industria | 2.552 | 40.900 | 6,2 |
| Eraikuntza | 362 | 8.800 | 4,1 |
| Zerbitzuak | 3.601 | 91.000 | 4,0 |
| **GUZTIRA** | **6.599** | **143.800** | **4,6** |

**BIZKAIA**

| | Gizarte-ekonomia | Euskal ekonomia guztira | Garrantzi erlatiboa ehunekoan |
|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 71 | 3.600 | 2,0 |
| Industria | 7.499 | 97.400 | 7,7 |
| Eraikuntza | 955 | 42.300 | 2,3 |
| Zerbitzuak | 15.661 | 352.500 | 4,4 |
| **GUZTIRA** | **24.186** | **495.800** | **4,9** |

**GIPUZKOA**

| | Gizarte-ekonomia | Euskal ekonomia guztira | Garrantzi erlatiboa ehunekoan |
|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 24 | 2.000 | 1,2 |
| Industria | 16.459 | 86.700 | 19,0 |
| Eraikuntza | 738 | 21.400 | 3,5 |
| Zerbitzuak | 11.909 | 199.200 | 6,0 |
| **GUZTIRA** | **29.130** | **309.300** | **9,4** |

***Konparaziorako iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2010***

## 3.2.- BEG BALIOAREN ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN LURRALDE-PROFILA

Kasu bakoitzean maila eta erritmo ezberdinekin izan arren, 2008-2010 artean BEGaren dinamika ebolutiboa Lurralde Historiko ezberdinetan negatiboagoa da 2006-2008 biurtekoan antzemandakoa baino. Epe horretan Bizkaiko eta Arabako BEGak %6 nominalaren hurbileko erritmoan haztea lortzen bazuen, 2008-2010 biurtekoan, aldiz, BEGaren hazkundea %3,3ra murrizten da Araban eta %1,7ra Bizkaian. Hala ere, eta hazkunde-tasa nominal horiek 2004-2006 biurtekoko epealdi hedakor indartsuak ezaugarri zituenetik urrun dauden arren, positiboak izaten jarraitzen dute.

Industria-egituraren pisu handiak baldintzatua, egiaz Gipuzkoa da 2008-2010 artean BEGaren beheratze nabarmena duen lurraldea (%-8,2 termino nominaletan). Galera horrek gainditu egiten du zegoeneko 2006-2008 artean antzemandakoa (%-5,4), lurraldea nabarmen urruntzen dela 2004-2006 artean antzemandako bi zifrako hazkundetik (%23,3). %13,5eko beheratzeak lurraldeko BEG industrialean azaltzen du hein handi batean Gipuzkoako Gizarte-Ekonomiaren murrizketa nabarmena.

Araban eta Bizkaian antzemandako BEGaren murrizketa txikia bat dator, ordea, Kooperatibek izandako bilakaera positiboarekin (%7,7ko eta %5,5eko hazkundearekin 2008-2010 artean, hurrenez hurren).

Bilakaera hori bat dator Sozietate Laboralen baino Kooperatiben jokabide positiboagoarekin sortutako BEGaren bilakaeran 2008-2010 biurtekoan. BEGa SMLetan %19,0 eta SALetan %16,6 murrizten bada, galera beti %10 baino handiagoekin hiru lurraldeetan Sozietate Laboralen mota ezberdinen produkzio-adierazleetan; Kooperatiben BEGa, aldiz, epealdian soilik %1,2 murrizten da.

BEG kooperatiboaren galerak Gipuzkoan Sozietate Laboralena baino txikiagoa izaten jarraitzen duen arren, Araban eta Bizkaian ez bezala, lurralde hura 2010ean nabarmentzen da BEG kooperatiboaren murrizketa halaber adierazgarriagatik (%-6,6). Galera hori bereziki nabarmena da kopuru absolutuan. Horrela, 2010ean gipuzkoar Kooperatibek 2008an baino 95,9 milioi euro gutxiago sortu zituzten, alor atzerakorretan BEGaren %56,8ko galera azaltzen dela 2008-2010 biurtekoan lurraldearen eta forma juridikoaren arabera. Antzemandako galerak Euskadiko Sozietate Laboral guztiei lotutako 73 milioiko murrizketa gainditzen du.

Gipuzkoar BEGaren murrizketak, kontraste egiten duena Arabak eta Bizkaiak bizitako hazkunde arinarekin, ez ditu ezartzen, ordea, aldaketa handiak Gizarte-Ekonomiaren lurralde bakoitzeko BEGaren ehunekoen banaketan. Kooperatibetako eta Sozietate Laboraletako BEGaren gehiena era horretan Gipuzkoan metatzen jarraitzen da.

Hala ere, Gipuzkoaren nagusitasuna murriztu egiten da 2008ko %55,1etik 2010eko %52,5era, ehuneko 2,6ko murrizketarekin. Bizkaiak pisu erlatiboa ehuneko 1,9n handitzen du Gizarte-Ekonomiaren BEG osoarekiko, pisu erlatiboa %33,4tik %35,3ra igaro dela 2008-2010 artean. Bestalde, Arabak emendatu egiten du ehuneko 0,9an pisu erlatiboa 2010ean, Gizarte-Ekonomiaren egituraren BEGaren %12,3 izan arte (2008an %11,4).

**3.4 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN BEG BALIOAREN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2008-2010**



BEGari dagokionez Gipuzkoak 2010ean erakusten jarraitzen duen pisu handiagoa lotuta dago gipuzkoar Kooperatibek sortutako BEGari. Horiek dira EAEn 2010ean sortutako BEG kooperatibo osoaren %54,7, hots, urte horretako Gizarte-Ekonomiaren %48,0. 2008an, ordea, gipuzkoar BEG kooperatiboa 2010ean antzemandakoaren ehuneko 3,1 gainetik kokatzen zen (%57,8), EAEko Gizarte-Ekonomiaren BEG osoaren %49,5 dela.

Gipuzkoar BEGaren betekizun erlatiboaren atzerakada ez da Kooperatibetara mugatzen, Sozietate Laboralen mota ezberdinei ere erasaten baitie. Gipuzkoar SALak BEG sektorialaren %36,3 baziren 2008an, haien parte hartzea 2010ean, aldiz, %33,2ra mugatzen da, parte hartzearen %44,3tikako %43,9rako galerarekin SMLen alorrean.

Bizkaiak, ordea, hein handiagoan laguntzen dio euskal Gizarte-Ekonomiaren BEGari, hala kooperatiba-sektorean nola Sozietate Laboraletan. Lurralde horretako Kooperatiben BEGaren pisu erlatiboa handitu egiten da, beraz, 2008ko %30,6tik 2010eko %33,2ra. SALen kasuan, bizkaitar lurraldeak bere nagusitasuna sendotzen du, parte hartzea %57,4 arte handitzen duela BEGean 2010ean (2008an %54,5). SMLetan, 2008ko %42,2tikako 2010eko %45,9rako hazkundeak, bestalde, erakusten du BEGaren galera txikiagoa EAEko gainerako lurraldeetako mota horretako enpresetan baino.

2008-2010 epealdiko BEG osoaren bilakaera positiboena duen lurraldea izan arren, Arabak ia ez du bere parte hartze produktiboa aldatzen EAEko Gizarte-Ekonomian. Emaitza egiaz positiboena arabar BEG kooperatiboaren pisu erlatiboaren %22,6tikako 12,6rako emendioa da. SALek doi-doia 2 hamarren emendatzen dute parte hartzea BEGean (%9,2tik 9,4ra). Epealdiko BEGaren galera oso handiaren eraginez (%-39,2), SMLek pisu erlatiboa murriztu dute 2008ko %13,6tik 2010eko %10,2ra.

**3.8 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN BEG BALIOAREN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**
**(z.a. euroan. %b.)**

| | EAE | | S.KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Araba | 346.215.352 | 12,3 | 312.639.342 | 12,6 | 22.216.246 | 9,4 | 11.359.765 | 10,2 |
| Bizkaia | 995.865.116 | 35,3 | 809.465.446 | 32,7 | 135.170.330 | 57,4 | 51.229.340 | 45,9 |
| Gipuzkoa | 1.481.476.193 | 52,5 | 1.354.333.973 | 54,7 | 78.167.218 | 33,2 | 48.975.001 | 43,9 |
| **GUZTIRA** | **2.823.556.661** | **100** | **2.476.438.761** | **100** | **235.553.794** | **100** | **111.564.106** | **100** |

Nolanahi den, BEG kooperatiboaren nagusitasuna mantentzen da lurralde bakoitzean. Gizarte-Ekonomiaren BEG osoaz den bezainbatean, Kooperatibei dagokienak %91,4 erdiesten du Gipuzkoan, %90,3 Araban eta %81,3 Bizkaian. Ehuneko horiek 2010ean Kooperatibei dagozkien enplegu-metatzearen mailak gainditzen dituzte (%85,6 Gipuzkoan, %81,0 Araban eta %74,0 Bizkaian).

Hala ere, aipagarri da Bizkaian Sozietate Laboralei dagokien BEGaren pisu erlatibo handiagoa, bereziki SALez den bezainbatean. Bizkaian, azken mota horretako enpresek Lurraldeko BEGaren %13,6 sortzen dute, nahiz eta atzerakadan 2008ko %15,7arekiko. Bizkaitar SMLei lotutako BEGaren pisua ere konparazioz beste bi Lurraldeena baino handiagoa da: %5,1; Arabako eta Bizkaiko %3,3aren aurrean. Kasu horretan ere, ordea, 2008koarekiko galera antzematen da (%5,9 urte horretan).

**3.9 taula**
**BEG BALIOAREN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010 (% h.)**

| | GUZTIRA | S.KOOP. | SAL | SML |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 100 | 90,3 | 6,4 | 3,3 |
| Bizkaia | 100 | 81,3 | 13,6 | 5,1 |
| Gipuzkoa | 100 | 91,4 | 5,3 | 3,3 |
| **GUZTIRA** | **100** | **87,7** | **8,3** | **4,0** |

Lurralde Historikoaren eta jarduera-sektorearen araberako BEGaren banaketaren azterketak aditzera ematen jarraitzen du Gipuzkoako industriak sortutako BEGaren garrantzia. Sektore hori gipuzkoar BEGaren %65,8 da, zerbitzu-sektoreari, aldiz, %32,6 dagokiola. Hala ere, bilakaeraz den bezainbatean, gipuzkoar BEG industrialak ehuneko lau galtzen du pisu erlatiboan 2008ko %69,8arekiko. Horrek islatzen du antzemandako %13,5eko galera Gipuzkoako BEG industrialean 2008-2010 artean, 152,1 milioiko galera absolutuarekin, esparru atzerakorretako BEGaren galeraren %76,6ren baliokidea EAEko lurraldearen eta jarduera-sektorearen arabera. Gipuzkoan, ordea, handitu egiten da %28,5etik 32,6ra hirugarren sektoreko BEGaren pisu erlatiboa, gipuzkoar lurraldean 2008-2010 artean sektoreko BEGean antzematen den %5,0ko emendioaren isla.

Gipuzkoan ez bezala, Araban eta Bizkaian nabarmen nagusi da zerbitzu-sektorea, %60-61en hurbileko BEGaren metatzearekin. Lurraldeko industria %35 inguru da bi kasuetan. Egoera horrek islatzen du hirugarren sektoreko BEGaren goranzko joera 2008-2010 artean, Araban %3,2 eta Bizkaian %9,6 hazten dela. Baina, Araban izan ezik, non %9,1eko emendioa antzematen baiten BEG industrialean, halaber eragina du BEG industrialaren galera nabarmenak Bizkaian (%-9,4). Azken hori 36,6 milioi euro murrizten da 2008-2010 artean, epe horretan esparru atzerakorretako BEGaren galeraren beste %18,4 ekartzen duela EAEko lurraldearen eta jarduera-sektorearen arabera.

**3.10 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN BEGaren ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2010.**
**(z.a. euroan, %b.)**

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 3.666.468 | 0,1 | 2.043.584 | 0,6 | 1.423.268 | 0,1 | 199.616 | 0,0 |
| Industria | 1.452.024.286 | 51,4 | 124.401.458 | 35,9 | 352.837.391 | 35,4 | 974.785.437 | 65,8 |
| Eraikuntza | 69.653.978 | 2,5 | 12.071.482 | 3,5 | 33.375.339 | 3,4 | 24.207.157 | 1,6 |
| Zerbitzuak | 1.298.211.928 | 46,0 | 207.698.827 | 60,0 | 608.229.118 | 61,1 | 482.283.982 | 32,6 |
| **GUZTIRA** | **2.823.556.661** | **100** | **346.215.352** | **100** | **995.865.116** | **100** | **1.481.476.193** | **100** |

Produktibitate antzemangarriari dagokionez, hazi egiten da 2008-2010 artean ehuneko 0,3 EAEko Gizarte-Ekonomian, Bizkaiari eta Arabari dagokien bilakaera positiboari esker (enpleguko 41.175 euro arte aurreratzen dela Bizkaiaren kasuan eta enpleguko 52.465 arte Araban). Aurreko urteetan bezala, Arabak jarraitzen du izaten produktibitate antzemangarri handiena duena. Hala ere, ez du berreskuratzen 2006an antzemandako enpleguko 52.813 euroko maximo historikoa.

Gipuzkoaren kasuan, 2006-2008 biurtekoan bizitako galeraren ondoren, 2008-2010 artean produktibitate antzemangarria aldaketarik gabe mantentzen da 50.857 euro/enpleguko ratioan.

**3.11 taula**
**PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2006-2010.**
**(Euro kopurua, milakoan /Enplegatua)**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 52.813 | 37.665 | 52.319 | 46.670 |
| 2008 | 51.807 | 40.031 | 50.918 | 46.755 |
| 2010 | 52.465 | 41.175 | 50.857 | 47.126 |

Lurralde bakoitzeko produktibitate antzemangarriaren maila ezberdinek, eta lotutako jokabideek, aztertzea komeni diren enpresa-dinamika eta enpresa-sektore espezifikoei erantzuten diote Lurralde bakoitzean:

**Bizkaia**

Lurralde horretako produktibitate antzemangarri txikiagoa (41.175 euro/enplegu, EAEko 47.126 euroko batez besteko ratioaren aurrean) Sozietate Laboralen presentzia konparazioz handiagoko enpresa-egituraren emaitza da, historikoki Kooperatibek baino produktibitate txikiagoa erakusten duten sozietateak baitira.

2008-2010 artean batez besteko produktibitatearen bilakaera ere gutxitu egiten da, eragin bereziarekin SALetan, kasu horretan produktibitate-ratioa 2008ko 35.322 euro/enplegutik igarotzen dela 2010eko 30.630 euro/enplegura. Sozietate Laboralen enpleguko BEGaren atzerakada hori lotuta dago 2008-2010 artean sortutako BEGaren %12,0ko galerarekin, epe horretako enplegu-galeraren mailaren halako bi dena (%-6,4).

Bizkaiko Gizarte-Ekonomiaren emendio orokorreko testuinguruan 2008-2010 artean, bilakaera hori orekatzen du bizkaitar Kooperatibei dagokien batez besteko produktibitatearen emendio nabarmenak, kasu horretan euro/enplegu ratioa 42.439tik 45.211ra handitzen dela 2008-2010 artean. Dinamika hori lotuta dago biurtekoko BEG kooperatiboaren %5,5eko hazkundearekin, enplegu-mailaren %10,5eko beheratzearekin kontraste egiten duena.

**Gipuzkoa**

Gipuzkoar lurraldeko industria- eta kooperatiba-enpleguaren pisu erlatibo handiagoak azaltzen du produktibitate antzemangarriaren maila handiagoa Lurralde horretan Bizkaiarekiko.

2010ean lurraldeko Gizarte-Ekonomiaren produktibitate-maila oro har mantentzen da gipuzkoar Kooperatiben produktibitateak bizitako emendio arinari esker (2008ko enplegu bakoitzeko 53.553 eurotik 2010 urteko enpleguko 54.291 eurora). Hazkunde horrek orekatu egiten du lurraldeko Sozietate Laboralen produktibitatearen galera garrantzitsua, bereziki deigarria SALen kasuan. Kasu horretan, produktibitatea gutxitu egiten da 2008ko 43.292 euro/enplegutik 2010eko 35.338 euro/enplegura.

Komeni da nabarmentzea, hala ere, kooperatiba-produktibitatearen hazkundeak proportzio nabarmenean erantzuten diola sektoreko enpresen enplegu-galerari. Horrela, gipuzkoar kooperatiben enplegu garbiaren atzerakada handiagoa da 2008-2010 artean (%-12,8) dagokien BEGarena baino (%-6,6). Sozietate Laboralen produktibitatearen galerak erantzuten dio, ordea, 2008-2010 arteko enplegu-suntsitzea (%-19,5) baino zerbait handiagoa den BEGaren beheratzeari (%-22,3).

**Araba**

Araba da Gizarte-Ekonomiaren alorreko produktibitate antzemangarri handiena duen Lurraldea azken urteetan. 2010ean 52.465 euro/enplegu erdietsi zituen arabar Kooperatibei lotutako produktibitate antzemangarriari esker, 2008-2010 biurtekoan enplegu bakoitzeko 55.782 eurotik 58.470erako emendioa egiaztatzen duen alorra.

Aurreko ekitaldietan bezala, arabar kooperatiben batez besteko produktibitate handia lotuta dago hein handi batean hirugarren sektoreko korporazio handien eraginari. Industriaren eta zerbitzuen bilakaera ekonomiko ezberdinak azaltzen du halaber arabar eta gipuzkoar Kooperatiben produktibitate antzemangarriaren izaera ezberdina izatea. Gipuzkoan antzemandakoa ez bezala, Arabako kooperatiba-guneen produktibitatearen emendioa lotuta dago 2008-2010 arteko enpleguaren emendio handiarekin, %12,0tik hurbil, hots, BEG kooperatiboan antzemandakoa baino handiagoa (%+8,0).

Kooperatiba-sektorearekin kontrastean, Sozietate Laboralek produktibitate-ratioaren galera nabarmena dute Araban ere 2008-2010 artean (2008ko 35.723 euro/enplegutik 2010eko 30.433ra SALei dagokienez, 34.916tik 21.720ra SMLei dagokienez). Beheranzko joera hori 2008-2010 artean lotuta dago %25,0ko BEGaren galerari, hots, Sozietate Laboralen artean antzemandako enpleguaren %21,0ko murrizketa baino handiagoa.

**3.12 taula**
**LURRALDE-PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**
**(Euroak/Enplegatua)**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|---|---|---|---|---|
| S. Koop. | 58.470 | 45.211 | 54.291 | 51.383 |
| SAL | 30.433 | 30.630 | 35.338 | 32.026 |
| SML | 21.720 | 27.395 | 24.835 | 25.559 |
| **GUZTIRA** | **52.465** | **41.175** | **50.857** | **47.126** |

Aurkeztutako datuek erakusten dutenez, 2010ean nabarmentzen da hiru Lurraldeetako Kooperatiben produktibitate antzemangarriaren maila handiagoa, maila horiek Bizkaiko enplegu bakoitzeko 45.211 euroko minimotik doazela Arabako enplegu bakoitzeko 58.470 euroko ratio maximora.

Kontrako muturrean kokatzen dira SMLak, beti enplegu bakoitzeko 27.395 euroren azpitik kokatutako produktibitate-mailekin. Maximoa Bizkaiari dagokio (enpleguko 27.395 euro), produktibitate txikiena Araban antzematen dela (enpleguko 21.720 euro).

Tarteko mailan kokatzen dira SALen produktibitate antzemangarriaren ratioak. Horiek enpleguko 30.000 eta 35.000 euro bitartean kokatzen dira. Maximoa kasu horretan Gipuzkoari dagokio (enpleguko 35.338 euro), minimoa berriz Araban antzematen dela (enpleguko 30.433 euro).

## 4.- GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOAK

Barne- eta estatu-eskaria nabarmen mugatua den krisialdi-testuinguruan, enpresen salmenten kanpo-merkaturako norabideak interes berezia hartzen du. Nabarmena da, beraz, EAEko industria-egituraren zati handi baten bokazio esportatzaileak azken urteetan berekin dakarren 2010eko laugarren hiruhilabeteko esportazio-bolumenaren %17 baino zerbait gehiagoko emendioa 2009ko epealdi berdinarekiko.

Hurrengo garatzen den kapituluak zenbatekotan islatu nahi ditu Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen bokazio esportatzailea. Bokazio hori eragin du hein handi batean euskal Kooperatiba industrial handiek lan egitean duten kanporako begiradak. Analisi honek ezaugarri dituen parametroak dira, hala Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egiturari lotutako esportazio-bolumena 2010 urtean, nola haren pisu erlatiboa negozio-bolumen osoarekiko. Parametro horiek ñabardura bereziak erakusten dituzte nagusiki establezimendu esportatzaileen forma juridikoaren eta/edo enpresa-tamainaren arabera.

Emaitzen aurkezpenari hasiera emanda, egiaztatzen da 2010ean Gizarte-Ekonomiaren enpresen esportazio-bolumenak erdiesten dituela 2.250,4 milioi euro guztira. Kopuru hori %0,5 gehiago da 2006an antzemandako kopurua baino. Hala ere, %7,2ko galera nabarmena islatzen du 2008rekiko, artean esportazio-bolumen osoa 2.425,6 milioi euroan kokatzen zela.

Esportazio-mailen dezelerazioa ez da ulertu behar, aitzitik, Gizarte-Ekonomiaren enpresen merkatu berrietarako sarbidearen galga gisa, lotuago baitago mundu-ekonomiak, eta europarrak bereziki, ezaugarri duen produkzio- eta negozio-bolumen txikiagoarekin. Zentzu horretan, esportazioen parte hartzearen bilakaerak Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen fakturazio osoan jarraitzen du 2004 urtean hasitako hazkunde-bidea. 2010 urtean %26,3n kokatzen da, hots, ehuneko 1,4ko emendioa esandako parte hartzean 2008ko %24,9arekiko.

**4.1 irudia**

**KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE-MAILAREN BILAKAERA (esportazioen bolumena fakturazio osoaren gainean). 1994-2010**



2010ean Gizarte-Ekonomiaren jarduera esportatzailea 250 enpresa edo establezimendu esportatzaileko taldean metatzen da, hots, Gizarte-Ekonomiaren enpresa guztien %11,9 eta industria-enpresen %30 inguru[4]. Datu horiek 2008koaren antzekoak dira.

Errealitate horrek erantsita dakar enpresa esportatzaileen espezializazio progresiboa kanpo-merkatuetarako salmentan, berekin dakarrena, halaber, handituz doan fakturazioaren pisua merkatu horietan. Parte hartzearen maila kanpo-merkatuetan progresiboki emendatzen da azken urteetan, 2004ko %39,9ko fakturaziotik igarotzen dela 2010eko %54,1era. Enpresa esportatzaile horietan, beraz, salmenten erdia baino gehiago EAEtik eta estatutik kanpoko merkatuetan bideratzen da.

Aipagarri da enpresaren soslai esportatzailea, hein handi batean industria-sektoreari lotuta, osatu egiten dela kasu askotan establezimendu berrien irekitzearekin kanpo-merkatuetan.

**4.2 irudia**
**ESPORTAZIOEK ENPRESA ESPORTATZAILEEN FAKTURAZIO OSOAREN GAINEAN DUTEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA. 2010**




Gizarte-Ekonomiaren esportazioen norabide geografikoa markatu egin du esportazioak Europan metatzeko joera historikoak. Hala ere, Europarako esportazioen pisua murriztu egiten da nabarmen 2010ean. 2008 urtean EAEko Gizarte-Ekonomiaren esportazioen %80,8 Europak jasotzen baldin bazuen, 2010ean, aldiz, ehuneko hori 62,1era murrizten da.

---

4 EAEko gizarte-ekonomiaren Estatistikaren ondorioetarako, establezimendu esportatzailetzat hartzen da EAEn dagoen establezimendua, eta egoitza soziala edonon dagoela ere, bere salmenten zati bat behintzat Espainiako merkatuetatik kanpo egiten dituena. Estatistikan, deslokalizazio kontzeptua esaten zaio enpresa-establezimendu berriak kanpoko merkatuetan zuzenean sortzeari.

Bilakaera horrek islatzen du, eta estatistikaren 2010eko argitaraldian antzemandako aldaketa nagusietakoa da, euskal Gizarte-Ekonomiaren Europarako esportazioen galera nabarmena. Erlatiboki, esportazio horiek %28,7 egiten dute behera 2008-2010 artean. 2008an 1.959,9 euroan kokatzera iritsitako kopurutik igarotzen da 2010eko 1.397,0 milioira, 2006ko 1.675,1 milioiak baino argiro txikiagoa ere den esportazio-bolumena.

Europarako esportazioen 562,8 milioi euroko murrizketa 2008-2010 artean ezin izan da orekatu nazioarteko beste merkatuetan irabazitako 387,7ekin. Hala ere, esportazioen beste eremu geografikoetarako norabidea erabakigarria izan da europar eskariaren beheranzko joera orekatzeko. Adibidez, Asiarako esportazioek erakusten dute 2010ean %16,4ko parte hartzea (2008ko %7,8aren aurrean), aurrera egiten duela halaber Erdialdeko Amerikarako eta Hego Amerikarako irekitzeak (2008an esportazioen %7 izatetik igaro dira 2010eko %9,4ra). 2006-2008 artean sartze-maila estatubatuar merkatuan nabarmen murriztu ondoren, 2010ean gainditu ere egiten dira 2006 urtean antzemandako esportazio-kopuru onak. Merkatu hori 2008an Gizarte-Ekonomiaren esportazioen %1 baino ez izatetik igaro da 2010ean %6,6 izatera.

**4.3 irudia**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN ESPORTAZIOEN NORAKOA. 2010**
**(norakoaren araberako esportazio guztien %)**




Bilakaera epe luzeko ikuspegitik aztertuta, eredu gisa 2004-2010 epea hartuta, egiaztatu egiten da asiar merkatua izan dela bizitasun gehien erakutsi duen norako geografikoa urte hauetan. Kopuru absolutuan, norako horretarako esportazioak ia 9 aldiz biderkatzen dira 2004-2010 artean, 328,0 milioi euroan kokatutako emendio garbiarekin bi urte horien artean. Kopuru horren eragin estrategikoak ulertzeko, aski da esatea, Europako orain dela gutxiko eskari-krisiaren ondorioz, europar eremuan 2010ean egindako esportazioen aldea -2004koekiko- 128,7 milioi euroko emendiora mugatzen dela.

2006-2008 epeko krisialdia gainditu ondoren, AEBeko merkatua bigarren azaltzen da hazkunde-ahalmen handienean. Esportazio-bolumena kasu horretan 2,5 aldiz biderkatzen da 2004-2010 artean, 90,2 milioi euroko emendio garbiarekin.

Latin Amerikarako esportazioak hein txikiagoan hazten dira 2004-2010 artean, %44,4 bada ere, 64,8 milioi euroren pareko emendio garbiarekin epealdi horretan.

**4.1 taula**
**ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ZONAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA. 2006, 2008 eta 2010**

| | z.a. 2004 | z.a. 2006 | z.a. 2008 | z.a. 2010 | Δ10/04 | Δ08/06 | Δ10/08 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Europa | 1.268.319.133 | 1.675.104.241 | 1.959.861.909 | 1.397.054.639 | 10,2% | 17,0% | -28,7% |
| Asia | 41.997.322 | 150.042.760 | 189.287.966 | 370.036.555 | 781,1% | 26,2% | 95,5% |
| AEB | 58.796.251 | 114.211.653 | 24.409.658 | 148.965.042 | 153,4% | -78,6% | 510,3% |
| Hegoaldeko Amerika | 146.150.682 | 125.408.874 | 166.542.425 | 210.994.736 | 44,4% | 32,8% | 26,7% |
| Beste batzuk | 162.949.611 | 174.676.645 | 85.507.342 | 123.433.888 | -24,3% | -51,0% | 44,4% |
| **GUZTIRA** | **1.679.892.892** | **2.239.444.173** | **2.425.609.299** | **2.250.484.862** | **34,0%** | **8,3%** | **-7,2%** |

Enpresa esportatzaileen testuinguruan, komeni da nabarmentzea espainiar merkatuari lotutako fakturazioak behera egiten duela 2008-2010 biurtekoan esportazio-bolumenari dagokion baino proportzio handiagoan (%-25,0 eta %16,3; aurrez aurre). Hala ere, europar merkatuari lotutako salmentek atzera egiten dute barne-salmentek baino proportzio are handiagoan (%-28,7 eta %25,0; aurrez aurre). Kopuru absolutuan, Estatu osoko merkatuaren fakturazioaren galera doi-doia da europar merkatuarena baino zerbait handiagoa (-637,2 milioi euro lehen kasuan; -562,8 milioi euro bigarrenean).

**4.2 taula**
**BARNE-SALMENTEN ETA KANPO-SALMENTEN BILAKAERA 2008-2010**

| | 2008 | 2010 | %Δ10/08 | z.a. Δ10/08 |
|---|---|---|---|---|
| **Fakturazio osoa** | **9.756.734.068** | **8.563.275.439** | **-12,2%** | **-1.193.458.629** |
| **Esportatzaileen fakturazioa** | **4.971.785.590** | **4.159.506.738** | **-16,3%** | **-812.278.852** |
| a)Barne-salmentak | 2.546.176.290 | 1.909.021.877 | -25,0% | -637.154.413 |
| b)Kanpo-salmentak: Esportazioak | 2.425.609.299 | 2.250.484.862 | -7,2% | -175.124.437 |
| b.1. Europarako esportazioak | 1.959.861.909 | 1.397.054.639 | -28,7% | -562.807.270 |
| b.2. Esportazioak gainerako herrialdeetara | 465.747.390 | 853.430.223 | +83,2% | 387.682.833 |

## 4.1.- ESPORTAZIOAK, JARDUERA-SEKTORE, FORMA JURIDIKO ETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA

Gizarte-Ekonomiaren jarduera esportatzailearen ezaugarriak aztertuta, industria-izaera nabarmeneko egitura esportatzailea dela egiaztatzen da lehendabizi. Zentzu horretan, esportazioen %98,9 bigarren sektorean aritzen diren enpresei dagokie.

Industria-alorrean, gainera, esportazioek pisu oso nabarmena dute negozio-kopuruan, horren %55,4 ekartzen dutela, 2008ko %45,7aren gainetik. Jarduera esportatzailea hirugarren sektorean egiaz bigarren mailakoa da, doi-doia sektore horretako negozio-kopuruaren %1,1 direla esportazioak. Hala ere, 2010ean, esportazioen parte hartzea hirugarren sektoreko enpresa esportatzaileen fakturazioan %17,5era iristen da.

**4.3 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA.**
**(z.a. euro-kopurua, milakoan, %b.) ETA NEGOZIO-KOPURUAREN GAINEKO PISU ERLATIBOA (z.a., %b.) 2010**

| | ESPORTAZIOAK | | PISU ERLATIBOA /NEGOZIO-KOPURUAREN arabera |
|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | % |
| Industria (*) | 2.226.061.803 | 98,9 | 55,4 |
| Zerbitzuak | 24.402.917 | 1,1 | 17,5 |
| **GUZTIRA** | **2.250.484.862** | **100** | **26,3** |

(*) Eraikuntza ez dago sartua.

Diren forma juridiko ezberdinak kontuan hartuta, nabarmentzen da EAEko Kooperatiben kanpo-merkatuetarako irekitze handiagoa. Hain zuzen, Kooperatibek esportazioen %96,0 biltzen dute 2010 urtean, 2008ari dagokion %93,9aren gainetik.

Aldaketa hori lotuta dago Sozietate Laboralen esportazioen galera erlatibo handiagoari. Adibidez, esportazioak %5,2 murrizten badira 2008-2010 artean sektore kooperatiboan, Sozietate Laboralen alorrean, aldiz, galera %28,6ra iristen da SMLetan eta %40,2ra SALetan. Andeatzea lotuta dago batez ere, azken kasu horretan, industria-esportazioen bilakaerari; hain zuzen, zerbitzu-sektoreko SMLen esportazio-bolumenak aurrera egiten baitu. SMLen hirugarren sektoreko esportazioek bikoiztu egiten dute kopurua 2008-2010 biurtekoan, Gizarte-Ekonomiaren hirugarren sektoreko esportazioen %18 baino zerbait gehiago direla, gehiena kooperatibek biltzen duten arren (%77,7).

Kooperatiba-sektorean, esportazioen murrizketa erlatiboki handiagoa da zerbitzuetan, industrian antzemandako %4,6a garbiro gainditzen duen %41,7ko galerarekin. Kopuru absolutuan, hala ere, galera egiaz nabarmena kooperatiba-industriari dagokio. Horri dagokio 2008-2010 artean EAEko Gizarte-Ekonomian antzemandako esportazio-bolumenaren galera osoaren %59,5. Beste %33,8 lotuta dago halaber industria-sektoreari, baina kasu horretan Sozietate Laboral guztiei, Gizarte-Ekonomian Sozietate Laboralek duten pisu ekonomikoa baino ekarpen askoz handiagoa.

**4.4 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA**
**(z.a. euro-kopurua, milioian eta, % h). 2010**

| | GUZTIRA | | S. Koop. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %h. | z.a. | %h. | z.a. | %h. | z.a. | %h. |
| Industria | 2.226.061.803 | 100 | 2.142.010.534 | 96,2 | 77.882.441 | 3,5 | 6.168.829 | 0,3 |
| Zerbitzuak | 24.402.917 | 100 | 18.951.091 | 77,7 | 1.011.538 | 4,1 | 4.440.288 | 18,2 |
| **GUZTIRA** | **2.250.484.862** | **100** | **2.160.981.766** | **96,02%** | **78.893.979** | **3,51%** | **10.609.117** | **0,47%** |

(*) Eraikuntza ez dago sartua.

Aztertuz gero esportazioen pisuaren bilakaera fakturazio-mailan forma juridikoaren arabera, Kooperatibei dagokien hazkundea nabarmentzen da. Forma juridiko horretan esportazioen proportzioa kopuru osoan %27,7ra iristen da 2010ean, 2008ko %26,0a gainditzen duela. Hori lotuta dago kooperatiba-sektorearen esportazio-galera erlatibo txikiagoari 2008-2010 artean, Kooperatiben fakturazio osoan bizitakoarekiko.

Esparru esportatzailean nabarmendu egiten da industria-enpresa Kooperatibo handien dinamika. Enpresa horien esportazio-bolumena haien fakturazio osoaren %54,3 da. Aurreko argitaraldietan bezala, nabarmentzen da Mondragon Kooperatiba Elkartearen kanpo-merkatuetarako irekitze-maila handia, esportazioen %63 inguruko parte hartzearekin fakturazio osoan 2010 urtean[5]. Esportaziorako irekitze horretaz gain, ekitaldi horretan taldeak 77 banatzaile zituen nazioarteko eremuan, 2008 urtean baino lau gehiago.

Sozietate Laboralen esportazioen galerak, ordea, eragin negatiboa du kanpo-merkatuetarako sarbidean. SALen kasuan, esportazioen pisua fakturazioan 2008ko %19,6tik murrizten da 2010eko %15,9ra, are 2006ko %17,3aren azpitik dagoen kopurua.

Joera antzekoa da SMLetan, bokazio esportatzaile gutxien duen gizarte-figura. Kasu horretan, esportazioen pisua 2008ko fakturazioaren %4,6tik igarotzen da 2010eko %4,0ra, doi-doia 2006ko %3,7aren zerbait gainetik.

**4.4 irudia**

**ESPORTAZIOEN PISU ERLATIBOAREN KONPARATIBA FAKTURAZIOARI DAGOKIONEZ. 2008-2010. (esportazioen %, fakturazioaren arabera)**




Enpresaren tamaina joera esportatzailearen gorabehera azaltzen duen faktorea da. Horrela, egiaztatzen da 200 enplegu baino gehiago dituzten enpresek esportazio-bolumenaren %75 baino gehiago biltzen dutela. Nabarmentzen da, hala ere, 51 eta 100 enplegu bitarteko mailari dagokion %12,2ko parte hartzea kanpo-merkatuetan.

Enpresa handien pisua, 200 enplegu baino gehiagorekin, begien bistakoago da esportazioetan kooperatiba-sektorea kontuan hartzean, kasu horretan esportazio kooperatiboaren %76,7 biltzera iristen dela.

---

[5] Kasu honetan, informazio iturria Mondragon Kooperatiba taldeko “Sala de Prensa web” aretoa da.

SALen eta SMLen kasuan, ostera, enpresa txikiek eta ertainek nagusitasun handiagoa hartzen dute, bereziki SMLen kasuan. Azken mota horretako enpresatan, esportazioen %83,8 dagokie 6 eta 50 langile bitarte dituen enpresei. SALetan, 201 enplegutik 500erako enpresek esportazio guztien %45,1 dira, 16tik eta 50erako enpresek biltzen dituztela estatu-eremutik kanpo egindako salmenten %25,6, beste %24,9 dagokiela 51 eta 200 langile bitarteko enpresei.

**4.5 taula**
**ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ENPLEGU-MAILAREN ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2010**
**(z.a. eta %b.)**

| | GUZTIRA | | S. Koop. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| 5 enplegu arte | 1.677.303 | 0,1 | 768.434 | 0,0 | 329.475 | 0,4 | 579.394 | 5,5 |
| 6 – 15 bitarte | 11.341.184 | 0,5 | 3.438.429 | 0,2 | 3.204.535 | 4,1 | 4.698.220 | 44,3 |
| 16 – 50 bitarte | 139.848.455 | 6,2 | 115.473.796 | 5,3 | 20.184.648 | 25,6 | 4.190.011 | 39,5 |
| 51 – 100 bitarte | 274.325.801 | 12,2 | 263.093.365 | 12,2 | 10.090.945 | 12,8 | 1.141.491 | 10,8 |
| 101 – 200 bitarte | 130.359.122 | 5,8 | 120.836.517 | 5,6 | 9.522.605 | 12,1 | 0 | 0,0 |
| 201 – 500 bitarte | 729.599.875 | 32,4 | 694.038.104 | 32,1 | 35.561.771 | 45,1 | 0 | 0,0 |
| 500 baino gehiago | 963.333.122 | 42,8 | 963.333.122 | 44,6 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| **GUZTIRA** | **2.250.484.862** | **100** | **2.160.981.766** | **100** | **78.893.979** | **100** | **10.609.117** | **100** |

Aurreko datuek erakusten dute Sozietate Laboralen ezaugarri nabarmena dela enpresa txikien joera esportatzaile konparazioz handiagoa.

5 enplegu baino gutxiagoko enpresen artean, esportazioen %54,1 Sozietate Laboralei dagokie (%19,6 SALen kasuan eta %34,5 SMLetan). Proportzio hori %69,7raino handitzen da 6 eta 15 enplegu bitarteko enpresen esportazioen kasuan, SALek %28,3 eta SMLek %41,4 hartzen dituztela.

Tamaina handiagoko enpresetan, Kooperatiben esportazioen pisua, ordea, nagusi da. Esportazioen %82,6 sektore kooperatiboari dagokio 16 eta 50 enplegu bitarteko enpresetan, %92ko maila gainditzen dela 50 enplegu baino gehiagoko enpresetan.

**4.6 taula**
**ESPORTAZIOEN BOLUMENAREN PISU ERLATIBOA, FORMA JURIDIKOAREN ETA ENPLEGU-MAILAREN ARABERA (%h). 2010 (%h).**

| | S. Koop. | SAL | SML |
|---|---|---|---|
| 5 enplegu arte | %45,8 | %19,6 | %34,5 |
| 6 – 15 bitarte | %30,3 | %28,3 | %41,4 |
| 16 – 50 bitarte | %82,6 | %14,4 | %3,0 |
| 51 – 100 bitarte | %95,9 | %3,7 | %0,4 |
| 101 – 200 bitarte | %92,7 | %7,3 | %0,0 |
| 201 – 500 bitarte | %95,1 | %4,9 | %0,0 |
| 500 baino gehiago | %100,0 | %0,0 | %0,0 |
| **GUZTIRA** | **%96,0** | **%3,5** | **%0,5** |

Nabarmendu behar da azkenik, kooperatiba-industria handiek gipuzkoar enpresa-egituran duten nagusitasunarekin koherentzian, Gipuzkoako Gizarte-Ekonomiaren betekizuna prozesu esportatzaileetan. Lurralde Historiko horrek 2010ean biltzen du EAEko Gizarte-Ekonomia esportazio guztien %72,5. Bizkaia esportazioen %21,1 da, Arabari dagokiola gainerako %6,4a.

**4.5 irudia**

**GIZARTE-EKONOMIAREN ENPRESEN ESPORTAZIOEN JATORRIZKO LURRALDEA. 2010**

**(esportazioen bolumen osoaren %, jatorrizko Lurralde Historikoaren arabera)**



## 5.- GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE MAGNITUDE EKONOMIKO BATZUK

Txostenaren bosgarren eta azken atalean izaera ekonomiko eta finantzieroa duten beste aldagai batzuk aztertuko dira, horiek euskal Gizarte-Ekonomiak autofinantzatzeko duen ahalmenaren berri ematen baitute, baita zorpetzeko duen mailaren berri eman ere.

Zentzu horretan, aztertzen dira enpresen Funts Propioei lotutako kopuruak eta haien banaketa sektorearen, forma juridikoaren eta lurraldearen arabera. Gainera, zehaztu egiten dira berezko baliabideen, zorpetzearen eta berme-mailaren edo finantza-kaudimenaren gaineko sektore-errentagarritasunari lotutako zenbait ratio.

Halaber, aztertzen da 2010eko ekitaldiko enpresa-balantzan islatutako enpresa-aktiboen bilakaera, ibilgetu materialei eta immaterialei lotutako aktiboetan egindako inbestimenduen bilakaeraren berri ematen dela. Azkenik, kontuan hartzen da dirulaguntzen bidez lortutako baliabide ekonomikoen bilakaera eta kopurua.

### 5.1.- GIZARTE-EKONOMIAREN FINANTZIAZIO PROPIOA

Gizarte-Ekonomiaren enpresa-egituraren finantzazio propioa lotuta dago Funts Propioen mailarekin, Kapitalari, Erreserbei, eta aplikatzeko zain dauden Emaitzei dagozkien pasibo-sailak barne. 2010 urtean guztira 4.977,4 milioi euro dira, hots, nominalki %3,1eko atzerakada 2008ko ekitaldian antzemandakoarekiko (5.134,3 milioi). Murrizketa hori 2006-2008 biurtekoan antzemandako atzerakada baino txikiagoa da, epealdi horretan atzerakada %7,0ko izatera iritsi baitzen. Denera jota, ordea, azken aldiko bilakaerak berekin dakar %9,8ko galera Gizarte-Ekonomiaren Funts Propioetan 2006-2010 artean.

Euskal Gizarte-Ekonomiaren Funts Propioen mailaren atzerakada etengabeak 2006-2010 artean apurtu egiten du 2006 aurreko urteetako goranzko joera. 2004-2006 biurtekoan, ordea, funts berrien sortze-erritmoan gutxitze argia nabari zen, 2002-2204 artean bizitako bilakaerarekin erkatuta txikia zen %6,7ko emendioarekin, biurteko horretan %39,5 hazi baitzen[6].

Sektoreaz den bezainbatean, aipagarri da baliabide propioen kopuru osoa handiago dela hirugarren sektorean (%54,9; industriako %43,8ren aurrean). Erlatiboki, nabarmentzen da, hain zuzen, industria-sektorean antzemandako Funts Propioen mailaren atzerakada, Funts Propioen bolumenaren %13,1eko galerarekin 2008arekiko.

---

[6] Gainera, adierazi beharra dago 2004-2006 biurtekoaren hazkundea loturik zegoela 2004an izandako enpresa-emaitzak erlatiboki aurreko ekitaldietan erregistratutako emaitzak baino negatiboagoak izatearekin. Egoera horrek lagundu egin zuen 2005ean erreserbei ekarpen handiagoak egin ahal izatea. Ildo horretan, 2004. urtean cash-flowa 2002ko baino %6,9 altuagoa baino ez zen izan termino nominaletan, eta horrek inplikatzen zuen hazkunde txikiagoa izatea termino errealetan.

Bestalde, zerbitzu-sektoreak %6,2 emendatzen du bere Funts Propioen maila 2010ean. Emendio hori, ordea, 2006-2008 biurtekoko atzerakada gogorraren atzetik dator, 2010 urtean zerbitzu-sektorearen Funts Propioen maila 2006koaren %7,8 azpitik mantentzen dela (%-13,0 industrian, 2006-2008 arteko Funts Propioen bolumenaren egonkortzea ezaugarri duela).

Industria-sektorea izan arren 2008-2010 artean Funts Propioen mailaren gutxitze handiena erakusten duena, zerbitzu-sektorea nabarmentzen da, ordea, biurtekoan lortutako emaitzetan izandako galera handiagoagatik. %49,1eko beheratzeak emaitza-kopuruan ez du eragiten, hala ere, Funts Propioen mailan, goranzko joera baitu lehen esan dugunez.

**5.1 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. 2008 eta 2010**
**(z.a. euro kopurua milakoan, %b.)**

| | 2008 | | 2010 | |
|---|---|---|---|---|
| | Euroak | %b. | Euroak | %b. |
| Lehen sektorea | 6.684.266 | 0,1 | 6.684.266 | 0,1 |
| Industria | 2.509.184.705 | 48,9 | 2.509.184.705 | 48,9 |
| Eraikuntza | 44.097.956 | 0,9 | 44.097.956 | 0,9 |
| Zerbitzuak | 2.574.320.118 | 50,1 | 2.574.320.118 | 50,1 |
| **GUZTIRA** | **5.134.287.044** | **100** | **5.134.287.044** | **100** |

Emaitza-mailan bi sektoreek nozitutako gutxitze nabarmenak 2008-2010 artean (%27,1 industrian eta %49,1 zerbitzuetan) berekin dakar, bestalde, errentagarritasun-ratio txikiagoak Gizarte-Ekonomiaren bi jarduera horietan, bi-biak %4ren apur bat gainetik kokatzen direla 2010ean.

Industria-sektorearen kasuan, errentagarritasun-galerak berekin dakar ehuneko bateko galera 2008arekiko. Bilakaera hori kokatzen da, gainera, epe luzeko beheranzko joera nabarmenean, era horretan errentagarritasuna 2006-2008 biurtekoan %8,8tik %11,2ra emendatu ondoren, ratioa 2008ko %5,1etik 2010eko %4,1era murrizten dela.

Hirugarren sektorean, errentagarritasun-mailaren gutxitzeak 2010ean osagai berritzailea sartzen du, hots, 2004 urtetik bizitako goranzko joeraren etena, errentagarritasuna urte horretako %6,1etik igaro dela 2006ko %8,2ra eta 2008 urteko %8,7ra. Adierazlea, ostera, %4,2ra murrizten da 2010ean.

Oro har, Gizarte-Ekonomiaren enpresen errentagarritasun osoa, lehen sektorea kontuan hartu gabe, ahuldu egiten da nabarmen, biurtekoan ia ehuneko hiru murrizten dela, 2008ko %6,9tik 2010eko %4,2ra.

**5.2 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. FUNTS PROPIOEN GAINEKO ERRENTAGARRITASUNARI BURUZKO ERREFERENTZIA**
**(z.a. euro -kopurua milakoan.) 2010**

| | | ERRENTAGARRITASUNA/ FUNTS PROPIOAK | |
|---|---|---|---|
| | FUNTS PROPIOAK | 2008 | 2010 |
| Industria [1] | 2.237.478.736 | 5,1 | 4,1 |
| Zerbitzuak | 2.733.646.431 | 8,7 | 4,2 |
| **GUZTIRA** | **4.971.125.167** | **6,9** | **4,2** |

[1] Eraikuntza barne dago

Funts Propioen eragina enpleguarekin lotuz, enplegu bakoitzeko Funts Propioen maila industria-sektorean kokatzen da 2010ean 82.218 euroan. Hirugarren sektorean, ratioa handitzen da enpleguko 87.699 euro arte. Adierazleen arteko alde hori aipatutako bi sektoreen bilakaera oso ezberdinaren ondorio da 2008-2010 artean, adierazleari dagokion datu-multzoaren bilakaera negatiboarekin industrian, baina zerbitzuen kasuan, aldiz, balio positiboa duena.

Industria-sektorean, eskumeneko kopuruek erakusten dute aipatutako ratioaren 1.654 euroko galera (erlatiboki %-2,0). Industria-enpresek enpleguari dagokionez 2008-2010 artean bizitako beheratzea (%-11,4) baino Funts Propioen mailaren beheratze handiagoarekin lotuta dago (%-13,1) hori.

Zerbitzu-sektorearen kasuan, antzematen da enplegu bakoitzeko Funts Propioen ratioaren emendioa 2008ko 84.814 eurotik 2010ean antzemandako 87.699ra. Enpleguari dagokionez antzematen den hazkundea (%+2,7) baino Funts Propioen bolumenaren hazkunde handiagoaren (%+6,2) emaitza da.

Bestalde, sektore oso zatikatuek, enpresa txikien presentzia zabalarekin, lehen sektorekoak eta eraikuntzakoak izan ohi direnez, Funts Propioen maila txikiagoa dute. Aurreko argitaraldietan bezala, enplegu bakoitzeko Funts Propioen ratioak lehen sektorean eta eraikuntzan -34.998 euro/enplegu eta 28.167 euro/enplegu, hurrenez hurren- nabarmen txikiagoak dira zerbitzu-sektoreari eta industriari dagozkienak baino.

Komenigarri da aipatzea puntu horri dagokionez, zerbitzu-sektorearen arloan, Kreditu- eta Banaketa-kooperatiba handiei lotutako goi-mailako autofinantzatzeak nabarmen eragin duela enplegu bakoitzeko Funts Propioen ratioan. Ratioa aztertzen baldin bada, mota horretako enpresen eragina alboratuta, zerbitzu-sektorearen adierazlea egiaz murrizten da enpleguko 22.800 eurora. Horrek agerian ipintzen du beheranzko joera bat 2008ko enplegu bakoitzeko 26.098 euroekiko, zerbitzu-sektore hori kontuan hartutako sektore guztien artean ratio txikienarekin ezarriko lukeena, lehen sektorearen eta eraikuntzaren azpitik.

**5.1 irudia**
**BATEZ BESTEKO FUNTS PROPIOAK, ESTABLEZIMENDUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (Euroan). 2010**




Autofinantzatze-ahalmenaren azterketak forma juridikoaren arabera erakusten du, aurreko argitaraldietan ohi bezala, Funts Propioen masaren metatze nabarmena Kooperatibetan. Kooperatiba-egiturak Gizarte-Ekonomiak sortutako Funts Propio guztien %95,2 biltzen du, SALei lotutako %3,5en eta SMLei dagokien %1,4ren aurrean. Kooperatiba-pisuak gora egiten du 2008ko %94,1arekiko, 2006ko maila berreskuratzen duela.

Funts Propioen metatzea Kooperatibetan hauteman daitekeen errealitatea da Gizarte-Ekonomiaren sektore ezberdinetan, %72,6ko maila minimoarekin eraikuntzan eta %90 baino handiagoko zenbatekoekin industrian eta zerbitzuetan. Sozietate Laboralei lotutako Funts Propioen pisu erlatiboak eraikuntzan baino ez du erakusten betekizun nabarmena, SALei dagokien %15,9rekin eta SMLen %11,5ekin.

Enplegu bakoitzeko Funts Propioen adierazlea kontuan hartuta, ohartzen da enplegu bakoitzeko berezko baliabideen ratioa Sozietate Laboralen kasuan nabarmen txikiagoa dela Kooperatibetan antzemandakoa baino. Enpleguko 23.411 euroan kokatzen da SALen kasuan eta 15.738 euro/enpleguan SMLetan[7]. Kooperatiben kasuan, adierazlea enpleguko 98.276 eurora emendatzen da, 2008 urteko 95.907 euro/enpleguren gainetik.

**5.3 taula**
**GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010 (z.a. euroan eta % h.)**

| | GUZTIRA | | S.KOOP | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %h. | z.a. | %h. | z.a. | %h. | z.a. | %h. |
| Lehen sektorea | 6.276.220 | 100 | 5.540.180 | 88,3 | 0 | 0,0 | 736.040 | 11,7 |
| Industria | 2.179.586.578 | 100 | 2.005.571.640 | 92,0 | 130.995.515 | 6,0 | 43.019.423 | 2,0 |
| Eraikuntza | 57.892.158 | 100 | 42.037.600 | 72,6 | 9.206.489 | 15,9 | 6.648.069 | 11,5 |
| Zerbitzuak | 2.733.646.431 | 100 | 2.683.367.706 | 98,2 | 31.984.262 | 1,2 | 18.294.463 | 0,7 |
| **GUZTIRA** | **4.977.401.387** | **100** | **4.736.517.126** | **95,2** | **172.186.266** | **3,5** | **68.697.995** | **1,4** |

7 SML gehienen Emaitzen Kontuen analisiak, eta neurri txikiagoan SALen analisiak, erakusten du finantziazio propioaren mailak oso txikiak direla, eta aurreko ekitaldietan 12. kontuan galerak metatu direla.

Kooperatiba handiek Gipuzkoan duten presentzia handiagoak eragiten du hein handi batean Funts Propioen lurralde-banaketa. Adibidez, Lurralde Historikoaren araberako Funts Propioen pisua hein handi batean gipuzkoar lurraldera lerratzen da, Funts Propioen %50,7ko metatzearekin. Bizkaiak beste %36,0 biltzen du, Arabari gainerako %13,3a dagokiola. Hala ere, gipuzkoar parte hartzea aurreko argitaraldietan antzemandakoa baino txikiagoa da (2008an %57,1 eta 2006an %55,5), Bizkaiaren mesedetan batez ere (2008ko Funts Propioen %29,5; Arabako %13,4aren aurrean).

2008-2010 arteko Gipuzkoaren pisu erlatiboaren galera Funts Propioen banaketan, epe horretako funts horien mailaren %13,9ko atzerakadaren ondorio da, Araban antzemandako %3,5eko galeraren gainetik. Bizkaitar enpresen Funts Propioak, aldiz, %18,1 emendatu dira esandako epean.

Sektorearen eta Lurraldearen araberako Funts Propioen mailaren eta banaketaren azterketan sakonduz gero, aipagarri dira Gipuzkoaren eta gainerako Lurralde Historikoen artean antzemandako ezberdintasunak.

- Gipuzkoan Funts Propioen gehiena metatzen da bigarren sektorean (%65,8). Lurralde horretan, zerbitzu-sektorearen parte hartzea funts horietan murrizten da 2008ko %34,5etik 2010eko %33,4ra. Hori lotuta dago Funts Propioen mailaren galera handiagoarekin zerbitzu-sektorean (2008ko ekitaldiarekiko %-16,9; industria-sektoreko %12,6aren aurrean).

- Bizkaian eta Araban zerbitzu-sektorea, aldiz, pisu gehieneko sektorea da Funts Propioez den bezainbatean (%78,7 eta %72,7; hurrenez hurren). Bizkaiaren parte hartzearen emendio nabarmena antzematen da halaber, 2008an parte hartze sektorialaren %70,2tik abiatzen zena. Hain zuzen, hirugarren sektoreko bizkaitar enpresa-multzoak %32,4 hazi ditu Funts Propioak 2008-2010 urtean, industriak, ordea, 2008an antzemandako funtsen %18,4 galdu duela. Arabako kasuan, Funts Propioen barne-banaketaren egonkortasun handiagoa, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko antzeko atzerakadaren ondorio da (%-5,7 eta %-3,0; hurrenez hurren).

**5.4 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2010**

**(z.a. euroan eta %b.)**

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 6.276.220 | 0,1% | 5.507.623 | 0,8% | 263.678 | 0,0% | 504.919 | 0,0% |
| Industria | 2.179.586.578 | 43,8% | 164.422.769 | 24,7% | 354.663.284 | 19,8% | 1.660.500.524 | 65,8% |
| Eraikuntza | 57.892.158 | 1,2% | 11.337.481 | 1,7% | 26.738.893 | 1,5% | 19.815.784 | 0,8% |
| Zerbitzuak | 2.733.646.431 | 54,9% | 483.073.506 | 72,7% | 1.409.529.299 | 78,7% | 841.043.626 | 33,4% |
| **GUZTIRA** | **4.977.401.387** | **100** | **664.341.380** | **100** | **1.791.195.154** | **100** | **2.521.864.853** | **100** |

Enpresa-baliabide propioen azterketarekin jarraituta, 2010eko ekitaldiko Gizarte-Ekonomiaren pasiboaren azterketari ekiten zaio ondoren, kontuan hartuta zenbait finantza-ratio, balioztatzearren enpresen hala zorpetzearen edo finantza-arriskuaren mailak, nola bermearen edo autofinantzatze-ahalmenaren mailak[8].

Hasiera batean horri dagokionez, Funts Propioen pisu erlatiboa pasibo agregatu osoarekiko %27,6n kokatzen da. Maila horrek berekin dakar Gizarte-Ekonomiaren zorpetze- eta berme-ratio batzuk 2,6n eta 1,4n kokatzen direnak, hurrenez hurren. 2008an zegoeneko gertatu bezala, 2,9ko eta 1,3ko ratioekin, horrek finantza-literaturak gomendagarritzat ezarritako mailatik kanpo uzten du Gizarte-Ekonomiaren enpresa-multzoa.

Hala ere, garrantzitsua da nabarmentzea 2010ean antzemandako zorpetze-maila garbiro aldentzen dela 2006ko ekitaldian antzemandakotik, artean 3,3n kokatutako zorpetze-ratioarekin. Horrela, egiaztagarri da Gizarte-Ekonomiaren zorpetze agregatuaren mailaren murrizketa nabarmena. Datu sektorialek, gainera, enpresen egoeraren irudi optimistagoa ematen dute.

Sektore minoritarioei dagokienez, egiaztatzen da eraikuntzak eta lehen sektoreak erdiesten dituztela 2 puntu baino gutxiagoko zorpetze- eta berme-ratioak. Industria-sektorean, zorpetze-ratioak gora egiten du 2008an antzemandako 1,4tik 2010eko 2,8ra, hots, Gizarte-Ekonomiaren duela gutxiko bilakaeraren alderdi kezkagarriena. Zentzu horretan, haren berme-maila 1,7tik 1,4ra murrizten da.

Hirugarren sektoreari dagokionez, kreditu-erakundeei lotutako errealitatea erabakigarri den sektorea da, hots, hirugarren sektoreko ohiko enpresen berariazko operazio-dinamikatik nabarmen desberdintzen den pasibo-egituradun erakundeak. Kasu horretan nabarmentzen da 2008an antzemandako arrisku-mailaren murrizketa adierazgarria, zorpetze-ratioa 2008ko 4,5etik 2010eko 2,5era erori dela. Berme-ratioa maila apalean mantentzen da, 1,4rekin.

**5.5 taula**

**ZORPETZE-RATIOAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010**

**(% kanpoko funtsak/Funts propioak)**

| | Zorpetze-ratioa |
|---|---|
| Lehen sektorea | 1,8 |
| Industria | 2,8 |
| Eraikuntza | 1,7 |
| Zerbitzuak | 2,5 |
| **GUZTIRA** | **2,6** |

8 Funts Propioen estaldura-maila baloratzea ahalbidetzen duten ratioak Zorpetzea (Kanpoko Kuntsak/Funts Propioak) eta Bermea (Aktibo Osoa/ Galdagarri Osoa) dira. Hasiera batean, eta finantza kudeaketaren testuinguruan, ratio horiek 1etik 2ra eta 1,5etik 2ra bitarte kokatu behar dira, hurrenez hurren, funts propioen zorpetze- eta estaldura-mailak egokiak izan daitezen.

**5.6 taula**

**BERME-RATIOAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010**

**(% aktiboa guztira/Galdagarria guztira)**

| | Berme-ratioa |
|---|---|
| Lehen sektorea | 1,5 |
| Industria | 1,4 |
| Eraikuntza | 1,6 |
| Zerbitzuak | 1,4 |
| **GUZTIRA** | **1,4** |

Forma juridiko ezberdinen azterketa erkatuak erakusten du, zorpetze-ratioei dagokienez, SMLen 2,4ko minimoaren eta SALen 2,8ko maximoaren artean kokatzen den bariazioa. Kooperatiben esparruan adierazlea 3,0tik 2,6ra murrizten bada, Sozietate Laboraletan, aldiz, hazi egiten da, 2,0ko ratioarekin 2008an.

**5.7 taula**

**ZORPETZE-RATIOAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**

**(% Kanpoko funtsak/Funts propioak)**

| | Zorpetze-ratioa |
|---|---|
| S. Koop | 2,6 |
| SAL | 2,8 |
| SML | 2,4 |
| **Guztira** | **2,6** |

Hiru forma juridikoen berme-ratioa, bestalde, 1,4n kokatzen da, 2008an antzemandako lerrotik oso hurbil.

**5.8 taula**

**BERME-RATIOAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**

**(% aktiboa guztira/Galdagarria guztira)**

| | Berme-ratioa |
|---|---|
| S. Koop | 1,4 |
| SAL | 1,4 |
| SML | 1,4 |
| **Guztira** | **1,4** |

Azkenik, enpresa-tamainaren araberako Gizarte-Ekonomiaren zorpetze-mailari dagokionez, bi tarte nabarmentzen dira zorpetze-ratio handiarekin, hots, 5,6n kokatzen den ratioa. 16 eta 50 langile bitarteko tarteari eta 201 eta 500 enplegu bitarteko tarteari dagozkien enpresak dira. Bigarren kasu horretan, aipagarri da, ordea, ratioak behera egiten duela 2008ko ekitaldiarekiko, urte horretan zorpetze-ratioa 7,1 jasoagoan baitzegoen.

Gainerako tarteak kokatzen dira 500dik gora enplegu dituzten enpresen 1,4ko mailaren eta 51-100 bitarte langile dituzten enpresen 2,0ko mailaren artean

**5.9 taula**

**ZORPETZE-RATIOAK, ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA. 2010**
**(% Kanpoko Funtsak/Funts Propioak)**

| | Zorpetze-ratioa |
|---|---|
| 5 enplegu arte | 1,9 |
| 6-15 bitarte | 1,6 |
| 16-50 bitarte | 5,6 |
| 51-100 bitarte | 2,0 |
| 101-200 bitarte | 1,4 |
| 201-500 bitarte | 5,6 |
| 500 baino gehiago | 1,4 |
| **GUZTIRA** | **2,6** |

Gizarte-Ekonomiaren Funts Espezifikoei egindako hornidurari dagokionez kooperatiba-establezimenduen kasuan, aipagarri da atzerakada nabarmena 2008arekiko. Derrigorrezko Erreserba-Funtsari lotutako hornidura %67,8 murrizten da 2008ko ekitaldiarekiko, 2010ean 57,5 milioi euroan kokatzen dela[9]. Bestalde, Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiboaren Funtsak %52,3ko murrizketa erakusten du, 28,6 milioi euroko kopuruarekin 2010ean.

Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiboaren Funtsaren banaketaz den bezainbatean, %26,3 Prestakuntzara bideratzen da, %28,6 Enpresen Arteko Lankidetzara, %25,0 Kultur, lan eta asistentziaren alorreko sustapenera eta zabalkundera, eta gainerako %20,1 beste helburu batzuetara.

Sozietate Laboralen kasuan, egindako horniduren maila Derrigorrezko Erreserba-Funtsari 20,3 milioi eurokoa da 2010eko ekitaldian, hots, 2008ko ekitaldian egindakoa halako bi (9,7 milioi).

## 5.2.- GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN INBESTIMENDUA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZIAZIOA

Gizarte-Ekonomiaren establezimenduen inbestimendu garbiak[10] aztertzen dira epigrafe honetan, hala ibilgetu materialean nola ibilgetu immaterialean, 2009-2010 artean egindakoak.

2009-2010 epean egindako inbestimenduak ibilgetu materialean eta immaterialean 29,1 milioi eurokoak izan dira, 2007-2008 epeko 266,2 milioiak baino bederatzi aldiz gutxiago. Inbestimendu ukiezinen multzoa %40,3n murrizten da, bestalde, 2007-2008 epeko 61,5 milioi eurotatik igarotzen dela 2009-2010 arteko 36,6 milioietara, 2005-2006 epeko 33,8 milioietatik hurbil dagoen kopurua, ordea.

---

[9] 2010 epean egindako hornidurak, emaitzei lotuak, 2009 epean lortutako emaitzei dagozkie.

[10] INEk Kapital Finkoaren Eraketa Gordinari buruz emandako definizioarekin koherentea izateko, atal honetan jasotzen den magnitudea Gizarte-Ekonomiaren alorreko enpresek 2009 eta 2010 artean egindako inbestimendu garbiarekin dago loturik. Hori horrela, ibilgetuaren erosketak barne hartu dira, eta egindako lagapen eta salmentak kendu dira. Hortaz magnitude garbi negatiboa izan daiteke.

Denera jota, inbestimenduen bi motak 65,7 milioi eurokoak dira 2009-2010 artean, hots, doi-doia 2007-2008 epean antzemandako inbestimenduaren bostena (327,6 milioi). Aipagarri da halaber, 2009-2010 epean, lehen aldiz ibilgetu immaterialean egindako inbestimenduek gainditu egiten dituztela ibilgetu materialean egindakoak.

Segidan zehatzago aztertzen dira aipatutako bi inbestimendu-motak lurralde- eta sektore-banaketaren eta forma juridikoaren arabera.

### A. Ibilgetu Materialean egindako Inbestimendua

2009-2010 epean Gizarte-Ekonomiak ibilgetu materialari egindako ekarpen garbien sektore-dimentsioa kontuan hartuta, zerbitzu-sektore kooperatiboan antzemandako inbestimendu garbi negatiboak eta bigarren sektoreko inbestimenduaren beheratze adierazgarriak ekarpen haiek nabarmen eragin dituztela ikusten da.

Hirugarren sektoreko enpresen inbestimendu garbi negatiboa 61,8 milioi eurokoa da, 2007-2008 epean antzemandako inbestimendu positiboko 35,6 milioi euroekin kontraste egiten duen kopurua. Inbestimendu-kenketaren prozesu horretan kooperatiba-sektorea da nagusi, arlo horretan inbestimendu garbi negatiboaren kopurua 67,9 milioikoa baita 2009-2010 artean. 2007-2008 epearekiko murrizten den arren, bereziki SMLen esparruan, hirugarren sektoreko Sozietate Laboralek, ordea, inbestimendu-kopuru positiboak atxikitzen dituzte ibilgetu materialean (+6,2 milioi euro).

Industria-sektorearen inbestimendu-bolumenak aktibo materialetan islatzen du, bestalde, 88,2 milioi euroko emaitza positiboa 2009-2010 artean, horren %90,0 Kooperatiben alorrari dagokiola. Joera, ordea, orobat negatiboa da, 2007-2008 epeko inbestimendu-mailarekiko %60,9ko atzerakadarekin (225,4 milioi). Ildo beretik, eraikuntza-sektoreko inbestimenduaren murrizketa %58,0n kokatzen da, inbestimendu-kopurua 2007-2008 epeko 4,7 milioi eurotik erortzen dela 2009-2010 artean antzemandako 2,0 milioira.

Nekazaritza-sektorea da epealdian inbestimenduaren ildo hedakorra erakusten duen sektore bakarra da, 0,5 milioitik 0,7ra igarotzen dela kontuan hartutako bi epealdien artean. Hala ere, egiaztagarri denez, bigarren mailako inbestimendu-esparrua da erabat Gizarte-Ekonomiaren alorrean.

Ohituraz, Kooperatibak izan dira pisu inbestitzaile handiena erakutsi dutenak Gizarte-Ekonomiaren alorrean. Inbestimendu-kopuruaren galera orokorra 2009-2010 artean, 2007-2008 epearekiko, Kooperatibetan askoz handiagoa da, ordea (%-93,9; SALen %-66,5en eta SMLen %-63,9ren aurrean), hainbesteraino non haren ekarpena inbestimenduari 2007-2008 epeko %83,0tik murrizten baita 2009-2010 artean antzemandako %46,6ra.

Bilakaera horretan erabakigarri da zerbitzu-sektorean antzemandako inbestimendu-murrizketa garbia, zerbitzu ez diren sektoretako kooperatiba-sektorearen inbestimendu positiboaren %83,3aren kopuru baliokidearekin. Guztira, Kooperatiben inbestimendu garbi positiboa 2009-2010 artean doi-doia 13,6 milioi eurokoa da. Emaitza positibodun sektoreen inbestimenduaren %97,4 industriari dagokio.

SALen kasuan, 10,5 milioi eurokoa da inbestimendua ibilgetu material osoan 2009-2010 artean, paretsu banatua industriaren (%50,5) eta zerbitzuen (%48,6) artean. SMLetan 5,1 milioiko inbestimendu garbi positiboa antzematen da, horren %70,2a industria-sektorera bideratua dagoela.

**5.10 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN INBESTIMENDU MATERIALEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010 (z.a. euroan eta % h.)**

| | GUZTIRA | | S.KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 734.428 | 2,5 | 693.193 | 5,1 | 0 | 0,0 | 41.235 | 0,8 |
| Industria | 88.204.519 | 302,8 | 79.355.821 | 584,3 | 5.288.672 | 50,5 | 3.560.025 | 70,2 |
| Eraikuntza | 1.955.905 | 6,7 | 1.449.211 | 10,7 | 93.532 | 0,9 | 413.163 | 8,2 |
| Zerbitzuak | -61.764.384 | -212,0 | -67.916.023 | -500,0 | 5.096.598 | 48,6 | 1.055.041 | 20,8 |
| **GUZTIRA** | **29.130.468** | **100** | **13.582.202** | **100** | **10.478.802** | **100** | **5.069.463** | **100** |

Enplegu bakoitzeko inbestimendu-ratio garbien erkaketak erakusten du Kooperatiben maila inbestitzailearen murrizketa bizia. Enpleguko inbestimendu-ratioa murriztu egiten da, beraz, 2007-2008 arteko enplegu bakoitzeko 4.386 eurotik 2009-2010 arteko enpleguko 282 eurora. Kopuru hori askoz txikiagoa da SMLen enpleguko 1.161 euroak eta SALen 1.425ak baino, 2007-2008 artean antzemandakoekiko orobat galera islatzen duten adierazleak (enpleguko 2.923 eta 4.200 euro, hurrenez hurren).

**5.11 taula**

**ENPLEGUKO INBESTIMENDU-RATIOAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**

| S.Koop. | | | SAL | | | SML | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Inbestimendua | Enplegua | Ratioa | Inbestimendua | Enplegua | Ratioa | Inbestimendua | Enplegua | Ratioa |
| 13.582.202 | 48.196 | 282 | 10.478.802 | 7.355 | 1.425 | 5.069.463 | 4.365 | 1.161 |

Enplegu bakoitzeko inbestimendu-ratio sektorialek islatzen dituzte lehen aipatutako joerak. Adibidez, enplegu bakoitzeko 1.981 euroko inbestimendu garbi negatibokoa da hirugarren sektoreko inbestimendu-ratioa, 2007-2008ko enpleguko 1.174 euroko inbestimendu-maila garbi positiboaren eta 2005-2006 arteko enpleguko 4.890 eurokoaren aurrez aurre. Industria-sektorean, ratioak 2007-2008ko 7.534 eurotik behera egiten du 2009-2010 epeko enplegu bakoitzeko 3.327 eurora.

2009-2010 artean bereziki interesgarria da lurraldearen arabera aztertzea arloz arloko inbestimendua ibilgetu materialean, bereziki hirugarren sektorean antzemandako inbestimendu garbiaren galeraren banaketari dagokionez. Zentzu horretan egiaztatzen da Bizkaiak biltzen duela galera horren %57,1 (-35,3 milioi euro), Arabari dagokiola beste %26,3 (-16,2 milioi). Gipuzkoak gainerako %16,5a biltzen du (-10,3 milioi).

Gipuzkoaren egoera konparazioz aldekoagoa industria-inbestimenduaz den bezainbatean ere antzematen da, 2009-2010 artean Gipuzkoak biltzen baitu %67,9 (+59,8 milioi euro). Ondoren dator Bizkaia, 22,5 milioiko inbestimendu garbiarekin, hots, epealdiko Gizarte-ekonomiaren industria-inbestimendu osoaren %25,5. Bi kasuotan, aipatutako kopuruek murrizketa gogorra dakarte 2007-2008 epearekiko (169,3 milioi eurorekin Gipuzkoan eta 48,6rekin Bizkaian, 2008an). Galera apur bat txikiagoa da Araban -7,5 milioi eurotik 5,9ra- baina industria-inbestimendu kooperatiboaren metatze txikiena duen lurraldea da.

Araba, hala ere, nagusi da beste sektore batzuetan egindako inbestimenduan. Adibidez, inbestimendua nekazaritzako ibilgetu materialean funtsean lotzen zaio arabar lurraldeari, 0,5 milioiko kopuruarekin, hots, Gizarte-Ekonomiaren lehen sektore osoan egindako inbestimenduaren %71,8. Ildo beretik, Arabak biltzen du eraikuntza-inbestimenduaren %43,2 (0,85 milioi; Bizkaiko 0,56ren eta Gipuzkoako 0,55en aurrean). Ikusten denez, inbestimendu-kopuru oso txikiak dira, hala ere.

**5.12 taula**

**2008an GIZARTE-EKONOMIAK IBILGETU MATERIALEAN EGINDAKO INBESTIMENDUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2010 (z.a., eta %b.)**

| | EAE | | ARABA | | GIPUZKOA | | BIZKAIA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 734.428 | 2,50 | 527.443 | -5,9 | 16.494 | 0,0 | 190.491 | -1,6 |
| Industria | 88.204.519 | 302,80 | 5.901.786 | -65,8 | 59.847.796 | 119,3 | 22.454.937 | -186,2 |
| Eraikuntza | 1.955.905 | 6,70 | 845.150 | -9,4 | 549.191 | 1,1 | 561.564 | -4,7 |
| Zerbitzuak | -61.764.384 | -212,00 | -16.237.784 | 181,2 | -10.259.556 | -20,5 | -35.267.044 | 292,4 |
| **GUZTIRA** | **29.130.468** | **100** | **-8.963.406** | **100** | **50.153.925** | **100** | **-12.060.052** | **100** |

## B. Ibilgetu Ukiezinean egindako Inbestimendua

Kontuan hartzean 2009-2010 epean antzemandako ibilgetu ukiezineko inbestimenduaren murrizketa, 2007-2008 epearekiko, egiaztatzen da orobat prozesuan duen garrantzia 2009-2010 epeko inbestimendu garbi negatiboak hirugarren sektore kooperatiboan. Hirugarren sektoreko Kooperatibak, adibidez, nabarmentzen dira epealdiko inbestimenduaren 4,2 milioi euroko galera garabiagatik, 2007-2008 artean inbestitutako 18,9 garbi positiboekin kontrastean. Galera hori ez du orekatzen zerbitzu-sektoreko Sozietate Laboralek egindako inbestimenduak (0,94 milioi euro sektoreko SAL eta SML guztien artean). Azken emaitza 3,3 milioi euroko galera da zerbitzu-sektorean 2009-2010 artean, hots, enplegu bakoitzeko 105 euroren baliokidea sektorean.

Inbestimenduak ibilgetu ukiezinean, ordea, mantentzeko joera du industria-arloan, inbestitutako 39,9 milioi eurorekin 2009-2010 artean, doi-doia 2007-2008 epeko 41,7 milioien %4,4 azpitik. Ukiezineko inbestimendu-ratioa 2009-2010 artean iristen da enplegu bakoitzeko 1.504 eurora industria-sektorean.

Industria-inbestimenduaren %97,8 Kooperatibek biltzen dute. Horiek %1,9 besterik ez dute gutxitu inbestimendua 2009-2010ean, Sozietate Laboral guztiei dagokien %55,4aren aurrez aurre. Inbestimendu-mota hori batez ere SMLei lotzen zaien testuinguruan, horiexek dira ukiezineko industria-inbestimenduan atzerakada handiena erakusten dutenak, 2007-2008 epeko SMLen industria-inbestimenduaren mailarekiko (%-67,9). Mailak gora egiten du, hain zuzen, SALen artean.

Ibilgetu ukiezineko inbestimendu-maila gainerako sektoreetan ia ez du garrantzi kuantitatiborik, doi-doia 42.306 eurora mugatzen dela lehen sektore eta eraikuntza guztirako 2009-2010 artean (2007-2008 artean 187.717).

**5.13 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN INBESTIMENDU UKIEZINEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**

**(z.a. euroan eta %b.)**

| | GUZTIRA | | S.KOOP. | | SAL | | SML | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 1.364 | 0,0 | 1.364 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| Industria | 39.868.598 | 108,8 | 39.001.350 | 112,0 | 323.620 | 41,5 | 543.628 | 52,6 |
| Eraikuntza | 40.942 | 0,1 | 35.323 | 0,1 | -10.218 | -1,3 | 15.838 | 1,5 |
| Zerbitzuak | -3.270.033 | -8,9 | -4.210.392 | -12,1 | 466.720 | 59,8 | 473.639 | 45,8 |
| **GUZTIRA** | **36.640.871** | **100** | **34.827.645** | **100** | **780.121** | **100** | **1.033.105** | **100** |

Kooperatiben inbestimendu ukiezina 2007-2008 epeko enplegu bakoitzeko 1.167 eurotik murrizten da enpleguko 722 eurora 2009-2010 artean. SMLen kasuan, ratioa 484 eurotik 236 eurora murrizten da 2008-2010 artean. Emendioa SALen kasuan baino ez da antzematen, baina abiatzen dela 2007-2008 arteko enplegu bakoitzeko 47,9 euroko maila minimotik, 106 euroak erdietsi arte 2009-2010 artean (hala ere, 2005-2006 epeko enplegu bakoitzeko 509,1 euroen oso azpitik).

Inbestimendua ukiezinean metatzen da Gipuzkoan, EAEko inbestimendu immaterialen %83,2 biltzen duen lurraldea 2009-2010 artean. Industria-sektoreari lotutako inbestimendua nabarmentzen da, 29,2 milioi euroko inbestimenduarekin 2009-2010 epean, Euskadi osoan antzemandakoaren %73,4. Gainera, Gipuzkoa da lurralde bakarra hirugarren sektoreko inbestimendu positiboduna epealdian (1,24 milioi euro). Hirugarren sektoreko desinbestimendua batez ere Bizkaiari dagokio, 42,2 milioi euroko inbestimendu garbi negatiboarekin, hots, lurralde horren eta Arabaren artean antzemandako galeraren %92,9.

Ondasun ukiezineko enplegu bakoitzeko inbestimendu-ratioei dagokienez 2010ean, lurralde-datuek erakusten dute enplegu bakoitzeko 1.044 euroko inbestimendua Gipuzkoan, 2007-2008 epean antzemandakoaren antzeko maila; 839 euro Araban, 2007-2008 epeko 2.143 eurotatik oso urrun; eta inbestimendu-maila minimoarekin Bizkaian 28,4 eurorekin, 2007-2008 epeko enpleguko 585,5 euroen nabarmen azpitik.

**5.14 taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN INBESTIMENDU UKIEZINEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2010 (z.a. euroan eta %b.)**

| | EAE | | ARABA | | GIPUZKOA | | BIZKAIA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. | z.a. | %b. |
| Lehen sektorea | 1.364 | 0,0 | 0 | 0,0 | 1.364 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| Industria | 39.868.598 | 108,8 | 5.857.386 | 105,7 | 29.245.538 | 95,9 | 4.765.674 | 792,9 |
| Eraikuntza | 40.942 | 0,1 | 3.515 | 0,1 | 13.395 | 0,0 | 24.032 | 4,0 |
| Zerbitzuak | -3.270.033 | -8,9 | -321.951 | -5,8 | 1.240.610 | 4,1 | -4.188.692 | -696,9 |
| **GUZTIRA** | **36.640.871** | **100** | **5.538.950** | **100** | **30.500.907** | **100** | **601.014** | **100** |

## C. Herri-Administrazioen Finantziazioa

Kapituluko azken epigrafe gisa aurkezten da Administrazio Publikoen bidez Gizarte-Ekonomiara bideratuko laguntza ekonomikoaren mailari dagokion azterketa laburra.

Arreta dirulaguntzetan jarrita, finantza-ikuspegitik enpresentzat funtsezko bi sarrera-iturri daude Administrazio Publikoen dirulaguntzetatik datozenak. Lehenengo bideak Dirulaguntza, Dohaintza eta Kapital legatuekin du zerikusia. Kontabilitatearen ikuspegitik, dirulaguntza horiek diru-sarreren 74 zenbakiko partidan daude adierazita, Kontabilitate Plan berrian Ohiko Dirulaguntzen kontua ordezkatuz. Sail horrek islatzen du Herri-Administrazioek Gizarte-Ekonomiari emandako laguntza, alorreko enpresen ohiko jarduera finantzatzera bideratutako laguntzen bidez.

2010 urtean dirulaguntzen kopurua guztira 315 milioi eurokoa izan da, nominalki 2008arekiko %11,7 gehiago. Bilakaera horrek sendotu egiten du azken urteetan antzemandako goranzko joera, %19,9ko hazkundearekin 2004-2006 biurtekoan[11] eta %25,8rekin 2006-2008 artean.

Arloz arlo, sail horren kopuruan edo banaketan ohi denez, bideratzeak hirugarren sektorearen aldeko joera nabarmena du, dirulaguntzen %84,0 zerbitzu-sektoreko enpresei bideratzen zaiela, 2008ko 85,1aren antzeko ehunekoa. Industriak jasotzen du ekarpenen %15,5 2010ean.

Dirulaguntzak zerbitzu-sektorera bideratzea loturik dago Herri-Administrazioak oinarrizko zerbitzu publikoen eskaintzarekin zerikusia duten jarduera-adarretan egin ohi dituen ohiko transferentziekin, batez ere hezkuntzan eta arlo sozio-sanitarioan.

[11] 2006. urtearekin alderatu ahal izateko, argitaraldi horretako 74 eta 775 kontuei loturiko magnitudeak agregatu dira. Kontabilitate Plan berrian bi Partidak 74 zenbakiko kontuan sartu dira.

Gizarte-Ekonomiaren enpresei laguntzeko bigarren bidea da Balantzaren pasiboan, Kapitaleko Dirulaguntza Ofizialak (130), metatzen diren ibilgetuan egin beharreko inbestimenduetarako fluxu ekonomikoekin lotzen dena. Horiek urtero ekitaldiaren emaitzara pasatzen dira zehaztutako amortizazioaren periodifikazioaren arabera (Diru-Sarreren 746 Kontua, Mozkinak eta Galerak jasotzen dituena eta, hortaz, 74 kontuaren barrukoa). Sail horrek islatzen du enpresen inbestimenduen finantzatzera bideratutako dirulaguntzen eragina, enpresa-etekinaren kuantifikaziora zuzenean lotuta geratzen direla.

Datuek 2009-2010 epean islatzen dute 130 kontuaren 15,2 milioi euroko hazkundea, hots, epealdi horretan egindako inbestimendu garbi osoaren %23,1. Kopuru horrek nabarmen gainditzen ditu aurreko epealdietan antzemandako hazkunde-mailak (2007-2008ko ekitaldien artean %6,1; 2005-2006 artean %7,4; eta 2003-2004 artean %4,0).

**5.15 taula**

**KAPITALEKO DIRULAGUNTZA OFIZIALEN HAZKUNDEAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA**

| | Inbestimenduak (Materiala + Immateriala)[12] | Kapitaleko Dirulaguntza Ofizialen hazkundea[13] | |
|---|---|---|---|
| | | z.a. | % |
| Industria | 92.724.529 | 13.435.058 | 14,5 |
| Eraikuntza | 113.960.561 | 11.256.151 | 9,9 |
| Zerbitzuak | **207.570.467** | **24.877.201** | **12,0** |
| **GUZTIRA*** | 92.724.529 | 13.435.058 | 14,5 |

*Lehen sektoreari buruzko datuak barne daude

2010 urtean ohiko diru-sarrera gisa sartutako hornikuntzari dagokionez, Dirulaguntza, Dohaintza eta Kapital legatuen barruan sartutako kopurua, ekitaldiaren emaitzei transferituak (746 Kontua), kopuru hori guztira 24,9 milioi eurokoa da. Hori %5,4ko galera da 2008ko ekitaldiko emaitzetara aldatutako kapitaleko dirulaguntzen mailarekiko. Hala ere, emaitzetara aldatutako kapitaleko dirulaguntzen kopurua 2010eko ekitaldiko etekinen %12,0 da, 2008ko %7,4aren eta 2006ko %4,2aren garbiro gainetik. Sendotu egiten da, beraz, 2006tik aurrera antzemandako goranzko joera, 2004ko %7,2arekiko urte horretan antzemandako murrizketaren ondoren[14].

**5.16 taula**

**2008ko EKITALDIAREN EMAITZARI TRANSFERITUTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA KAPITAL LEGATUEN EGITURA SEKTORIALA (746). 2010**

| | Mozkinak | Emaitzei Transferitutako Kapitaleko Dirulaguntzak | |
|---|---|---|---|
| | | z.a. | % |
| Industria | 92.724.529 | 13.435.058 | 14,5 |
| Zerbitzuak | 113.960.561 | 11.256.151 | 9,9 |
| **GUZTIRA** | **207.570.467** | **24.877.201** | **12,0** |

---

12 2.1. (Ibilgetu immateriala) eta 2.2. (Ibilgetu materiala) Kontuen hazkundea 2009arekiko.

13 130 Kontuaren hazkundea 2009arekiko.

14 Hala eta guztiz ere, komenigarria da adieraztea 2004 eta 2006 arteko jaitsiera neurri handi batean loturik zegoela 2006an Gizarte-Ekonomiaren enpresen emaitzetan izandako hazkunde handiarekin. Era berean, azkenaldian eman den gorakadak kontuan hartu behar du Gizarte-Ekonomiaren emaitzen beheranzko joera handia izan zela 2008ko ekitalditik aurrera.

# I. ERANSKINA

# EMAITZEN KONTUAK FORMA JURIDIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

**1.- taula**

**KOOPERATIBEN EMAITZEN KONTUAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010**

**(z.a. Euroan) (Ohiko prezioak)**

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | | |
| 70 Salmenta garbiak | 7.804.063.849 | 12.249.482 | 3.944.557.145 | 136.757.227 | 3.710.499.994 |
| 71 Izakinen aldaketa | 70.779.953 | 112.158 | 70.369.452 | 542.035 | -243.692 |
| 73 Ibilgeturako egindako lanak | 29.347.728 | 0 | 28.390.699 | 0 | 957.029 |
| 74 Ustiapeneko dirulaguntzak | 288.952.300 | 2.143.236 | 36.357.445 | 67.227 | 250.384.392 |
| 75 Diru-sarrera osagarriak | 380.920.988 | 200.572 | 123.191.727 | 812.104 | 256.716.587 |
| 76 Finantza-sarrerak | 144.148.418 | 14.846 | 71.492.976 | 529.511 | 72.111.085 |
| 77 Ezohiko diru-sarrerak | 140.014.093 | 461.046 | 19.098.284 | 568.609 | 119.886.154 |
| 79 Gehiegizko hornidura | 54.054.548 | 8.715 | 36.173.689 | 29.072 | 17.843.072 |
| | 8.912.281.878 | 15.190.055 | 4.329.631.416 | 139.305.785 | 4.428.154.622 |
| **GASTUAK** | | | | | |
| 60 Erosketa garbiak | 4.729.858.180 | 5.888.533 | 2.258.673.148 | 80.278.470 | 2.385.018.029 |
| 61 Izakinen aldaketa | 24.315.995 | 72.725 | -8.438.131 | 120.891 | 32.560.510 |
| 62 Kanpoko zerbitzuak | 1.054.499.583 | 3.142.546 | 637.411.594 | 14.571.991 | 399.373.452 |
| 63 Jarduerari lotutako zergak | 12.734.582 | -1.482 | 6.298.820 | 467.337 | 5.969.907 |
| 64 Pertsonal-gastuak | 1.766.153.770 | 4.028.019 | 855.546.571 | 37.376.807 | 869.202.374 |
| 65 Kudeaketa-gastuak | 146.035.771 | 141.518 | 51.471.662 | 492.686 | 93.929.905 |
| 66 Finantza-gastuak | 219.949.600 | 288.487 | 107.387.993 | 1.737.704 | 110.535.416 |
| 67 Ezohiko gastuak | 25.532.735 | 211 | 10.416.926 | 440.555 | 14.675.043 |
| 68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura | 333.686.962 | 1.386.460 | 223.229.849 | 1.395.839 | 107.674.814 |
| 69 Hornidura-zuzkidurak | 386.694.413 | 59.775 | 86.096.858 | 329.073 | 300.208.707 |
| | 8.699.461.591 | 15.006.793 | 4.228.095.290 | 137.211.352 | 4.319.148.156 |
| **MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)** | **212.820.287** | **183.262** | **101.536.126** | **2.094.433** | **109.006.466** |
| | | | | | |
| **CASH FLOW** | **933.201.663** | **1.629.497** | **410.862.834** | **3.819.344** | **516.889.987** |

**2.- taula**

**SAL SOZIETATEEN EMAITZEN KONTUAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010**

**(z.a. Euroan) (Ohiko prezioak)**

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | | |
| 70 Salmenta garbiak | 495.805.487 | 0 | 305.495.397 | 30.562.296 | 159.747.794 |
| 71 Izakinen aldaketa | 2.176.840 | 0 | 1.892.934 | 139.561 | 144.345 |
| 73 Ibilgeturako egindako lanak | 443.809 | 0 | 256.171 | 82.813 | 104.825 |
| 74 Ustiapeneko dirulaguntzak | 8.066.579 | 0 | 3.783.494 | 13.882 | 4.269.204 |
| 75 Diru-sarrera osagarriak | 1.199.601 | 0 | 608.139 | 21.847 | 569.614 |
| 76 Finantza-sarrerak | 1.102.101 | 0 | 861.924 | 104.478 | 135.699 |
| 77 Ezohiko diru-sarrerak | 2.176.831 | 0 | 1.664.295 | 67.059 | 445.477 |
| 79 Gehiegizko hornidura | 4.427.002 | 0 | 4.115.678 | 12.475 | 298.849 |
| | 515.398.251 | 0 | 318.678.032 | 31.004.411 | 165.715.807 |
| **GASTUAK** | | | | | |
| 60 Erosketa garbiak | 202.154.569 | 0 | 145.824.879 | 17.990.647 | 38.339.043 |
| 61 Izakinen aldaketa | -2.469.997 | 0 | -2.136.057 | -550.135 | 216.194 |
| 62 Kanpoko zerbitzuak | 64.387.371 | 0 | 45.852.163 | 1.884.704 | 16.650.503 |
| 63 Jarduerari lotutako zergak | 1.637.612 | 0 | 165.723 | 438.351 | 1.033.538 |
| 64 Pertsonal-gastuak | 222.008.942 | 0 | 113.445.703 | 9.550.696 | 99.012.542 |
| 65 Kudeaketa-gastuak | 2.222.514 | 0 | 1.897.585 | 232.622 | 92.308 |
| 66 Finantza-gastuak | 4.044.266 | 0 | 3.099.858 | 257.041 | 687.367 |
| 67 Ezohiko gastuak | 1.514.331 | 0 | 683.633 | 449.166 | 381.532 |
| 68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura | 19.784.459 | 0 | 16.252.255 | 502.996 | 3.029.207 |
| 69 Hornidura-zuzkidurak | 3.524.834 | 0 | 2.109.027 | 748.837 | 666.970 |
| | 518.808.900 | 0 | 327.194.769 | 31.504.926 | 160.109.205 |
| **MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)** | **-3.410.649** | **0** | **-8.516.737** | **-500.515** | **5.606.602** |
| | | | | | |
| **CASH FLOW** | **19.898.643** | **0** | **9.844.546** | **751.318** | **9.302.779** |

## 3.- taula

## SML SOZIETATEEN EMAITZEN KONTUAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010

(z.a. Euroan) (Ohiko prezioak)

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | | |
| 70 Salmenta garbiak | 263.406.103 | 530.330 | 119.593.625 | 33.748.809 | 109.533.339 |
| 71 Izakinen aldaketa | 4.718.412 | 0 | 4.311.329 | -34.643 | 441.726 |
| 73 Ibilgeturako egindako lanak | 88.824 | 0 | 0 | 8.297 | 80.527 |
| 74 Ustiapeneko dirulaguntzak | 12.983.499 | 126.210 | 8.580.562 | 161.981 | 4.114.747 |
| 75 Diru-sarrera osagarriak | 740.470 | 17.075 | 488.710 | 30.865 | 203.820 |
| 76 Finantza-sarrerak | 378.333 | 380 | 191.203 | 7.173 | 179.577 |
| 77 Ezohiko diru-sarrerak | 2.715.131 | 11.100 | 1.291.223 | 246.704 | 1.166.104 |
| 79 Gehiegizko hornidura | 274.291 | 0 | 181.564 | 38.898 | 53.829 |
| | 285.305.063 | 685.095 | 134.638.215 | 34.208.084 | 115.773.670 |
| **GASTUAK** | | | | | |
| 60 Erosketa garbiak | 116.433.086 | 202.280 | 53.608.674 | 13.993.330 | 48.628.802 |
| 61 Izakinen aldaketa | -2.856.002 | 7.965 | -1.076.299 | -315.632 | -1.472.036 |
| 62 Kanpoko zerbitzuak | 43.812.620 | 129.100 | 17.411.068 | 5.042.967 | 21.229.485 |
| 63 Jarduerari lotutako zergak | 1.379.845 | 2.155 | 820.595 | 74.943 | 482.153 |
| 64 Pertsonal-gastuak | 114.847.971 | 340.150 | 57.375.069 | 14.928.632 | 42.204.120 |
| 65 Kudeaketa-gastuak | 1.541.165 | 17.750 | 590.536 | 143.957 | 788.922 |
| 66 Finantza-gastuak | 2.783.970 | 18.000 | 1.567.135 | 262.244 | 936.591 |
| 67 Ezohiko gastuak | 568.746 | 0 | 73.436 | 28.363 | 466.948 |
| 68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura | 8.143.906 | 243.560 | 4.395.800 | 658.378 | 2.846.168 |
| 69 Hornidura-zuzkidurak | 488.926 | 0 | 167.062 | 6.840 | 315.024 |
| | 287.144.234 | 960.960 | 134.933.075 | 34.824.022 | 116.426.177 |
| **MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)** | **-1.839.171** | **-275.865** | **-294.860** | **-615.938** | **-652.507** |
| | | | | | |
| **CASH FLOW** | **6.793.661** | **-32.305** | **4.268.002** | **49.280** | **2.508.684** |

## 4.- taula

## GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN KONTUA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010. ARABA

(z.a. Euroan) (Ohiko prezioak)

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | | |
| 70 Salmenta garbiak | 1.041.286.195 | 8.763.744 | 344.905.791 | 31.390.220 | 656.226.439 |
| 71 Izakinen aldaketa | 7.889.120 | 106.626 | 7.643.463 | -76.991 | 216.022 |
| 73 Ibilgeturako egindako lanak | 1.868.551 | 0 | 1.751.799 | 8.520 | 108.232 |
| 74 Ustiapeneko dirulaguntzak | 31.494.381 | 1.614.949 | 4.483.564 | 1.911 | 25.393.957 |
| 75 Diru-sarrera osagarriak | 53.503.076 | 5.974 | 4.523.031 | 166.885 | 48.807.186 |
| 76 Finantza-sarrerak | 18.653.980 | 13.247 | 4.597.845 | 35.643 | 14.007.244 |
| 77 Ezohiko diru-sarrerak | 27.875.137 | 450.206 | 3.635.122 | 142.570 | 23.647.240 |
| 79 Gehiegizko hornidura | 6.826.609 | 0 | 3.817.209 | 27.820 | 2.981.579 |
| | 1.189.397.049 | 10.954.746 | 375.357.824 | 31.696.579 | 771.387.901 |
| **GASTUAK** | | | | | |
| 60 Erosketa garbiak | 624.241.432 | 4.190.710 | 183.087.520 | 14.784.249 | 422.178.953 |
| 61 Izakinen aldaketa | 5.949.206 | 2.169 | 278.817 | -179.983 | 5.848.202 |
| 62 Kanpoko zerbitzuak | 128.140.951 | 2.639.880 | 51.056.289 | 4.812.886 | 69.631.897 |
| 63 Jarduerari lotutako zergak | 1.309.916 | 5.151 | 261.544 | 111.005 | 932.215 |
| 64 Pertsonal-gastuak | 245.780.140 | 2.430.559 | 95.365.910 | 11.315.075 | 136.668.596 |
| 65 Kudeaketa-gastuak | 20.049.600 | 36.404 | 3.954.937 | 10.622 | 16.047.637 |
| 66 Finantza-gastuak | 29.668.027 | 221.319 | 7.924.199 | 485.994 | 21.036.516 |
| 67 Ezohiko gastuak | 3.469.590 | 0 | 1.753.072 | 11.839 | 1.704.679 |
| 68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura | 34.916.361 | 1.144.097 | 15.529.754 | 246.737 | 17.995.772 |
| 69 Hornidura-zuzkidurak | 61.723.478 | 22.047 | 4.836.121 | 151.840 | 56.713.470 |
| | 1.155.248.702 | 10.692.337 | 364.048.164 | 31.750.265 | 748.757.937 |
| **MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)** | **34.148.347** | **262.409** | **11.309.660** | **-53.686** | **22.629.964** |
| | | | | | |
| **CASH FLOW** | **127.223.330** | **1.428.554** | **31.675.536** | **344.892** | **93.774.349** |

**5.- taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN KONTUA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA.**

**2010. BIZKAIA**

**(z.a. Euroan) (Ohiko prezioak)**

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | | |
| 70 Salmenta garbiak | 3.078.071.666 | 3.419.645 | 1.038.090.902 | 102.776.370 | 1.933.784.750 |
| 71 Izakinen aldaketa | 32.425.741 | 5.532 | 31.515.171 | 802.318 | 102.720 |
| 73 Ibilgeturako egindako lanak | 5.770.399 | 0 | 5.091.837 | 8.297 | 670.265 |
| 74 Ustiapeneko dirulaguntzak | 125.258.321 | 392.478 | 8.918.302 | 105.652 | 115.841.889 |
| 75 Diru-sarrera osagarriak | 156.982.954 | 74.004 | 21.229.069 | 481.692 | 135.198.188 |
| 76 Finantza-sarrerak | 45.931.201 | 1.224 | 8.936.102 | 401.863 | 36.592.013 |
| 77 Ezohiko diru-sarrerak | 69.436.775 | 14.222 | 2.867.258 | 224.310 | 66.330.985 |
| 79 Gehiegizko hornidura | 34.975.600 | 8.715 | 23.516.342 | 12.921 | 11.437.622 |
| | 3.548.852.657 | 3.915.820 | 1.140.164.982 | 104.813.423 | 2.299.958.432 |
| **GASTUAK** | | | | | |
| 60 Erosketa garbiak | 1.890.708.447 | 1.554.637 | 592.727.261 | 59.874.731 | 1.236.551.817 |
| 61 Izakinen aldaketa | 16.293.645 | 63.462 | 2.855.363 | -365.652 | 13.740.472 |
| 62 Kanpoko zerbitzuak | 370.383.551 | 457.813 | 147.506.963 | 11.184.260 | 211.234.515 |
| 63 Jarduerari lotutako zergak | 5.843.778 | -5.340 | 1.311.788 | 421.535 | 4.115.795 |
| 64 Pertsonal-gastuak | 763.961.800 | 1.598.353 | 265.938.698 | 29.614.690 | 466.810.059 |
| 65 Kudeaketa-gastuak | 53.347.449 | 115.764 | 14.301.862 | 369.532 | 38.560.292 |
| 66 Finantza-gastuak | 75.028.245 | 77.953 | 16.516.503 | 1.263.832 | 57.169.957 |
| 67 Ezohiko gastuak | 7.703.833 | 0 | 1.744.456 | 14.949 | 5.944.428 |
| 68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura | 97.187.863 | 382.369 | 42.701.342 | 1.284.984 | 52.819.168 |
| 69 Hornidura-zuzkidurak | 179.152.347 | 37.728 | 25.019.903 | 122.237 | 153.972.478 |
| | 3.459.610.960 | 4.282.740 | 1.110.624.141 | 103.785.098 | 2.240.918.982 |
| **MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)** | **89.241.697** | **-366.919** | **29.540.841** | **1.028.325** | **59.039.451** |
| | | | | | |
| **CASH FLOW** | **355.991.734** | **53.177** | **97.262.087** | **2.435.546** | **256.240.923** |

**6.- taula**

**GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN KONTUA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA.**

**2010. GIPUZKOA**

**(z.a. Euroan) (Ohiko prezioak)**

| | GUZTIRA | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| **DIRU-SARRERAK** | | | | | |
| 70 Salmenta garbiak | 4.443.917.578 | 596.424 | 2.986.649.473 | 66.901.742 | 1.389.769.939 |
| 71 Izakinen aldaketa | 37.360.344 | 0 | 37.415.082 | -78.374 | 23.637 |
| 73 Ibilgeturako egindako lanak | 22.241.411 | 0 | 21.803.234 | 74.293 | 363.884 |
| 74 Ustiapeneko dirulaguntzak | 153.249.676 | 262.020 | 35.319.635 | 135.526 | 117.532.496 |
| 75 Diru-sarrera osagarriak | 172.375.030 | 137.669 | 98.536.476 | 216.239 | 73.484.647 |
| 76 Finantza-sarrerak | 81.043.671 | 754 | 59.012.156 | 203.657 | 21.827.103 |
| 77 Ezohiko diru-sarrerak | 47.594.143 | 7.718 | 15.551.423 | 515.492 | 31.519.510 |
| 79 Gehiegizko hornidura | 16.953.632 | 0 | 13.137.380 | 39.703 | 3.776.549 |
| | 4.974.735.486 | 1.004.584 | 3.267.424.857 | 68.008.278 | 1.638.297.766 |
| **GASTUAK** | | | | | |
| 60 Erosketa garbiak | 2.533.495.955 | 345.465 | 1.682.291.920 | 37.603.467 | 813.255.103 |
| 61 Izakinen aldaketa | -3.252.856 | 15.059 | -14.784.666 | -199.241 | 11.715.993 |
| 62 Kanpoko zerbitzuak | 664.175.071 | 173.953 | 502.111.573 | 5.502.516 | 156.387.028 |
| 63 Jarduerari lotutako zergak | 8.598.345 | 862 | 5.711.804 | 448.090 | 2.437.589 |
| 64 Pertsonal-gastuak | 1.093.268.743 | 339.258 | 665.062.734 | 20.926.371 | 406.940.381 |
| 65 Kudeaketa-gastuak | 76.402.401 | 7.100 | 35.702.983 | 489.112 | 40.203.206 |
| 66 Finantza-gastuak | 122.081.563 | 7.215 | 87.614.283 | 507.163 | 33.952.901 |
| 67 Ezohiko gastuak | 16.442.389 | 211 | 7.676.466 | 891.295 | 7.874.417 |
| 68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura | 229.511.103 | 103.554 | 185.646.808 | 1.025.492 | 42.735.249 |
| 69 Hornidura-zuzkidurak | 149.832.348 | 0 | 58.516.923 | 810.672 | 90.504.753 |
| | 4.890.555.063 | 992.677 | 3.215.550.829 | 68.004.938 | 1.606.006.620 |
| **MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)** | **84.180.423** | **11.908** | **51.874.028** | **3.341** | **32.291.146** |
| | | | | | |
| **CASH FLOW** | **476.678.904** | **115.461** | **296.037.759** | **1.839.505** | **178.686.178** |

# II. ERANSKINA

# ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNAK ETA JARDUERA MODERNIZATZAILEAK

## SARRERA

Eranskin honetan zenbait enpresa-estrategia aztertuko dira, Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen kudeaketaren eta antolaketaren profesionalizazioarekin zerikusia dutenak.

Testuinguru horretan, aztertu egingo dira Gizarte-Ekonomiaren arkitektura osatzen duten erakundeen zenbait aldagai garrantzitsu, hala nola, enpresa-plangintzan ohikoak diren enpresetan inplementatutako edo erabilitako kudeaketa-tresna ezberdinak (Plan Estrategikoak, Kudeaketa-Planak, etc.); enpresa-jardueran ingurumenaren alorrean gauzatutako neurriak eta politikak; beste enpresa batzuekin egindako itunak eta sinatutako akordioak edo laneko arriskuei aurre egiteko sistemen ezarpena.

Zuzenean kuantifikatu ahal den eragin ekonomikorik ez duten faktoreak izan arren, garrantzitsuak dira, epe ertain eta luzera begira, Gizarte-Ekonomiaren lehiakortasuna ziurtatzeko berebizikoak diren enpresa-jardueraren estrategiak gauzatzeko

2010eko Gizarte-Ekonomiaren Estatistikaren txosten orokorraren atal nagusian ez bezala, segidan aurkeztuko diren datuek ez dute bilakaeraren araberako azterketaren berri emango. Informaziora egindako hurbilpena logika kualitatiboarekin dago loturik, eta enpresen analisia egitea du ardatz. Hori dela eta ez du aukerarik ematen zentzu zorrotz batean ez erantzunaren inputazio prozesua egiteko, eranskin kualitatiboa bete duten enpresekiko datuak baino ez direla aztertzen Eranskinean.[15] Hortaz, ez dago maila agregatuan aurreko ekitaldietan lortutako emaitzekin konparazio zorrotza egiterik. Datuek aldaketa kualitatibo garrantzitsuak islatzen dituztenean, ordea, izan litezkeen aldaketa horiei dagozkien zenbait alderdi berezi aipatzen dira.

## 1.- KUDEAKETARAKO TRESNAK

Eranskinean kontuan hartu beharreko lehen alderdia da kudeaketarako tresnak zein neurritan inplementatu diren enpresetan. Hurrengo hiru alorrei lotutako agiri estrategiko eta operatiboak aztertzen dira:

- Enpresen analisia eta planifikazioa, epe motzera (Kudeaketa-Plana) eta luzera (Plan Estrategikoa) begira.
- Giza Baliabideen planifikazioa (Prestakuntza-Plana eta Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua)
- Barne-Erregimeneko Araudia.

[15] Eranskinean aurkezten diren datu guztiek muga hori kontuan hartu behar dute. Zentzu horretan, Kontu Ekonomikoen azterketa orokorrari atxikitako Eranskin kualitatiboa bete duen enpresa-multzoari dagozkio, hots, guztira 989 enpresari.

Azalpen hori kontuan hartuta, egiaztatzen da 2010ean Prestakuntza-Plana dela kudeaketa-tresna hedatuena enpresetan. Ezarri duten enpresen proportzioa %47,3koa da.

Ondoren Barne-erregimeneko Araudia dator, enpresen %37,4 kudeaketa-tresna horrekin ohikotasunez ari dela lanean. Enpresen antzeko kopuru batek enpresaren eguneroko tresna gisa Kudeaketa-Plana du (%34,1). Inplementazio-mailari dagokionez, Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuak enpresen %24,8k erabiltzen du

Inplementazio-maila txikiena duen tresna, enpresa-dimentsio eta estrategia-logika handinahiei lotuta dago, hots, Plan Estrategikoa. Erantzun duten enpresen artean, soilik %26,5ek du Plan Estrategikoa, enpresaren datozen urteetako jarduera-ildoa jasotzen duena.

Kooperatibak nabarmentzen dira aztertutako kudeaketa- eta plangintza-tresnen erabilera-maila handiagoagatik, haien %55-45ek artean Kudeaketa-Plana, Prestakuntza-Plana eta Barne-Erregimeneko Araudia duela eta %36,0k, aldiz, Plan Estrategikoa. Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua da gutxien ezarritako tresna, enpresen %32,9k duela.

Sozietate Laboralen kasuan, oinarrizko tresnetarako sarbide-maila txikiagoa ikusten da, adibidez, Prestakuntza-Plana (%43ko eraginarekin SALen kasuan eta %36,0rekin SMLetan), eta SALen kasuan, Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua (%28,9ko gehitze-mailarekin). SALen %25,4k orobat Kudeaketa-Plana du.

**ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNEN ERABILERA. 2010**
**(Kudeaketarako tresnak dituzten enpresen %)**

| | GUZTIRA | S.KOOP. | SAL | SML |
|---|---|---|---|---|
| Barne-Erregimeneko Araudia | 37,4 | 53,0 | 17,6 | 15,8 |
| Kudeaketa-Plana | 34,1 | 45,4 | 25,4 | 15,5 |
| Prestakuntza-Plana | 47,3 | 53,9 | 43,0 | 36,0 |
| Plan Estrategikoa | 26,5 | 36,0 | 17,6 | 11,5 |
| Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua | 28,4 | 32,9 | 28,9 | 19,1 |

Kudeaketa-tresnen erabilera-maila ezberdinak antzematen dira forma juridikoaren eta batez besteko langile-kopuruaren arabera. Parametro esplikatzaile nabarmenena, aztertutako kudeaketa-tresnen erabilera-maila ulertzeko, enpresen tamaina da.

6 eta 15 langile bitarteko enpresen artean, aztertutako tresnen ezartze-maila txiki samarra da. Plan Estrategikoaz eta Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuaz den bezainbatean, ezartze eza %80ren inguruan kokatzen da. Bost enplegu baino gutxiagoko enpresetan, ehuneko horren kopurua 85 eta 90 arteraino goititzen da.

Tamaina txikiagoko enpresa-mota horietan, erabilera-maila handieneko tresnak dira Barne-Erregimeneko Araudia (6 enplegu baino gutxiagoko enpresatan %21,4; eta 6 eta 15 bitarteko enpresatan %32,1) eta Prestakuntza-Plana (%32,3 eta 46,6; hurrenez hurren). 6 eta 15 enplegu bitarteko erakundeetan aipagarri da orobat Kudeaketa-Plana duen %31,6a.

16 eta 50 langile bitarteko enpresatan, aztertutako tresnen ezarpena oro har %50-65 artean kokatzen da, Plan Estrategikoarena izan ezik, enpresen %46,9k sartu baitu tresna hori. Prestakuntza-Plana kudeaketa-tresna hedatuagoa da (%67,3), ondoren Barne-Erregimeneko Araudia doala (%61,2).

50 enplegu baino gehiagoko erakundeetan, mota horretako tresnetarako sarbidea oso hedatua dago. Aztertutako kudeaketa-tresnetarako sarbidea duen enpresen ehunekoak 80a erdietsi edo gainditzen du ia beti, Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuaz den bezainbatean izan ezik. 51 eta 200 enplegu bitarteko enpresetan, tresna horren ezartze-maila %60-70 artean kokatzen da.

**ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNEN ERABILERA, ENPRESA TAMAINAREN ARABERA. 2010**
**(Kudeaketarako tresnak dituzten enpresen %)**

| | GUZTIRA % | 6 enplegu baino gutxiago % | 6 - 15 % | 16 - 50 % | 51 - 100 % | 101 - 200 % | 201 500 % | 500 enplegutik gora % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne-Erregimeneko Araudia | 37,4 | 21,4 | 32,1 | 61,2 | 80,9 | 95,5 | 100,0 | 91,7 |
| Kudeaketa-Plana | 34,1 | 15,2 | 31,6 | 59,9 | 85,1 | 90,9 | 89,5 | 91,7 |
| Prestakuntza-Plana | 47,3 | 32,3 | 46,6 | 67,3 | 87,2 | 86,4 | 100,0 | 100,0 |
| Plan Estrategikoa | 26,5 | 10,7 | 20,5 | 46,9 | 83,0 | 86,4 | 84,2 | 91,7 |
| Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua | 28,4 | 15,2 | 21,8 | 52,4 | 61,7 | 68,2 | 84,2 | 91,7 |

**ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNEN ERABILERA, ENPRESAREN TAMAINAREN ETA IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**
**(Kudeaketarako tresnak dituzten enpresen %)**

| S. Koop. | 5 enplegu bitarte | 6 - 15 | 16 - 50 | 51 - 100 | 101 - 200 | 201 500 | 500 enplegutik gora |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne-Erregimeneko Araudia | 33,3 | 42,4 | 75 | 79,1 | 95,0 | 100,0 | 92,3 |
| Kudeaketa-Plana | 23,1 | 36,4 | 65,4 | 86,0 | 95,0 | 88,9 | 92,3 |
| Prestakuntza-Plana | 34,6 | 46,6 | 71,2 | 86,0 | 85,0 | 100,0 | 100,0 |
| Plan Estrategikoa | 15,8 | 22,9 | 50,0 | 86,0 | 90,0 | 83,3 | 92,3 |
| Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua | 14,1 | 17,8 | 55,8 | 60,5 | 75,0 | 83,3 | 92,3 |

| SAL | 5 enplegu bitarte | 6 - 15 | 16 - 50 | 51 - 100 | 101 - 200 | 201 500 | 500 enplegutik gora |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne-Erregimeneko Araudia | 5,6 | 17,3 | 30,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 |
| Kudeaketa-Plana | 7,4 | 23,1 | 53,3 | 100,0 | 50,0 | 0,0 | 100,0 |
| Prestakuntza-Plana | 29,6 | 44,2 | 60,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 |
| Plan Estrategikoa | 1,9 | 15,4 | 43,3 | 100,0 | 50,0 | 0,0 | 100,0 |
| Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua | 20,4 | 28,8 | 40,0 | 100,0 | 50,0 | 0,0 | 100,0 |

| SML | 5 enplegu bitarte | 6 - 15 | 16 - 50 | 51 - 100 | 101 - 200 | 201 500 | 500 enplegutik gora |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne-Erregimeneko Araudia | 10,9 | 24,6 | 23,1 | 100,0 | 100,0 | 0,0 | 0,0 |
| Kudeaketa-Plana | 8,3 | 30,8 | 30,8 | 50,0 | 100,0 | 0,0 | 0,0 |
| Prestakuntza-Plana | 30,1 | 49,2 | 53,8 | 100,0 | 100,0 | 0,0 | 0,0 |
| Plan Estrategikoa | 7,3 | 20,0 | 30,8 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 0,0 |
| Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua | 15,0 | 24,6 | 53,8 | 50,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |

Tresna horietakoren bat ez duten enpresek etorkizunean ezartzeko aukerari dagokionez, antzematen da enpresen %9,2k aurreikusten duela agiri estrategiko edo operatiboren bat enpresaren ohiko jardunean sartzea datozen bi urteotan.

Mota horretako enpresetan, Plan Estrategikoa da ezartzerako joera gehien duen tresna, tresnetakoren bat ez duen enpresen %35,2k izendatzen duela. Gainerako tresnak ezartzeko aukerak, ordea, txikiagoak dira: %27,5 Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuari dagokionez, %24,2 Kudeaketa-Planaren kasuan, %23,1 Prestakuntza-Planaz den bezainbatean, eta %19,8 Barne-Erregimeneko Araudiari dagokionez.

Tamaina ere aldagai berezitzailea da kudeaketa-tresnen etorkizuneko ezartze-mailan. 6 enplegu baino gutxiagoko enpresen artean nabarmentzen da Kudeaketa-Planen (%45,2) eta Plan Estrategikoen (%35,2) ahalezko eranstea; 6 eta 15 enplegu bitarteko enpresen artean nabarmena da Prestakuntza-Planaren konparaziozko pisua (%33,3); eta 16 eta 50 enplegu bitarteko enpresetan agertzen dira hala Plan Estrategikoa (%40,9) nola Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua (%31,8). Erakunde handien eremuan, 100 enplegu baino gehiagorekin, Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuak du eskari gehien.

**KUDEAKETARAKO TRESNAK EZARTZEKO JOERA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA**
**2010**

| | GUZTIRA % | 6 enplegu baino gutxiago % | 6 - 15 % | 16 - 50 % | 51 - 100 % | 101 - 200 % | 201 500 % | 500 enplegutik gora % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barne-Erregimeneko Araudia | 19,8 | 22,6 | 20,8 | 13,6 | 33,3 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Kudeaketa-Plana | 24,2 | 45,2 | 25,0 | 9,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Prestakuntza-Plana | 23,1 | 16,1 | 33,3 | 22,7 | 11,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Plan Estrategikoa | 35,2 | 41,9 | 25,0 | 40,9 | 22,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua | 27,5 | 16,1 | 25,0 | 31,8 | 44,4 | 100,0 | 0,0 | 0,0 |

Oinarria: horrelako tresnarik ez duten enpresak, baina datozen bi urteotan agiriak/tresnak erabiltzea aurreikusita dutenak

## 2.- KUDEAKETARI LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK

Enpresa-kudeaketaren ohiko prozesuan garrantzitsuak diren zenbait ekintzarekin zerikusia duten bigarren motako jarduerak ere badira, hala nola enpresek laneko arriskuei aurre egiteko sistemak ezarri dituztenentz, ingurumenaren kudeaketarako jarduerak egiten dituztenentz eta prestakuntza-prozesuak gauzatzen dituztenentz.

Alderdi horiek kontuan hartuta, lehenik egiaztatzen da laneko arriskuei aurre egiteko sistemen ezartze-maila nabarmena dela Gizarte-Ekonomiaren enpresetan. Eranskin kualitatiboari erantzun dioten erakundeen %83,8k badu mekanismo formalen bat horrelako arriskuei aurre egiteko.

Nabarmentzen da sistema-mota horien eranste handiagoa eraikuntzan, %93,3ko baino ezartze-maila handiagoarekin, ondoren industria (%87,7) eta zerbitzuak (%80,2) doazela. Ezarpena %55,6ra murrizten da, ordea, lehen sektorean.

**LANEKO ARRISKUEI AURRE EGITEKO SISTEMEN EZARPENA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2010**

| | GUZTIRA % | Lehen sektorea % | Industria % | Eraikuntza % | Zerbitzuak % |
|---|---|---|---|---|---|
| Laneko arriskuei aurre egiteko sistemen erabilera | 83,8 | 55,6 | 87,7 | 93,3 | 80,2 |

Enpresa-tamainaren eta plangintza horien erabilera-mailaren arteko korrelazio positiboa egon arren, tresna horien ezarpena oso hedatua dago enpresa guztietan. Are 6 enplegu baino gutxiagoko enpresetan, erabilera-maila %72,4ra iristen da, 6 lanpostu edo gehiago dituzten enpresen artean %92ko maila erdietsi edo gainditzen dela.

**LANEKO ARRISKUEI AURRE EGITEKO SISTEMEN EZARPENA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA. 2010**

| | GUZTIRA % | 6 enplegu baino gutxiago % | 6 - 15 % | 16 - 50 % | 51 - 100 % | 101 - 200 % | 201 500 % | 500 enplegutik gora % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Laneko arriskuei aurre egiteko sistemen erabilera | 83,8 | 72,4 | 91,9 | 95,9 | 97,9 | 100 | 100 | 100 |

Ingurumenari lotutako jarduerei dagokienez, bigarrenik, guztira Gizarte-Ekonomiaren enpresen %47,0k ingurumena zaintzearen aldeko neurriak ditu ezarrita.

Argiro ikusten da, kasu horretan, ingurumenarekin lotutako jardueraren gauzatze-maila nabarmen aldatzen dela enpresa-tamainaren arabera. 6 langile baino gutxiagoko enpresetan, mota horretako ingurumen-jarduerak enpresen %33,3k gauzatzen du. Ehuneko hori 6 eta 25 enplegu bitarte dituzten enpresen 50,4ra iristen da, eta 16 eta 50 langile bitarte dituzten 59,9ra. 51 enplegu baino gehiagoko enpresen artean, ingurumena babesteari lotutako jardueraren gauzatzea ohiko ariketa da enpresen %80 baino gehiagorentzat, 101 eta 200 enplegu bitarteko enpresentzat izan ezik, horien parte hartzearen adierazlea %72,7n kokatzen baita.

**INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERAREN BAT BURUTZEN DUTEN ENPRESEN PORTZENTAJEA, ENPLEGU-MAILAREN ARABERA 2010 (maila guztietako enpresa guztien %)**




Azkenik, Kooperatiba eta Sozietate Laboralen prestakuntzari dagokionez, eremu horretan jardueraren bat edo beste burutzen dutela adierazten duten enpresak %30 baino gutxiago dira.

Hala ere, establezimenduaren tamainari oso lotutako jarduera-mota da, azken bi urteotan alor horretan prestakuntza-jardueraren bat burutu duten enpresen proportzioa nabarmen emendatzen dela enpresaren tamaina handitu ahala. 15 lanpostu baino gutxiagoko erakundeen artean prestakuntza-jarduerak doi-doia %15-20 arteko eragina badu, 16 enplegu edo gehiagoko enpresen gehienak, aldiz, parte hartzen du, 51 eta 100 enplegu bitartekoetan %60ra hurbiltzen dela (%59,6). 100 enplegu baino gehiagoko enpresetan, jarduera-mota horretako parte hartzeak %80a erdiesten edo gainditzen du.

**PRESTAKUNTZA KOOPERATIBA ETA SOZIETATE LABORALEN ALORREKOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (alor honetan jarduerak burutzen dituzten enpresen %, enplegu-mailaren arabera). 2010**




Prestakuntza-jarduerako parte hartzea aztertzean, antzematen da enpresaren jarduerarekin lotura-maila handiagoa duten langileei prestakuntza bideratzeko joera handiagoa. Hori horrela, bazkideen %71,2k prestakuntza jasotzen badu, proportzioa %34,9ra jaisten da administrazioaren alorreko langileen kasuan eta %32,0ra Zuzendaritza-Batzordeko kideei dagokienez. Kooperatiba eta Sozietate Laboralen barruan prestakuntzako parte hartzeak %22,7ko minimoa erdiesten du enpresa-erakundeetako gainerako langileen kasuan.

PRESTAKUNTZA KOOPERATIBOA ETA SOZIETATE LABORALEN INGURUKOA. Prestakuntza jaso dutenak 2010




## 3.- ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA

Eranskin honen hirugarren eta azken atalak kontuan hartzen du Gizarte-Ekonomiaren enpresek beste enpresa batzuekin abiatutako harreman-maila enpresa-jarduera gauzatzeari begira. Enpresen %29,4 dago tartean.

Ehunekoan, alde nabarmenak antzematen dira enpresen forma juridikoaren arabera. Kooperatiben artean, lankidetza-harremanetan parte hartzen duten enpresen proportzioa %39koa den bitartean, Sozietate Laboralen kasuan adierazlea %16 inguruko kopurura murrizten da (%16,9 SMLetan eta %15,5 SALetan).

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN LANKIDETZA-HARREMANAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010

| | GUZTIRA % | S.KOOP. % | SAL % | SML % |
|---|---|---|---|---|
| Lankidetza harremanak dituzte | 29,4 | 39,0 | 15,5 | 16,9 |

Lankidetza-harremanak dituztela adierazten duten enpresen kasuan, harreman horien izaera hein handi batean beste enpresa batzuekiko unean uneko elkarlana da (%61,0). Hala ere, kasuen %37,2n enpresen arteko lankidetzak izaera biziagoa hartzen du, berekin dakartzala itun estrategikoak beste enpresa batzuekin. Enpresen %19,3k bigarren mailako lankidetza jarduerak burutzen dituela adierazten du, eta %5,2k Joint-Venture motako aliantza estrategikoak aipatzen du. Akzio-trukaketak Gizarte-Ekonomia osatzen duten enpresen %3,4ri eragiten dio

Informazioa zuzenean alderatzeko modurik ez dagoen arren, Eranskineko sarreran ohartarazi denez, azpimarratu behar da datuek oro har beheranzko joera islatzen dutela 2008 eta 2010 artean, enpresen artean burutu diren lankidetza-moten gauzatze-mailari dagokionez. Salbuespen bakarra unean uneko elkarlana da, horien garapenak goranzko joera baitu.

**GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA-HARREMANEN IZAERA. 2010 (enpresa -ehunekoa kopuru osoarekiko)**




Beste enpresa batzuekiko lankidetza-politikan, Kooperatibak dira forma juridiko bera duten erakundeekin aliantzak gauzatzeko joera argiena dutenak. Erakunde horiek kasuen %86an forma juridiko beraren barneko elkarlana burutzen dute (%86,0). Izaera juridiko ezberdineko enpresekiko harremanek eragin txikiagoa dute: %35,7 merkataritza-sozietateekin jartzen da harremanetan, %27,1 beste sozietateekin eta %19,9 Sozietate Laboralekin.

Sozietate laboralen kasuan, merkataritza-sozietateekin mantentzen dituzten harremanak dira nagusi (%59,1 SALen kasuan eta %57,4 SMLen kasuan). Hala ere, SALen %40,9k eta SMLen %51,1ek lankidetza-harremanak mantentzen dituzte beste Sozietate Laboral batzuekin. Sozietate Laboralen %30 inguruk ditu harremanak, era berean, Kooperatibekin (%31,8 SALen kasuan eta %25,5 SMLen kasuan).

**LANKIDETZA-HARREMANAK IZATEKO AUKERATZEN DIREN ENPRESEN FORMA JURIDIKOA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**

| | GUZTIRA | S.KOOP. | SAL | SML |
|---|---|---|---|---|
| Kooperatibak | 72,1 | 86,0 | 31,8 | 25,5 |
| SAL/SML | 26,6 | 19,9 | 40,9 | 51,1 |
| Merkataritza-Sozietateak | 41,0 | 35,7 | 59,1 | 57,4 |
| Bestelako Sozietateak | 26,2 | 27,1 | 31,8 | 19,1 |

Enpresen tamaina, berriro ere, aldagai esplikatzailea da enpresek lankidetzarako harremanak ezartzeko garaian erakusten duten joera handiagoa edo txikiagoa aztertzeko garaian.

Horrela, sei enplegu baino gutxiagoko enpresen %17,1ek baino ez ditu gauzatzen lankidetza-harremanak, 6 eta 15 langile bitarte dituzten enpresen %25,2k izaten ditu horrelako harremanak beste enpresa batzuekin. Proportzio hori %44,2ra handitzen da 16 eta 50 enplegu bitarteko enpresetan eta %68 eta 70 arteko kopurura 51 eta 200 lanpostu bitartekoetan. Proportzio maximoa 201 eta 500 enplegu bitarteko erakundeetan gertatzen da, %89,5eko mailarekin. 500 langile baino gehiagoko enpresatan, ordea, proportzioa beheratzen da, %58,3 arte, 2008an antzemandako kopurua baino askoz txikiagoa.

**ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA, ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINAREN ARABERA. 2010**
**(enpresa portzentajea kopuru osoarekiko)**




Geografikoki, enpresen arteko lankidetza-harremanak batez ere EAEren gertuko eremuan gauzatzen dira, abiatutako harremanen %94,1 euskal enpresen artean gertatzen dela. Enpresen arteko lankidetza-harremanen %21,7 Estatuko beste toki batzuetako enpresekin gauzatzen da. Estatutik kanpoko beste enpresekiko harremanez den bezainbatean, lankidetza-harremanak dituzten enpresen %11,4k Europar Batasunean (EB) kokatutako enpresekin abiatzen du eta %4,1ek munduko beste edozein herrialdetako enpresekin.

Forma juridikoaren aldagaia kontuan hartuta, SALek proportzio handiagoan izaten dituzte harremanak Estatuko beste tokietan kokatutako enpresekin, enpresen %31,8k dituela, SMLen %27,7aren eta Kooperatiben %19,5aren aurrez aurre. Kooperatibak, ostera, erakunde irekienak dira Estatuko eremutik kanpoko enpresekin harremanak abiatzera. Kopuruak, hala ere, txikiak dira oraindik (%12,7 EBean eta %5,4 munduko beste herrialdeetan).

**ENPRESEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2010**

| | GUZTIRA | S.KOOP. | SAL | SML |
|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % |
| EAE | 94,1 | 95,9 | 86,4 | 89,4 |
| Espainia | 21,7 | 19,5 | 31,8 | 27,7 |
| Europar Batasuna | 11,4 | 12,7 | 9,1 | 6,4 |
| Gainerako herrialdeak | 4,1 | 5,4 | 0,0 | 0,0 |

Elkartze-jarduera kontuan hartuta, enpresen %38,2k adierazten du federazio-erakunderen edo enpresa-elkarteren bateko kide dela. Kopuru hori askoz handiagoa da Kooperatiben artean, erdia baino gehiagok adierazten baitu elkarteren bateko kide dela (%51,2). Sozietate Laboralen artean, adierazlea %21en inguruan kokatzen da (%21,1 SALetan eta %20,5 SMLetan).

Elkartze-jardueraren mailak emendatzera jotzen du enpresa-tamaina handitu ahala, 500 enplegu baino gehiagoko enpresen artean mugatuenetakoa izan arren: %25 baino ez, doi-doia 6 enplegu baino gutxiagoko erakundeetako %26,3a baino ehuneko bat gutxiago. Ehunekoa 35,9ra handitzen da 6 eta 15 enplegu bitarteko enpresen artean, 16 eta 200 enplegu bitarteko enpresetan kopurua %60 eta 75 artera iristen da. %89,5ekin, elkartze-tasak maila garaiena jotzen du 201 eta 500 enplegu bitarteko enpresetan.

**ENPRESA-ELKARTEREN BATEKO KIDE DEN ENPRESEN EHUNEKOA, FORMA JURIDIKO ETA TAMAINAREN ARABERA 2010**






# BIGARREN ZATIA:

# GIZARTE-EKONOMIAREN FORMA BERRIAK

## SARRERA

Agiri honek osatu egin nahi du Gizarte-Ekonomiaren muin historikoaren –Kooperatibak eta Sozietate Laboralak- azterketa, orain arte estatistika-lanean sartu gabeko erakundeei dagozkien zenbait datu orokor emanez. Erakunde horiek, halere, berariaz aipatzen ditu ekonomiaren alor hori arautzen duen Gizarte-Ekonomiaren Legearen 5. Artikuluak[16]. Hurrengo erakunde-motak dira: Fundazioak eta Elkarteak, Enplegu-Zentro Bereziak, Laneratzeko Enpresak, Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeak, Arrantzale-Kofradiak eta Eraldaketarako Nekazaritza-Sozietateak.

Gizarte-Ekonomiaren adiera berrian sartutako enpresa eta establezimendu ahalik eta gehienak bildu nahi dituen arren azterketak, soilik zati batean arreta jartzen du, zehazki hurrengo kolektiboetan:

### 1. Fundazioak eta Onura Publikoko Elkarteak

Azterketan sartzen dira gizarte-interesa nahiz aplikatzea duten esparru ezberdinekin lotutako jarduera gauzatzen duten izaera pribatuko Fundazioak eta Elkarteak[17]. Elkarteei dagokienez, ordea, hurbiltze kuantitatibo honetan Onura Publikokoak besterik ez dira sartzen. Zentzu horretan, urteko kontuak erregistratzera behartuta dagoen elkarte-mota bakarra da. EAEn 585 Fundazio eta 185 Onura Publikoko Elkarte daude.

### 2. Enplegu-Zentro Bereziak

Enplegu-Zentro Bereziek helburu hirukoitza dute ezaugarri: a) ahalmen urriko pertsonei lan produktibo eta ordaindua ematea; b) norbera gizartean egokitzeko zerbitzu osagarriak ematea; eta c) ohiko lan-merkatuan ahalmen urriko pertsonak laneratzeko zubi gisa aritzea[18].

---

[16] Artikuluak adierazten du gizarte-ekonomia osatzen dutela ekonomia-jarduera burutzen duten kooperatibek, mutualitateek, fundazioek eta elkarteek, sozietate laboralek, laneratzeko enpresek, enplegu-zentro bereziek, arrantzale-kofradiek, eraldaketarako nekazaritza-sozietateek eta esandako artikuluan xedatutako hatsarreak jarraitzen dituzten arau zehatzen arabera sortutako erakunde bereziek. Halaber adierazten du gizarte-ekonomia osatu dezaketela ekonomia- eta enpresa-jarduera burutzen duten erakundeek, haien funtzionamendu-arauek aurreko artikuluan bana-banaka aipatzen diren hatsarreei erantzunez gero, ondorioz legearen 6. artikuluan xedatutako erakunde-katalogoan sartuko direla.

[17] Fundazioak garatutako jardueraren arabera sailkagai dira; teknologiako, laneko, hezkuntzako, inbestimenduko edo gizarte-laguntzako Fundazio gisa zehaztu daitezkeela.

[18] Elbarrien gizarte-egokitzerako, apirilaren 7ko, 13/1982 Legearen 42. artikuluak xedatutakoaren arabera, Enplegu-Zentro Bereziak dira lan produktiboa burutzea helburu nagusi dutenak, merkatu-jardueran erregulartasunez parte hartuz, eta haien langile elbarriek behar dituzten gizarte-egokitzeko nahiz egokitze pertsonaleko zerbitzuak ematea eta enplegu ordaindua bermatzea xede dutenak, era berean ahalik eta elbarri gehien ohiko lan-erregimenera laneratzeko bide direla.

EAEko testuinguruan, EHLABE elkartea nabarmentzen da[19], Enplegu Bereziko Erakundeek Onura Publikodun gisa aitortutako elkartea baita. EAEn ehun lantoki baino gehiago kudeatzen dituzten zazpi elkartek osatzen dute, ahalmen urriko 5.410 pertsonari lana ematen dietela. Aipagarri da erakunde horietako batzuk Gizarte-Ekonomiara hertsiki egokitzen ez diren forma juridikoak hartzen dituztela (RAEPek, adibidez, erantzukizun mugatuko sozietatearen forma du), beste batzuk, aldiz, Gizarte-Ekonomiaren muin historikoan sartzen direla (hala gertatzen da Katea Legaia-rekin, SMLeko forma jurdikoduna)[20]. Beste kolektibo garrantzitsu bat Confederación Nacional de Centros Especiales de Empleo (CONACEE) osatzen duten lau Enplegu Bereziko Erakundeak dira.

## 3. Laneratzeko Enpresak

Arrisku edo gizarte-baztertzeko egoeran dauden pertsonen laneratzea helburu duten erakundeak dira laneratzeko enpresak. Kolektibo horretako zati handi batek Gizatea Elkartea osatzen du, guztira 44 laneratze-enpresarekin, hots, Estatuaren eremuko laneratzeko enpresen %22,0a.

## 4. Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeak

Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAEak) Estatuko beste erkidego batzuetan dauden Gizarte-Aurreikuspeneko Mutualitateen baliokide dira, EAEn gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan nagusi direla BGAEak eta haiek osatzen dituzten aurreikuspen-plangintzak.

Hurbiltze honetan aurreikuspen-plangintzak dituzten BGAEak sartzen dira, hots, Gizarte-Segurantza publikoaren osagarri diren pentsioak eta dirulaguntzak ematen dituzten erakundeak. Alde batera uzten dira ekonomia-babes osagarriaren hornidurarekin lotzen ez diren arrisku espezifikoen (suteak, osasun-laguntza, ehorzketa-xahupenak, etc.) estaldura egiten duten 20 bat aurreikuspen-erakundeak. Azterketan azaldutako baldintzak betetzen dituzten 175 BGAE antzematen dira EAEn 2010 urtean.

---

[19] Elkartea hauek osatzen dute: Gureak, Indesa 2010 S.L., Katea Legaia, Lantegi Batuak, RAEP, Ranzari eta USOA.

Erakunde horiei dagokienez, adierazi behar da argitaraldi honetan Indesa 2010 S.L.-ren ekonomia- eta enplegu-datuak ez direla sartzen. Zergatikoa da erakunde horrek 2010 urtea ixtean bere egin duela oraingo forma juridikoa, jarduerari 2011ko ekitaldian ekin diola. Haren enpleguak, eta garatutako ekonomia-jarduerak, beraz, Arabako Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko egituran kokatzen dira 2010eko abenduaren 31 arte. Titulartasun publikoko erakunde gisa, GOFEa ez da aztergai argitaraldi honetako Gizarte-Ekonomiaren Forma Berrien azterketaren testuinguruan.

[20] Beraz, Gizarte-Ekonomiaren Estatistikaren bidez jasotako ohiko formekin bildu daitezkeen erakunde-motak dira, ekonomia-magnitudeak bateratuz gero, ondorioz haien kontabilizatze bikoitza saihestea beharrezko dela.

## 5. Arrantzale-Kofradiak

Arrantzale-Kofradiak zuzenbide publikoko korporazioak dira, legezko nortasundunak eta haien helburuak betetzeko gai direnak. Arrantza-sektorearen administrazio publikoarekiko parte hartzerako eta elkarlanerako bide gisa legez eratzen dira, arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren interes orokorraren, nahiz haien produktuen antolatzearen eta merkaturatzearen alde. EAEn bi Federazio daude, Gipuzkoari eta Bizkaiari dagozkienak, 14 Kofradiaz osatuak.

## 6. Eraldaketarako Nekazaritza-Sozietateak

Eraldaketarako Nekazaritza-Sozietateak (ENSak) desagertzeko joera duen forma juridikoa dira, lehen mailako Kooperatibek dituztenen antzeko ezaugarriak emateko jaioa historikoki. Gaur egun, gehienak Sozietate Mugatu edo Kooperatiba gisa birmoldatu dira. EAEn mota horretako 26 erakunde daude soilik benetako ekonomia-jarduerarekin.

Txostenean azaldutako hurbiltze kuantitatiboari dagokionez, lehen azaldutako sei kolektiboetako bakoitzari dagozkion hurrengo dimentsio eta/edo aldagai ekonomikoen azterketan jartzen du arreta:

- Txostenak aztertzen dituen erakunde edo zentroen **unibertsoaren eta laginaren** neurriak ezartzea.
- **Enplegatutako langileen** kuantifikazioa, kasu horretan borondatezko eta ordaindutako langileak eta haien ezaugarritze laburra.
- Sortutako **soldata-masak**, barnean hartzen dituela hala Soldata eta Lansariak nola Gizarte-Kotizazioak.
- 2010eko ekitaldiari lotutako **fakturazio-bolumena eta ustiapen-sarrerak**.
- 2010eko ekitaldian jasotako **dirulaguntzak**.
- Gizarte-Ekonomia Berriaren kolektibo edo alor bakoitzak sortutako emaitzak **Zerga aurreko Mozkin (ZAM)** gisa adierazita **eta urteko BEGa**.

Agiria amaitzen da, azken atalean, Gizarte-Ekonomiaren Forma Berriek lortutako kopuruak eransteko lehen saioarekin, forma juridiko klasikoen kontuei gehitzen zaizkiela, 2010 urteko sektorearen benetako neurriaren ikusketa zabalagoa lortzearren.

# 1.- FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK

## 1.1.- ERAGILEEN KUANTIFIKAZIOA: FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK

Gizarte-Ekonomiaren Forma Berrien artean sartzen den lehen erakunde-taldea Fundazioek eta Elkarteek osatzen dute.

Aurreneko taldeari dagokionez, EAEn ekonomia-jarduera gauzatzen duten **Fundazioena**, 2010eko ekitaldian **585 erakundeko multzoa** antzematen da.

Argitaraldi honetan eskura dagoen informazioa dagokio 2010eko ekitaldiko kontuak gordailutu dituzten Fundazioek osatutako laginari, 315 guztira, 1.1 taulan islatutako eran urtekotutako langile ordainduen bolumenaren arabera banatuak. Erabilitako laginak, beraz, dauden erakundeen unibertso osoaren %53,8 biltzen du. Enpleguari dagokionez, estaldura handiagotzat jotzen da, enplegu-bolumen handieneko Fundazioek kontu-gordailua gauzatzeko joera baitute.

**1.1 taula**

**FUNDAZIOEN LAGIN-BANAKETA ENPLEGU-MAILAREN ARABERA 2010 (z.a. eta %b.)**

| | 2010 | |
|---|---|---|
| | **Fundazioak** | **%b.** |
| 500dik gora enplegu | 1 | %0,3 |
| 201-500 | 8 | %2,5 |
| 101-200 | 17 | %5,4 |
| 51-100 | 17 | %5,4 |
| 16-50 | 42 | %13,3 |
| 6-15 | 40 | %12,7 |
| 5 enplegu arte | 57 | %18,1 |
| 0 enplegu | 133 | %42,2 |
| **GUZTIRA** | **315** | **%100,0** |

*Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza - Audyge*

Enplegu-aldagaiari dagokionez, aipagarri da enpresa-multzo handi batek ez duela langile ordaindurik edo lotutako soldata eta lansarirako kontu-sailik. Lagina osatzen duten fundazioen %42,2 egoera horretan dago, beste %30,8 batek 15 enplegu arte du, eta %13,3k 16-50 bitarte enplegu. Soilik Fundazioen %13,6k du 50 enplegu ordaindu baino gehiago.

Laginean jasota ez dagoen kolektiboa ikusgai egitearren, hots, 2010 ekitaldian kontuak gordailutu ez dituzten 270 erakundeko multzoa, 5 enplegu baino gutxiagoko Fundazioei lotutako batez besteko ekonomia-parametroen bidezko estimazioa burutzen da, tamaina handieneko Fundazioak taulan islatutako lagin-banaketan hein handian jasotzen direla egiaztatuta.

Atal honetan kontuan hartutako bigarren eragile-mota euskal elkarte-sareari dagokio. Elkarteen alorrean, elkarte-errealitate konplexu eta heterogeneoa ikusten da, informazio-muga nabarmenarekin ekonomiaren eta sortutako enpleguaren kopuruen inguruan. Kuantifikatzen zaila den erakunde-taldea da, bajak ez baitira erregistratzen, eragileak eginbehar horren mende ez daudelako. EAEko Elkarteen Erregistroan 19.800 erakunde jasotzen dira, Erregistroaren historikoaren barruan gertatutako bajei dagokien informaziorik ez dagoela. Erreferentzia-kopuruak gehiegizko neurria izan lezake garbiro, beraz.

Heterogeneotasun larri hori islatuta, aipagarri da halaber Elkarteen artean sartzen direla, hala ekonomia-xederik gabeko erakunde-kopuru handia, hiru edo gehiago pertsonek xede komuna gauzatzearren sortutakoak, nola ekonomia-tamaina handiagoko Elkarteak, adibidez Ikerketa kooperatiboko zentroak (CIC, gaztelaniaz).

Errealitate konplexu horren aurrean, lehen azterketa honetan **Onura Publikoko Elkarteei** lotutako informazioa hartzen da kontuan soilik, urteko kontuak gordailutzeko eginbeharra duten elkarteak. **185 Elkarte** dira 2010 urtean

Erabilitako laginari dagokionez, 2010eko ekitaldian kontuak gordailutzeko eginbeharra bete duten Elkarteek osatua, 167 Elkarteko multzoa da, hots, EAEko kolektiboaren %90,3 baino zerbait gehiago. Fundazioen kasuan bezala, laginean jasotzen ez diren 18 elkarteei lotutako goititzea gauzatzen da, bost enplegu baino gutxiagoko mailetan kokatutako erakunde gisa sartzen direla.

**1.2 taula**

**ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN LAGIN-BANAKETA ORDAINDUTAKO ENPLEGU-MAILAREN ARABERA 2010**

**(z.a. eta %b.)**

| | 2010 | |
|---|---|---|
| | Elkarteak | %b. |
| 201-500 | 3 | %1,8 |
| 101-200 | 2 | %1,2 |
| 51-100 | 2 | %1,2 |
| 16-50 | 18 | %10,8 |
| 6-15 | 16 | %9,6 |
| 5 enplegu arte | 19 | %11,4 |
| 0 enplegu | 107 | %64,1 |
| **GUZTIRA** | **167** | **%100,0** |

***Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza - Audyge***

1.2 taulan egiaztatu daitekeenez, Elkarteen laginean orobat nabarmentzen da enplegu ordaindurik gabeko zentro-multzo handi bat, lagin osoaren %64,1. 15 arte pertsona ordainduri ematen dio lana %21,0k; 5-50 arte pertsonari %10,8k. Gainerako %4,2ak 50 enplegu baino gehiago du.

## 1.2.- ENPLEGUA FUNDAZIOETAN ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEETAN

Urtekotutako enplegu-bolumena 2010ean, Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarteen kasuan, guztira **12.448 enplegu ordaindukoa** jotzen da. 10.213 enplegu Fundazioei dagozkie eta 2.235 Onura Publikoko Elkarteei.

**1.1 irudia**

**FUNDAZIOEN ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN ENPLEGU-BANAKETA 2010 (z.a.)**




*Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza - Audyge*

Erakunde horietan nabarmentzen da ez ordaindutako edo borondatezko enpleguaren pisua. Fundazioetan, kolektibo horrek 3.553 pertsonako multzoa ezaugarritzen du, Fundazioei lotutako enplegu osoaren %25,8, ordaindua izan ala ez. Onura Publikoko Elkarteen kasuan, ez ordaindutako edo borondatezko enpleguaren ehunekoa 38,5 arte handitzen da, guztira 1.402 borondatezko 2010 urtean.

**1.2 irudia**

**ORDAINDUTAKO ETA BORONDATEZKO ENPLEGU-BANAKETA FUNDAZIOETAN ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEETAN 2010 (%)**




*Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza – Audyge*

## 1.3.- MAGNITUDE EKONOMIKO NAGUSIAK: FUNDAZIOAK ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEAK

### 1.3.1.- Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarteen Diru-Sarrerak

2010eko ekitaldiaren barruan, **Fundazioen** ustiapen- eta finantza-sarreren multzoa guztira 1.379 milioi eurokoa da. Sortutako irabazien motaz den bezainbatean, **fakturazioari** dagokion zenbatekoa nabarmentzen da, salmentek **875,6 milioi euroko** kopurua dutela, hots, 2010 urteko Fundazioen ustiapen- eta finantza-sarreren %63,5.

Fundazioak ezaugarritzen dituzten izaera eta gizarte-intereseko helburua –jardueraren aplikatzean eta jendarteratzean- ikusita, Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen sailak duen pisua nabarmentzen da. 442 milioi eurokoa guztira, Partida hori diru-sarreren %32,1 da.

**1.3 taula**

**USTIAPEN- ETA FINANTZA-SARREREN BANAKETA FUNDAZIOETAN 2010 (z.a. eta %b.)**

| | 2010 | |
|---|---|---|
| | Euroak | %b. |
| Salmentak | 875.614.843 | 63,5 |
| Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak | 442.383.693 | 32,1 |
| Beste ustiapen-sarrera batzuk | 35.184.862 | 2,6 |
| Finantza-sarrerak | 25.807.973 | 1,9 |
| **GUZTIRA** | **1.378.991.371** | **%100,0** |

*Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza - Audyge*

**Elkarteei** dagokienez, ustiapen- eta finantza-sarreren multzoa 1353,7 milioi eurokoa da 2010eko ekitaldian. Aztertutako erakundeek **186,8 milioi euroko fakturazioa** dute guztira, hots, sortutako diru-sarreren %52,8. Pisu erlatibo handiagoa du, kasu horretan, Dirulaguntza, dohaintza eta legatuei lotutako sailak, %39,3ko parte hartzearekin irabazien multzoan. Horren ondorioz Elkarteek 139 milioi inguru euroko kopurua jasotzen dute.

**1.4 taula**

**USTIAPEN- ETA FINANTZA-SARREREN BANAKETA ELKARTEETAN 2010 (z.a. y %b.)**

| | 2010 | |
|---|---|---|
| | Euroak | %b. |
| Salmentak | 186.795.890 | 52,8 |
| Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak | 138.964.256 | 39,3 |
| Beste ustiapen-sarrera batzuk | 27.216.537 | 7,7 |
| Finantza-sarrerak | 759.992 | 0,2 |
| **GUZTIRA** | **353.736.675** | **%100,0** |

*Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza - Audyge*

Agregatuki, 2010eko ekitaldiaren barruan, guztira **Fundazioek eta Elkarteek 1.062,4 milioi euroko fakturazioa sortzen dute**. Irabazi gisa jasotzen dituzte 581,4 milioi euro Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen bidez.

**1.3 irudia**

**FUNDAZIOEN ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN FAKTURAZIOA ETA DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK 2010 (z.a.)**




*Iturria: Fundazioen Babeslaritza Eusko Jaurlaritza – Audyge*

## 1.3.2.- Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarteen BEGa

2010eko ekitaldiari lotutako zerga aurreko mozkinaren eta soldata-masaren kopuru agregatu gisa ulertuta, Fundazioen eta Elkarteen multzoak **473,1 milioi euroko BEGa** sortzen du. 360,7 milioi euro Fundazioei dagozkie eta 112,4 milioi Onura Publikoko Elkarteei.

**1.5 taula**

**FUNDAZIOEN ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN BEGaren BANAKETA 2010 (z.a. y %b.)**

| | FUNDAZIOAK | | ELKARTEAK | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euroak | %b. | Euroak | %b. | Euroak | %b. |
| ZMA (Zerga aurreko mozkinak) | -15.728.074 | -4,4 | 599.036 | 0,5 | -15.129.038 | -3,2 |
| Langileen gastuak | 376.428.575 | 104,4 | 111.816.920 | 99,5 | 488.245.495 | 103,2 |
| **BEG** | **360.700.501** | **%100,0** | **112.415.956** | **%100,0** | **473.116.457** | **%100,0** |

*Iturria: Propio egina*

Desagregatuki, langileen gastuaren sailak azaltzen du hein handian BEG osoa. Fundazioen kasuan, Zerga aurreko mozkina negatiboa da (-15,7 milioi euro), eta Elkarteetan, aldiz, 599.036 euroko kopurua besterik ez da, doi-doia BEG osoaren %0,5.

Langileen gastua, Fundazioen kasuan, 376,4 milioi eurokoa da. Onura Publikoko Elkarteek sail horretan 111,8 milioi euro xahutzen dituzte.

## 2.- ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

### 2.1.- ERAGILEEN KUANTIFIKAZIOA: ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Enplegu-Zentro Berezien misio orokorra, EHLABEk (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea) jasotzen duenez, ahalmen urriko pertsonentzat sortutako enplegu-aukeren bidez zehazten da, gizarteratzeko eta garapen pertsonal nahiz profesionalerako bitarteko gisa, lana parte hartze soziolaboralerako tresnatzat jota.

Enplegu-Zentro Berezien azterketa kuantitatiborako hurbiltzea txosten honetan bi iturritan oinarritzen da. Lehena dagokio EAEn lan egiten duten zazpi erakunde nagusiak biltzen dituen EHLABEri[21], 100 enpresa-establezimendu baino gehiagoren ardura dutenak; bigarrenak barnean hartzen ditu Confederación Nacional de Centros Especiales (CONACEE) osatzen duten lau Enplegu-Zentro Bereziak. Guztira, **11 enpresa eta/edo enpresa-erakunde** dira[22]. Enplegu-Zentro Bereziei dagokien goititze-muga edo unibertsoa lotuta dago, beraz, EHLABEn eta CONACEEn elkartutako enpresei.

Enplegu-Zentro Berezien kudeaketa-erakunde handien banaketa kontuan hartuta, Lurralde Historikoaren arabera, Bizkaian duten presentzia handiagoa nabarmentzen da (%54,5), ondoren Gipuzkoa (%27,3) eta Araba (%18,2) doazela.

**2.1 irudia**
**ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEN ARLOKO ENPRESA-ERAKUNDEEN LURRALDE-BANAKETA. 2010**
**(z.a. eta %)**




*Iturria: EHLABE eta CONACEE*

---

[21] Nabarmendu behar da barnean hartzen direla, kasu honetan, Katea Legaia S.L.L.-ren kontuak, SML gisa Gizarte-Ekonomiaren forma juridiko klasikoen parte dena, hala nola Lantegi Batuak-enak, Fundazioaren forma juridikoa duen erakundea.
[22] Arabaren kasuan, gogoratu behar da Indesa 2010 S.L.-ri lotutako ekonomia- eta enplegu-datuak ez direla barnean hartzen, zergatikoa lehenago azaldu dugunez (ikus 19. oharra).

## 2.2.- ENPLEGU-ZENTRO BEREZIETAKO ENPLEGUA

2010ean, Enplegu-Zentro Berezien multzoak 8.203 lanpostu sortzen ditu guztira. Empleguen lurralde-banaketan, establezimenduen kasuan antzeman ez bezala, Gipuzkoa da nagusi. Lurralde horrek biltzen du mota horretako zentroek sortutako enpleguaren %57,6; Bizkaiak %41,9 biltzen duela eta Arabak doi-doia %0,6[23].

**2.2 irudia**
**ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEN ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETA. 2010**
**(z.a. eta %)**




*Iturria: EHLABE eta CONACEE*

Hala ere, Enplegu-Zentro Berezietan zenbatutako enplegu guztiak ez dira enplegu urtekotuak; zentzu horretan beheranzko estimazio eta egokitzea egiten da, 19.100 euroko Soldata eta Lansarien ereduzko ratioa hartuz. Horrela, **jotako enplegu urtekotua** 2010 urtean **5.563 enplegukoa** da.

## 2.3.- MAGNITUDE EKONOMIKO NAGUSIAK: ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

### 2.3.1.- Enplegu-Zentro Berezien Diru-Sarrerak

2010eko ekitaldian, **142,9 milioi eurokoa** da Enplegu-Zentro Bereziei lotutako **fakturazioa**. Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak ekitaldi berean 56,9 milioi eurokoak dira. Ustiapen- eta finantza-sarreren multzoa 203,3 milioi eurokoa da guztira.

[23] Indesa 2010 SLren enplegua, irudian biltzen ez dena, 600 inguru langilekoa jotzen da Araban 2010 eperako.

**2.1 taula**

**USTIAPEN- ETA FINANTZA-SARREREN BANAKETA ENPLEGU-ZENTRO BEREZIETAN 2010. (z.a. eta %b.)**

| | 2010 | |
|---|---|---|
| | Euroak | %b. |
| Salmentak | 142.885.631 | 70,3 |
| Dirulaguntza, dohaintza eta legatuak | 56.891.854 | 28,0 |
| Beste ustiapen-sarrera batzuk | 3.260.071 | 1,6 |
| Finantza-sarrerak | 299.071 | 0,1 |
| **GUZTIRA** | **203.336.627** | **%100,0** |

***Iturria: EHLABE eta CONACEE***

## 2.3.2.- Enplegu-Zentro Berezien BEGa

**116,3 milioi eurokoa** da EAEko Enplegu-Zentro Bereziek sortutako **BEGa**. Soldata eta lansarien saila nabarmentzen da, %91,4ko pisuarekin BEGarekiko eta guztira 106,3 milioi eurorekin. Zerga aurreko mozkina gainerako %8,6a da, hots, 10,0 milioi euroko kopurua.

**2.2 taula**

**ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEN BEGaren BANAKETA (z.a. eta %b.)**

| | ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK | |
|---|---|---|
| | Euroak | %b. |
| ZMA (Zerga aurreko mozkinak) | 10.005.122 | 8,6 |
| Langileen gastuak | 106.253.401 | 91,4 |
| **BEG** | **116.258.523** | **%100,0** |

***Iturria: Propio egina***

# 3.- LANERATZEKO ENPRESAK

## 3.1.- ERAGILEEN KUANTIFIKAZIOA: LANERATZEKO ENPRESAK

Arrisku edo gizarte-baztertzeko egoeran dauden pertsonak laneratzeko enpresa-egitura gauzatzen dute laneratzeko enpresek. Gizatea-k, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea, ematen dituen kopuruen bidez gauzatzen da kolektibo horren azterketa.

2010 urteko Gizarte-Oroitidazkian parte hartu duten Gizatea-n elkartutako erakundeak guztira **44 enpresa** dira, hots, Estatuko eremuan dauden laneratzeko enpresen %22. Txosten honi dagokionez, Gizarte-Ekonomiaren Forma Berrietan sartzen den talde horren unibertsoa osatzen dute[24].

Bizkaia da enpresa gehien biltzen dituen lurraldea, %65,9. Gipuzkoako eta Arabako lurraldeek kontuan hartutako enpresen %15,9 eta %18,2 hartzen dute, hurrenez hurren.

**3.1 irudia**
**LANERATZEKO ENPRESEN LURRALDE-BANAKETA 2010 (z.a. eta %)**




***Iturria: Gizatea***

